



ETENGABEKO PRESTAKUNTZAKO JARDUEREN HORNITZAILEARENTZAKO GIDALIBURUA»



# ETENGABEKO PRESTAKUNTZAKO HORNITZAILEENTZAKO GIDALIBURUA

LANBIDE SANITARIOEN ETENGABEKO  
PRESTAKUNTZAKO JARDUERAK  
EGIAZTATZEKO ESKAERAK IZAPIDETZEKO  
JARRAIBIDEAK ETA ARAU OROKORRAK

LANBIDE SANITARIOEN  
ETENGABEKO PRESTAKUNTZAKO  
BATZORDE NAZIONALA



Dokumentu honen helburua lanbide sanitarioen etengabeko prestakuntza egiaztatzeko prozedura arautzen duten jarraibide eta arau guztiak modu errazean aurkeztea da.

Euskal Autonomia Erkidegoko sistema egiaztatzaileek dokumentu honetan biltzen diren gutxieneko irizpideak garatu eta zehaztu ahal izango dituzte.

Etengabeko prestakuntzako jardueren egiaztapena eskatu nahi duten hornitzaile guztientzat da.

## **2018. URTEA**

### **HORNITZAILEENTZAKO GIDALIBURUAREN LANTALDEA**

#### **Lanbide Sanitarioen Etengabeko Prestakuntzako Batzordea**

##### ***Erredaktore-taldea:***

- **ANDALUZIA**
- **KANTABRIA**
- **KATALUNIA**
- **MADRIL**
- **OSASUN, GIZARTE-ZERBITZU ETA BERDINTASUNERAKO MINISTERIOA**
- **NAFARROA**
- **EUSKADI**

# AURKIBIDEA

1.	SARRERA.....	1
2.	EGIAZTAPENA OSASUN-SISTEMA NAZIONALEAN.....	3
2.1.	EGIAZTAPENARI BURUZKO KONTZEPTUAK.....	3
2.2.	NORK ESKA DEZAKE EGIAZTAPENA? ZER AURKEZTU BEHAR DUTE?.....	3
2.3.	IKASGAI EGIAZTAGARRIAK.....	3
3.	SORRERA ETA BILAKAERA.....	6
3.1.	SISTEMAREN EGITURA.....	6
4.	EGIAZTAPENA, AUTONOMIA-ERKIDEGOETAN.....	7
4.1.	LANBIDE SANITARIOEN ETENGABEKO PRESTAKUNTZAKO BATZORDEA.....	7
4.2.	OSAERA.....	7
4.3.	KONPETENTZIAK ETA ERANTZUKIZUNA:.....	7
4.4.	FUNTZIONAMENDUA:.....	7
5.	EGIAZTAPEN-PROZESUA.....	14
5.1.	ESKAERA EGITEKO DOKUMENTU OFIZIALAK.....	14
5.2.	EGIAZTAPEN-PROZESUAREN MAPA.....	15
5.3.	EGIAZTAPEN-PROZESUAREN DESKRIBAPENA.....	15
5.4.	ESKAERAK BETETZEA.....	17
5.5.	JARDUERAREN ERAKUNDE HORNITZAILEAREN DATUAK.....	18
5.6.	PRESTAKUNTZA-JARDUERAREN DATUAK.....	19
5.7.	JARDUERAREN EZAUGARRIAK:.....	28
5.7.1.	<u>JARDUERAREN EGOKITASUNA</u> .....	28
5.7.2.	<u>IRAKASKUNTZA-HELBURUAK</u> .....	30
5.7.3.	<u>IRAKASKUNTZA-METODOA</u> .....	31
5.7.4.	<u>EBALUAZIOA</u> .....	32
5.7.5.	<u>ANTOLAMENDUA ETA LOGISTIKA</u> .....	34



5.8.	FINANTZAKETA .....	38
5.9.	BABESLEAK.....	38
5.10.	INFORMAZIO GEHIGARRIA.....	39
6.	BILERA ZIENTIFIKOAK, BILTZARRAK ETA JARDUNALDIAK EGIAZTATZEKO ESKAERA .....	40
6.1.	KONGRESU ETA JARDUNALDIAK.....	40
6.2	SAIO KLINIKOAK.....	40
7.	LANBIDE SANITARIOEN ETENGABEKO PRESTAKUNTZAKO BATZORDEAREN LOGOTIPOA .....	43
8.	BERMATUTAKO JARDUERAK EGIAZTATZEKO ARAUAK .....	43
8.1.	ZIURTAGIRIAREN EGITURA OROKORRA.....	44
8.2.	EDUKIA: .....	44
8.2.1.	<u>GOIKO ALDEA:</u> .....	44
8.2.2.	<u>ERDIALDEA:</u> .....	44
8.2.3.	<u>BEHEKO ALDEA:</u> .....	45
8.3.	GOMENDIOAK: .....	46
9.	PUBLIZITATEA .....	48
10.	AUDITORIAK. ....	50
11.	TERMINOEN GLOSARIOA .....	51
12.	ERANSKINAK.....	66
12.1	I. ERANSKINA:KREDITU KOPURUA KALKULATZEA.....	67

# 1. SARRERA

Profesional sanitarioaren eskubidetzat eta betebehartzat hartzen den Etengabeko Prestakuntza (44/2003 Legea, azaroaren 21ekoa, Lanbide Sanitarioen Antolamenduari buruzkoa), gaur egun ohiko eta beharrezko jardueratzat hartzen dute, osasunaren, hezkuntzaren, elkarteen eta korporazioaren arloetako erakundeek eta profesional sanitarioek. Osasun- eta gaixotasun-prozesuen ezagutzak, prozesu horiek baldintzatzen dituzten alderdiak, eredu epidemiologikoak eta erabiltzen diren teknologien berrikuntzak ez ezik, osasun-sistemen eta, oro har, gizarte-sistemen antolaketa ere etengabe aldatzen ari denez, profesionalaren konpetentziak betebehar etiko gisa mantendu eta etengabe hobetu behar dira, profesional horren esku dauden herritarrei ahalik eta arreta hoberena eskaintzeko. Etengabeko prestakuntza oso tresna indartsua da helburu hori lortzeko.

Azken hamarkada honetan, hazkunde esponentziala izan du profesional sanitarioei egiten zaien prestakuntza-eskaintzak. Hornitzaileen eta irakasleen premiei hobekien erantzungo dieten eskaintzak hautatzen laguntzeko hornitzaileei eta, bereziki irakasleei, prestakuntzaren kalitatea bereizten duen erreferentziazko sistema bat sortu behar izan da.

Helburu horiek betetzeko, Osasun Sistema Nazionalan, 1998. urteaz geroztik, antolaketa eta administrazio-prozedura erkide bat sortu eta garatu zen ofizialki, etengabeko prestakuntza sanitarioko irakaskuntza-jardueraren gutxieneko kalitate-baldintzak betetzen direla egiaztatzeko.

Egiaztapenaren helburua, beraz, honako hau da: alde batetik, hornitzaileak egiaztatzea eskatu duen irakaskuntza-ekintzari kalitate-bereizgarria ematea, eta irakaskuntza-ekintzaren diseinuaren eta edukien kalitateari eta irakasleen konpetentziari dagokionez gutxieneko baldintzak betetzen direla egiaztatu ondoren, etengabeko prestakuntzan izena eman duten profesionalari prestakuntza mota horretako kreditu batzuk ematea beren konpetentziak mantentzeko eta hobetzeko egindako ahalegina eta hartutako konpromisoa aitortzeko; eta, bestetik, prestakuntza sistema sanitarioaren premietara bideratzea.

Egiaztapen-sistema horretarako, etengabeko prestakuntza sanitarioaren definizio hau onartzen da: «Gaitasun profesionala mantentzera edo hobetzera bideratutako prestakuntza-jardueren multzoa, oinarrizko titulazioa edo espezialitate-titulazioa lortu ondoren. Pertsona edo talde baten trebakuntza eguneratzera eta hobetzera bideratuta dago, pertsona edo talde horrek bere lanbidea betetzearen ondorioz sortzen diren premiei modurik hoberenean aurre egiteko».

Ez da etengabeko prestakuntza egiaztagarritzat hartzen edozein irakaskuntza arautu (gradua, masterra, doktoregoa, espezialitatea, unibertsitate-tituluak, lanbide-prestakuntza, edota gaitasun profesionalak betetzeko beharrezkoa den irakaskuntza).

Egiaztapenaren definizio hau onartzen da sistema honetarako: «Kanpoko erakunde batek gizabanako, ikastetxe edo jarduera bati buruz egiten duen balioespena, aldezturik ezarritako irizpide eta estandar batzuen arabera». (Osasun Sistema Nazionalaren Etengabeko Prestakuntzako Batzordearen lantaldea, 1997).

Sistema Egiaztatzaileak, sortu zenetik, aurrera egin du etengabeko prestakuntza sanitarioaren diseinuen eta edukien heterogeneotasunari aplikatzekoak diren definizioak eta irizpideak hobetzeari dagokionez. Erabakiak aho batez hartzen dira Osasun Sistema



Nazionalaren Lanbide Sanitarioen Etengabeko Prestakuntzako Batzordean (OSN-LSEPB) eta autonomia-erkidego jakin baten egiaztapenek baliozkotasuna izatea ahalbidetzen duten oinarria osatzen dute Osasun Sistema Nazional osoan.

Autonomia Erkidegoek, batzorde horretako berezko kide diren aldetik, batzorde horretara bideratzen dituzte hautemandako arazoak eta premiak, batzordeak erabaki dezan.

Helburu horrekin egin dugu dokumentu hau, kalitatea kudeatzeko gure sistemaren zati gisa, lortutako akordioak hedatzeko, hobetzeko proposamenak edo argibideak sartzeko eta bezeroaren gogobetetasun-maila hobetzeko asmoz.

## 2. EGIAZTAPENA OSASUN-SISTEMA NAZIONALEAN

### 2.1. EGIAZTAPENARI BURUZKO KONTZEPTUAK

- **ETENGABEKO PRESTAKUNTZA:** Graduako edo espezialitateko ikasketak amaitzen direnean hasten den irakaskuntza/ikaskuntzako prozesu **AKTIBO** ETA **ETENGABEA** da. Profesional sanitarioek etengabeko prestakuntza jasotzeko **ESKUBIDEA** ETA **BETEBEHARRA** daukate, eta bilakaera zientifikoaren nahiz teknologikoaren eta profesionalaren eta osasun-sistemaren premien aurrean, profesional sanitarioen ezagutzak, abileziak eta jarrerak **EGUNERATZERA** ETA **HOBETZERA** bideratuta dago. (LSAL)
- **EGIAZTAPENA (OSN):** **KANPOKO** erakunde batek gizabanako, ikastetxe edo jarduera bati buruz egiten duen balioespena, aldez aurretik ezarritako **IRIZPIDE** ETA **ESTANDAR** batzuen arabera.

### 2.2. NORK ESKA DEZAKE EGIAZTAPENA? ZER AURKEZTU BEHAR DUTE?

<b>BAI</b>	Beren estatutuetan helburu gisa prestakuntza biltzen duten <b>ZENTROAK, ERAKUNDEAK</b> (publikoak zein pribatuak).	<b>ESTATUTUAK</b> (erakunde publikoek izan ezik)
	Jarduera nagusizat prestakuntza duten <b>LANGILE AUTONOMOAK</b> .	<b>OGASUNEAN ALTA.</b> Bereziki ekonomia-jardueren gaineko zergan ( <b>EJZ</b> ) <b>GIZARTE SEGURANTZAN ALTA.</b>
<b>EZ</b>	<b>PERTSONA FISIKOAK</b> , langile autonomoak izan ezik.	X
	Medikamentuen eta produktu sanitarioen edo horiekin lotura dutenen <b>FABRIKATZAILEAK</b> ETA <b>MERKATARITZA-ERAKUNDEAK</b> .	X

### 2.3. IKASGAI EGIAZTAGARRIAK

Profesional sanitarioen **KONPETENTZIA PROFESIONALA** areagotzea, mantentzea eta hobetzea helburu dutenak.

EZAGUTZA-ARLOAREN ETA XEDE DEN BIZTANLERIAREN arabera definitzen dira.

**a) EZAGUTZA-ARLOA:**

Egiaztapena eskatzearen xede diren ikasgaiak espezialitate-arlo hauetan biltzen dira:

- Irakaskuntza,
- Kudeaketa Sanitarioa eta Kalitatea.
- Ikerketa,
- Praktika klinikoa,
- Osasun publikoa

Honako hauek izango dira egiaztatariak:

- a) Estresari/autokontrolari eta orientazio psikologikoari buruzko jarduerak, betiere pazientearen zaintzera eta artatzera bideratuta badaude.
- b) Lan-arriskuen prebentzioaren alorreko prestakuntza, baldin eta diziplina edo lanbide-arlo horretako profesionalentzat bada.

Ez dira egiaztatzeko modukoak izango:

- c) PROGRAMA INFORMATIKO OROKORREN inguruko prestakuntza eta
- d) Lanbide sanitarioen HIZKUNTZA zientifikoaren alorreko prestakuntza (maila guztiak).
- e) Era berean, ez dira egiaztatuko KOMUNITATE ZIENTIFIKOAN ETA/EDO OSASUNAREN SISTEMA NAZIONALEAN ONARTUTAKO EZAGUTZA-GAIK osatzen ez dituzten edukiak dituzten jarduerak.

Titulu ofizial arautuak (unibertsitatekoak, goi-mailako ikastetxeetakoak edo administrazio publikoetakoak) ezin izango dira egiaztatu.

Salbuespen gisa, titulu horiek osatzen dituzten moduluak bakoitza bere aldetik egiaztatu ahal izango dira, honako baldintza hauek betetzen dituztenean:

- a) Moduluan parte hartzen duten pertsonen taldea ez dute titulu ofizialean eta arautuan parte hartzen duten pertsonen soilik osatzen.
- b) Moduluaren iraupena ez da 100 orduetik gorakoa.
- c) Ziurtagiria master programa baten edo espezializazio-programa baten zati dela zehazten da.

**b) Jarduera jasoko duen XEDE-BIZTANLERIA:**

Lanbide Sanitarioen Antolamenduari buruzko azaroaren 21eko 44/2003 Legean aipatzen diren profesional sanitarioei bideratutako jarduerak egiaztatu daitezke.

Jarduerak dagokion prestakuntza arautua bukatu duten profesional sanitarioentzat izango dira.

Profesional ez sanitarioek parte hartzen duten jarduerak egiaztatu ahal izango dira, betiere ulertuta gai batzuetan egokia dela hainbat lanbideetako (sanitarioak nahiz ez



sanitarioak) baterako ekintza koordinatuak ikastea eta horietan trebatzea. Nolanahi ere, *partaidetza hori ez da bertaratutako guztien % 40tik gorakoa izango. Bestela, zalantzan jarriko litzateke jardueren egokitasuna.*

Taula honetan dago zehaztuta:

Lanbide Sanitarioak		Osasun-arloko profesionalak	
GRADUA		PRESTAKUNTZA-ZIKLOAK	
Lizentziaturak	Diplomaturak	Goi-maila	Erdi-maila
<input type="checkbox"/> Medikuntza	<input type="checkbox"/> Erizaintza	<input type="checkbox"/> Anatomia patologikoa eta zitodiagnostikoa	<input type="checkbox"/> Erizaintzako zaintza osagarriak
<input type="checkbox"/> Albaitaritza	<input type="checkbox"/> Fisioterapia	<input type="checkbox"/> Dietetika	<input type="checkbox"/> Farmazia eta parafarmazia
<input type="checkbox"/> Farmazia	<input type="checkbox"/> Podologia	<input type="checkbox"/> Ahoaren eta hortzen higieena	<input type="checkbox"/> Larrialdi sanitarioak
<input type="checkbox"/> Odontoestomatologia	<input type="checkbox"/> Terapia okupazionala	<input type="checkbox"/> Diagnosi-irudia eta medikuntza nuklearra	
<input type="checkbox"/> Psikologia (BAPE espezialista eta Osasun Psikologo Orokorra)	<input type="checkbox"/> Optika eta optometria	<input type="checkbox"/> Laborategi kliniko eta biomedikoa	
<input type="checkbox"/> Elikagaien Zientzia eta Teknologia	<input type="checkbox"/> Giza elikadura eta dietetika	<input type="checkbox"/> Protesi-audiologia	
<input type="checkbox"/> * <u>Kimika</u>	<input type="checkbox"/> Logopedia	<input type="checkbox"/> Ortoprotesiak eta laguntza-produktuak	
<input type="checkbox"/> * <u>Biokimika</u>		<input type="checkbox"/> Hertz-protesiak	
<input type="checkbox"/> * <u>Biologia</u>		<input type="checkbox"/> Erradioterapia eta Dosimetria	
<input type="checkbox"/> * <u>Erradiofisika</u>		<input type="checkbox"/> Ingurumen-osasuna	
<b>(*) <u>Soilik osasun-zientzietako ESPEZIALISTAK (egoiliar-sistema)</u></b>		<input type="checkbox"/> Osasun-dokumentazioa eta -administrazioa	

Osasun Zientzietako Espezialistak izateko prestakuntzaldian dauden profesionalen kasuan:

- Osasun Zientzietako espezialista izateko prestakuntza egiten ari diren profesionalen kasuan, soilik bideratuta dauden jardueren egiaztapen-eskaerak ezin izango dira onartu.
- Egoiliarrek parte hartu ahal izango dute etengabeko prestakuntzako jardueretan, baldin eta egoiliarren tutoreak edo irakaskuntzako batzordeak egokitzat hartzen badu. Dena den, ekintza batean Osasun Zientzietako espezialista izateko prestakuntza egiten ari diren profesionalak onartzen badira, Etengabeko Prestakuntzako jardueren egiaztapen-ziurtagirietan honako hau adierazi beharko da: «Prestakuntza-jarduera honen kredituak ezin zaizkie aplikatu jarduera horretan parte hartzen duten eta Osasun Zientzietako espezialista izateko prestakuntza jasotzen ari diren profesionalen kasuan».

Kasu horretan, osasun-zientzietako espezialista izateko prestakuntzaldian dauden profesionalen ehunekoa parte-hartzaile guztien % 50etik beherakoa izango da.

### 3. SORRERA ETA BILAKAERA.

Osasun Sistema Nazionalaren Lurraldearteko Kontseiluak, 1997ko abenduaren 15ean egindako osoko bilkuran, Lanbide Sanitarioen Etengabeko Prestakuntzari buruzko Arloko Batzarraren Hitzarmenaren testua onartu zuen. Testu hori 1998ko otsailaren 13ko Estatuko Aldizkari Ofizialaren 38. zenbakian argitaratu zen.

1998ko urtarrilaren 22an, Osasun Sistema Nazionalaren Lanbide Sanitarioen Etengabeko Prestakuntzako Batzordea eratu zen; lanbide sanitarioen etengabeko prestakuntza egiaztatzeko eta koordinatzeko prozedura osoa garatzeko funtsezko elementua da.

Gaur egun, Osasun Sistema Nazionalaren Lanbide Sanitarioen Etengabeko Prestakuntzako Batzordearen egitura eta eginkizunak oinarritzko bi arauk zehazten eta arautzen dituzte: Lanbide Sanitarioen Antolamenduari buruzko Legeak (LSAL), 2003aren amaieran promulgatu zenak (azaroaren 21eko 44/2003 Legea), eta abuztuaren 31ko 1142/2007 Errege Dekretuak, Lanbide Sanitarioen Etengabeko Prestakuntzako Batzordearen osaera eta eginkizunak ezartzen dituenak eta etengabeko prestakuntzaren egiaztapen-sistema arautzen duenak.

#### 3.1. SISTEMAREN EGITURA.

Lanbide sanitarioen Etengabeko Prestakuntzako Batzordea hiru ministerioko (Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasuneko Ministerioa, Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa eta Defentsa Ministerioa) eta 17 autonomia-erkidegoetako ordezkariak osatzen dute. Administrazio Publikoen kide anitzeko organoa da, Osasun Sistema Nazionalaren Giza-baliabideetako Batzordeari atxikita dagoena.

Honako hauek osatzen dute Lanbide sanitarioen etengabeko prestakuntzarako egiaztapen-sistema (1142/2007 Errege Dekretuaren 9. artikulua):

- a) Lanbide Sanitarioen Etengabeko Prestakuntzako Batzordeak,
- b) Autonomia Erkidegoetako berriazko egiaztapen-organoeak.

## 4. EGIAZTAPENA, AUTONOMIA-ERKIDEGOETAN

### 4.1. LANBIDE SANITARIOEN ETENGABEKO PRESTAKUNTZAKO BATZORDEA.

Autonomia Erkidegoetako Lanbide Sanitarioen Etengabeko Prestakuntzako Batzordea lanbide sanitarioak arautzen dituzten legezko xedapenetatik sortu zen.

### 4.2. OSAERA.

Batzordearen osaera berariazkoa da autonomia-erkidego bakoitzean. (Ikusi Idazkaritza Teknikoen zerrenda)

### 4.3. KONPETENTZIAK ETA ERANTZUKIZUNA:

1. Irakaskuntzaren, osasunaren edo administrazioaren alorreko zentro edo unitateetako erakunde titularrak eskatuta, zentro edo unitate horiek Osasun Sistema Nazional osoan baliagarria izango den osasun-alorreko etengabeko prestakuntzako jarduerak garatzeko egiaztapenaren antolamendua eta kudeaketa, Osasun Sistema Nazionalaren Lanbide Sanitarioen Etengabeko Prestakuntzako Batzordeak ezarritako irizpide orokor, erkide eta gutxienekoei jarraituz.
2. Osasun-alorreko etengabeko prestakuntzako jarduera zehatzen egiaztapenaren antolamendua eta kudeaketa, jarduera horiek antolatzen dituzten pertsonak edo erakundeak eskatuta, Osasun Sistema Nazionalaren Lanbide Sanitarioen Etengabeko Prestakuntzako Batzordeak ezarritako irizpide orokor, erkide eta gutxienekoei jarraituz.
3. Batzordekideen edo irakaskuntzan eta etengabeko prestakuntzan sartuta dauden beste erakunde batzuen ekimenez, osasun-arloko etengabeko prestakuntzako zentroak eta jarduerak ebaluatzen adituak direnen proposamena, Batzorde bakoitzak izendatzeko, Osasun Sistema Nazionalaren Lanbide Sanitarioen Etengabeko Prestakuntzako Batzordean ezarritako oinarriari jarraituz.
4. Dagokion autonomia-erkidegoko lanbide sanitarioen etengabeko prestakuntzarako lehenasunezko egiaztapenaren arloen eta edukien definizioa.
5. Osasun-arloko prestakuntza-sistemaren ebaluazioa dagokion autonomia-erkidegoan.
6. Aurretik ezarritako eginkizunak behar bezala garatzeko behar den beste edozein.

### 4.4. FUNTZIONAMENDUA:

Lanbide Sanitarioen Etengabeko Prestakuntzako Batzordeak Osoko Bilkuraren eta Batzorde Iraunkorraren bitartez jarduten du:

a) **BATZORDEAREN OSOKO BILKURA.** Autonomietako legezko xedapen bakoitzean azaltzen diren ordezkariak osatzen dute.

b) **BATZORDE IRAUNKORRA.** Batzorde Iraunkorraren egitekoa Etengabeko Prestakuntzako Batzordearen zeregina eraginkorragoa izan dadin lortzea da.

Autonomia Erkidego bakoitzeko Lanbide Sanitarioen Etengabeko Prestakuntzako Batzordearen Idazkaritza Teknikoa behar den laguntza teknikoa eta administratiboa ematen duen, egiaztapen-eskaerak prozesatzen dituen eta prozesu osoa kudeatzen duen unitatea da.

Hornitzaileek eta ebaluatzaileek organo horrekin dituzte zuzeneko harremanak. Batzorde horren egoitza, helbidea eta harekin harremanetan jartzeko modua Autonomia Erkidego bakoitzak zehazten duena da:

319/1999 DEKRETUA, abuztuaren 31koa, Lanbide Sanitarioen Etengabeko Prestakuntzako Euskal Kontseilua sortzen duena eta prestakuntza mota hori kreditatzeko sistema bat arautzen duena.

**2. artikulua.**– Lanbide Sanitarioen Etengabeko Prestakuntzako Euskal Kontseiluaren egitura.

Kontseilua Osasun Plangintza eta Antolamenduko Sailburuordetzari atxikiko zaio, eta honako organoak izango ditu:

- a) Osokoa.
- b) Batzorde Iraunkorra.
- c) Ebaluazio Batzordea.

**3. artikulua.**– Lanbide Sanitarioen Etengabeko Prestakuntzako Euskal Kontseiluaren Osokoaren osaera.

1.– Osasun sailburuak izendatuko ditu Kontseiluko kide titularrak eta ordezkoak, artikulua honetan xedatutakoaren arabera. Izendapenak bi urte iraungo du, eta gero berritu ahal izango da.

2.– Honako hauek izango dira Kontseiluaren Osokoko kideak:

– Lehendakaria:

– Osasun Sailaren Osasun Plangintza eta Antolamenduko sailburuordea.

– Bokalak:

– Osasun Sailaren Osasun Antolamenduko zuzendaria.

– Bokal bat, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Medikuen Elkargoez proposatuta.

– Bokal bat, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Farmazialarien Elkargoez proposatuta.

– Bokal bat, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Erizaintzako Elkargoez proposatuta.

– Bokal bat, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Odonto-Estomatologiako Elkargoez proposatuta.

– Bokal bat, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Albaitarien Elkargoez proposatuta.

– Bokal bat, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren Osasun Publikoko Zuzendaritzak proposatuta.

– Bost bokal, Osakidetza proposatuta, honela banatuta:

- bi atentzio espezializatukoak
- bat lehen mailako atentziokoa
- eta bi erakunde zentralakoak.

– Bokal bat, IVAP/Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak proposatuta.

- Bokal bat, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak proposatuta.
- Bokal bat, UPV/Euskal Herriko Unibertsitateak proposatuta.
- Itzal handiko hiru profesional sanitario, Osasun Sailaren Osasun Plangintza eta Antolamenduko sailburuordeak proposatuta.
- Bi teknikari, Osasun Sailaren Osasun Antolamenduko Zuzendaritzak proposatuta; horietako bat Kontseiluaren Osokoko idazkari izango da.

3.– Kontseiluaren Osokoak lehendakariorde bat izendatuko du bertako kideen artean eta barne-araudi bat onartu ahal izango du.

4.– Kontseiluaren Osokoan ordezkatura dauden lanbideez beste lanbide sanitarioei dagozkien programa edo jarduera berariazkoak aztertzen direnean, kasuan kasuko lanbidearen ordezkartza nagusia duen elkargo edo erakunde profesionaleko ordezkariak hartuko dute parte, hitzarekin eta botoarekin, lehendakariak gonbidatuta.

**4. artikulua.**– Lanbide Sanitarioen Etengabeko Prestakuntzako Euskal Kontseiluaren Batzorde Iraunkorraren osaera.

1.– Kontseiluaren Osokoak bertako kide batzuekin Batzorde Iraunkorra izendatuko du, honakookin alegia:

- Lehendakaria: Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko zuzendaria.
- Bederatzi bokal:

- Medikuen Elkargoek proposatutakoa.
- Farmazialarien Elkargoek proposatutakoa.
- Erizaintzako Elkargoek proposatutakoa.
- Bi, Osakidetzako ordezkarien aldetik.
- IVAP/Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak proposatutakoa.
- UPV/Euskal Herriko Unibertsitateak proposatutakoa.

– Osasun Sailaren Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko Zuzendaritzak proposatutako biak. Horietako bat, Kontseiluaren Osokoko idazkari izendatzen dena, Batzorde Iraunkorreko idazkari ere izango da.

2.– Kontseiluaren Batzorde Iraunkorrek lehendakariorde bat izendatuko du bertako kideen artean eta barne-araudi bat onartu ahal izango du.

**5. artikulua.**– Ebaluazio Batzordearen osaera.

1.– Batzorde Iraunkorrek izendatuko ditu Ebaluazio Batzordeko kideak, honakoak alegia:

- Lehendakaria: Kontseiluaren Osokoko kide bat izango da.
- Lau bokal: hiru, etengabeko prestakuntzaren ebaluazioan adituak diren pertsonen artean aukeratuak –Osokoko kideak izan zein ez izan–, eta bestea, Kontseiluaren Osokoko idazkaria, zeina Ebaluazio Batzordeko idazkari ere izango den.

2.– Ebaluazio Batzordeak kanpoko ebaluatzaileen laguntza jaso ahal du bere zereginetan. Ebaluatzaile horiek alorrean alorreko adituen artean aukeratu dira. Eta ezin izango dira Kontseiluko kideak izan.

IDAZKARITZA TEKNIKOAREN IZENA	HELBIDE FISIKOA	TELEFONOA	SORTZEKO LEGERIA
<a href="#">ANDALUZIAko Lanbide Sanitarioen Etengabeko Prestakuntzako Batzordearen Idazkaritza Teknikoa</a>	Consejería de Salud. Dirección General de Investigación y Gestión del Conocimiento. Avenida de la Innovación s/n 41071 SEVILLA	955006601	203/2003 DEKRETUA, uztailaren 8koa, lanbide sanitarioen etengabeko prestakuntzako jarduerak egiaztatze prozedura arautzen duena. <a href="http://juntadeandalucia.es/boja/2003/142/6">http://juntadeandalucia.es/boja/2003/142/6</a>
<a href="#">ARAGOIko Lanbide Sanitarioen Etengabeko Prestakuntzako Batzordearen Idazkaritza Teknikoa</a>	Servicio de Estrategias y Formación Dirección General de Asistencia Sanitaria Departamento de Sanidad Gobierno de Aragón Plaza de la Convivencia 1, 2ª planta 50017 Zaragoza	976 71 35 60 976 71 68 32	<a href="#">310/2002 Dekretua, urriaren 8koa, Aragoiko Gobernuarena, Aragoiko Autonomia Erkidegoko Lanbide Sanitarioen Etengabeko Prestakuntzako Batzordea sortu eta egituratzen duena (2002/10/28ko BOA, 128. zk.)</a> <a href="#">2006ko maiatzaren 24ko Agindua, Osasun eta Kontsumo Sailarena, Aragoiko Autonomia Erkidegoko Lanbide Sanitarioen Etengabeko Prestakuntzako jarduerak egiaztatze prozedura arautzen duena</a>
<a href="#">ASTURIASko Lanbide Sanitarioen Etengabeko Prestakuntzako Batzordea</a>	Consejería de Sanidad C/ Ciriaco Miguel Vigil nº 9 33005 Oviedo	985108326	6/2011 DEKRETUA, otsailaren 23koa, Asturiasko Printzerriko Lanbide Sanitarioen Etengabeko Prestakuntzako Batzordea eta Lanbide Sanitarioen Etengabeko Prestakuntza Egiaztatze Batzordea sortzen dituena eta Batzorde horien antolamendua eta funtzionamendua arautzen dituena; 27/2012 DEKRETUA, martxoaren 15koa (1. aldaketa), 1/2014 DEKRETUA, urtarrilaren 22koa (2. aldaketa). 2014ko maiatzaren 21eko EBAZPENA, Osasun Kontseilaritzarena, Asturiasko Printzerriko lanbide sanitarioen etengabeko prestakuntzako jardueren egiaztapena izapidetzeko jarraibideak eta arauak ezartzen dituena.
<a href="#">KANARletako Lanbide Sanitarioen Etengabeko Prestakuntzako Batzordearen Idazkaritza Teknikoa Sanitarioak</a>	Plaza Dr. Juan Bosch Millares nº 1- 1ª Planta CP 35004 Las Palmas de Gran Canaria	928 30 81 64	17/2010 DEKRETUA, otsailaren 25ekoa, lanbide sanitarioen Etengabeko Prestakuntzako Kanarietako Batzordea sortzen duena eta Kanarietako Autonomia Erkidegoko lanbide sanitarioen etengabeko prestakuntza egiaztatze prozedura arautzen duena. 2012ko maiatzaren 7ko AGINDUA, Kanarietako Autonomia Erkidegoko lanbideen etengabeko prestakuntzako jarduerak egiaztatze prozedurari buruzko zenbait alderdi garatzen dituena.



«ETENGABEKO PRESTAKUNTZAKO JARDUEREN HORNITZAILEARENTZAKO GIDALIBURUA»

<a href="#">KANTABRIAKo Lanbide Sanitarioen Etengabeko Prestakuntzako Batzordea</a>	Consejería de Sanidad de Cantabria C/ Federico Vial nº 13, 39009 Santander	942 20 76 96 942 20 81 64	63/2007 DEKRETUA, maiatzaren 24koa, Kantabriako Autonomia Erkidegoko Lanbide Sanitarioen Etengabeko Prestakuntzako Batzordea sortu eta egituratzen duena (2007ko ekainaren 8ko BOC).
<a href="#">GAZTELA-MANTXAKo Lanbide Sanitarioen Etengabeko Prestakuntzako Batzordea</a>	Instituto Ciencias de la Salud. Avda. de Madrid s/n Talavera de la Reina. Toledo.45600	925839169 925839156	24/2008 Dekretua, 2008-02-12koa, Lanbide Sanitarioen Etengabeko Prestakuntzako Batzordeari buruzkoa. 2008ko otsailaren 15eko DOCMren 35. zenbakia.
<a href="#">GAZTELA ETA LEONGo Lanbide Sanitarioen Etengabeko Prestakuntzako Batzordea</a>	Dirección General de Salud Pública de la Consejería de Sanidad Paseo de Zorrilla, 1 47071 Valladolid	983 41 37 14	<a href="#">SAN/353/2005 Agindua</a> , otsailaren 16koa, Gaztela eta Leongo Autonomia Erkidegoko lanbide sanitarioen etengabeko prestakuntzako jarduerak egiaztatzeko prozedura arautzen duena <a href="#">SAN/691/2007 Agindua</a> , apirilaren 4koa, Gaztela eta Leongo Autonomia Erkidegoko Lanbide Sanitarioen Etengabeko Prestakuntzako jarduerak egiaztatzeko prozedura arautzen duen otsailaren 16ko SAN/353/2005 AGINDUA aldatzen duena. <a href="#">84/2002 Dekretua</a> , ekainaren 27koa, Gaztela eta Leongo Autonomia Erkidegoko lanbide sanitarioen etengabeko prestakuntzako batzordea sortzen duena.
<a href="#">Lanbide Sanitarioen Etengabeko Prestakuntzako KATALUNIAko Kontseilua</a>	<u>Lanbide sanitarioetarako:</u>  Consejo Catalán de Formación Continuada de las Profesiones Sanitarias  Roc Boronat 8195, 1. solairua – 08005 Bartzelona	93 551 38 18 (09:00etatik 12:00etara)	407/2006 DEKRETUA, urriaren 24koa, Lanbide Sanitarioen Etengabeko Prestakuntzako Kataluniako Kontseilua eta etengabeko prestakuntzako Kontseilu Teknikoak sortzen dituena  23/2009 DEKRETUA, otsailaren 17koa, Lanbide Sanitarioen Etengabeko Prestakuntzako Kataluniako Kontseilua eta etengabeko prestakuntzako Kontseilu Teknikoak sortzen dituen urriaren 24ko 407/2006 Dekretua aldatzen duena
	<u>Medikuentzat:</u> Servei d' Acreditació del Consell de Col·legis de Metges de Catalunya Passeig de la Bonanova, 47, planta -1, 08017 Bartzelona	93 567 87 97	SLT/8/2013 EBAZPENA, urtarrilaren 2koa, 2013ko urtarrilaren 1eko Hitzarmenari publikotasuna ematen diona, zeinaren bitartez, osasunaren arloan eskumena duen Generalitateko sailak medikuen etengabeko prestakuntza egiaztatzeari buruz dituen berezko funtzio publikoak Kataluniako Medikuen Elkargoen Kontseiluaren esku uzten baitira
	<u>Erizaintzat:</u>	93 551 38 18	2015eko azaroaren 6ko HITZARMENA, zeinaren bitartez, Kataluniako Generalitatean osasunaren arloan eskumena duen Kontseilaritzak erizainen



«ETENGABEKO PRESTAKUNTZAKO JARDUEREN HORNITZAILEARENTZAKO GIDALIBURUA»

	Consejo Catalán de Formación Continuada de las Profesionales Sanitarias Roc Boronat, 8195, 1a planta 08005 Barcelona	(09:00etatik 12:00etara)	etengabeko prestakuntza egiaztatzeari buruz dituen berezko funtzio publikoak Kataluniako Erizainen Elkargoen Kontseiluaren esku uzten baitira
<a href="#">EXTREMADURAKo lanbide sanitarioen etengabeko prestakuntzako batzordearen idazkaritza teknikoa.</a>	SECRETARÍA TÉCNICA COMISIÓN DE FORMACIÓN CONTINUADA DE LAS PROFESIONES SANITARIAS DE EXTREMADURA C/ Jerusalén, n.º 2 06003 Badajoz	924 014750	<a href="#">2008ko urtarrilaren 22ko Agindua, Extremadurako Lanbide Sanitarioen Etengabeko Prestakuntzako Batzordearen osaera eta funtzionamendua arautzen dituen, Batzorde hori organo egiaztatzaile gisa ezarriz (2008-02-08ko DOE, 27. zk.).</a>
<a href="#">GALIZIAko Lanbide Sanitarioen Etengabeko Prestakuntza Egiaztatzen duen Sistemaren Idazkaritza Teknikoa</a>	Consellería de Sanidade. Edificio Administrativo San Lázaro s/n. 15703 Santiago de Compostela	881.54.18.19 881.54.28.87	Urtarrilaren 7ko 8/2000 Dekretua, Galiziako Autonomia Erkidegoko profesional sanitarioen etengabeko prestakuntza egiaztatze sistemaren antolamendua arautzen duena. (2000/01/26ko DOG)
<a href="#">BALEAR UHARTEetako etengabeko prestakuntzako Batzordearen Idazkaritza Teknikoa</a>	Consejería de Sanidad Dirección general de acreditación, docencia e investigación en salud C/ Jesús Nº 38ª 07010 Palma de Mallorca	971177383 (luzapena: 69628 / 67468 / 67505)	
<a href="#">ERRIOXAKo Lanbide Sanitarioen Etengabeko Prestakuntzako Batzordea</a>	Consejería de Salud Dirección de Recursos Humanos - Servicio de Formación del Personal del Sistema Sanitario	941291998 941291323	Martxoaren 3ko 2/2010 Agindua, Osasun Kontseilaritzarena, Errioxako Lanbide Sanitarioen Etengabeko Prestakuntzako Batzordearen osaera eta funtzionamendua ez ezik egiaztapen-prozedura ere arautzen duena. (Ikus Araudia apartatua)
<a href="#">MADRILgo Erkidegoko Lanbide Sanitarioen Etengabeko Prestakuntzako Batzordearen Idazkaritza Teknikoa.</a>	C/ Aduana 29. 3ª Planta. Madrid 28013	91 426 58 93 91 426 57 88 91 426 56 93	65/2000 Dekretua, Madrilgo Erkidegoko Osasun Kontseilaritzarena.





«ETENGABEKO PRESTAKUNTZAKO JARDUEREN HORNITZAILEARENTZAKO GIDALIBURUA»

<a href="#">MURTZIAko Eskualdeko Etengabeko Prestakuntzako Batzordearen Idazkaritza Teknikoa</a>	Consejería de salud Dirección General Planificación, Investigación, farmacia y Atención Ciudadano Calle Pinares, 6. 30001, Murtzia	968 362 000	Urriaren 27ko 223/2006 Dekretua, lanbide sanitarioen etengabeko prestakuntza egiaztatzeko sistema aplikatzeko arauak ematen dituen.
<a href="#">NAFARROAko Etengabeko Prestakuntzako Batzordea</a>	Irakaskuntzaren Pabiloia (Nafarroako Ospitale Guneko esparrua), Irunlarrea kalea 3. 31008 Iruña	848 422 810	368/1998 FORU-DEKRETUA, abenduaren 28koa, Nafarroako Foru Komunitateko lanbide sanitarioen Etengabeko Prestakuntzako Batzordea sortzen duena  Abenduaren 20ko 616/1999 FORU-DEKRETUA, Nafarroako Foru Komunitateko Lanbide Sanitarioen Etengabeko Prestakuntzako Batzordearen osaera aldatzen duena.
<a href="#">EUSKADIko Lanbide Sanitarioen Etengabeko Prestakuntzako Euskal Kontseilua</a>	Osasun Saila Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko Zuzendaritza Irakaskuntza eta Lanbide Garapeneko Zerbitzua Donostia kalea 1 01010 Vitoria-Gasteiz	945 01 92 41  945 01 92 42	<a href="#">Abuztuaren 31ko 319/1999 DEKRETUA, Lanbide Sanitarioen Etengabeko Prestakuntzako Euskal Kontseilua sortzen duena eta prestakuntza mota hori kreditatzeko sistema bat arautzen duena. 1999/11/24ko EHAA, 184. zenbakia AGINDUA, 2003ko abenduaren 15ekoa, Osasuneko sailburuarena; honen bitartez, Euskal Autonomia Erkidegoko osasun-arloko lanbideetako langileen etengabeko prestakuntza-jardunak egiaztatzeko prozedura ezarri nahi da 2004/01/28ko EHAA, 18. zenbakia</a>
<a href="#">VALENTZIAko Erkidegoko Lanbide Sanitarioen Etengabeko Prestakuntzako Batzordearen idazkaritza tekniko</a>	CALLE JUAN DE GARAY Nº 21 46017 - VALENCIA	23 963 131 600	<a href="#">204/2014 Dekretua. (DOCV, 7415. zenbakia, 2014ko abenduaren 2koa)</a>

## 5. EGIAPTAPEN-PROZESUA

Egiaptatzeko eskaera erakunde hornitzailearen egoitza nagusia kokatuta dagoen Autonomia Erkidegoko Etengabeko Prestakuntzako Batzordean aurkeztu beharko da.

Irakaskuntza-jarduera baten eskaera ezin izango da bi autonomia-erkidegotan edo gehiagotan aldi berean aurkeztu.

Autonomia-erkidego batean egiaztatuta dagoen jarduera baten kasuan, arrazoi justifikatuak direla medio (hornitzailea egoitzaz aldatu delako, adibidez), jarduera horren egiaztapena beste autonomia-erkidego batean eskatu behar bada, inguruabar horren berri eman beharko da nahitaez eskaeran, eta dagokion dokumentazioa aurkeztu.

### 5.1. ESKAERA EGITEKO DOKUMENTU OFIZIALAK.


Eskaera egiteko eredu normalizatu desberdinak daude, jarduera presentziala, urrunekoa edo mistoa den kontuan hartuta.

Ezinbestekoa da egiaztapen-eskaera autonomia-erkidego bakoitzak ezarritako eredu normalizatuan egitea. Eredu hori, normalean, web-orrian egoten da (Kontsultatu Idazkaritza Teknikoen taula). Eskaera guztiei eranskin bat gehituko zaie, non jardueraren independentzia-irizpideei buruzko aitopena egingo den eta interes-gatazkarik ote dagoen adieraziko den.

Eskabideak elektronikoki bakarrik aurkeztu eta kudeatuko dira, horretarako prestatutako online aplikazioaren bidez.

Egiaztapena lehen aldiz eskatzen duten entitate hornitzaileek entitatearen eta haren arduradunen datuak sartu beharko dituzte eskabidean, eta entitate hornitzaileen erregistroan alta emateko eskatu beharko dute.

## 5.2. EGIAZTAPEN-PROZESUAREN MAPA.



## 5.3. EGIAZTAPEN-PROZESUAREN DESKRIBAPENA.

Egiaztapenaren hornitzaileak egiaztapen-eskaeraren dokumentazioa Idazkaritza Teknikora bidaliz hasten da prozesua.

**Egiaztapen-eskabidea eta harekin batera doazen dokumentuak jarduera hasi baino gutxienez hilabete lehenago aurkeztu behar dira.**

Epe hori betetzen ez bada, eskaera ez da izapidetzeko onartuko. Egiaztapen-eskaera orok irakaskuntza-jardueraren hasiera-egunaren berri eman beharko du. Benetako programazio zehatzik ez duten prestakuntza-proiektuak ez dira egiaztatzen onartuko.

Irakaskuntza-jarduera bakoitzeko eskaera bat egin behar da. Hainbat edizioen egiaztapena eskatu ahal izango da dokumentu berean, baldin eta edizioak egingo diren datak, ordutegiak, eta/edo lekua soilik aldatzen badira eta ezagutzen badira; nolahi ere, edizio bakoitzaren datu horiek guztiak eskaeraren dagozkion ataletan adierazi beharko dira.

Jarduera beraren beste edizio batzuk ondoren eskatzen badira, beste eskaera-dokumentu bat izapidetu beharko da.

Euskal Autonomia Erkidegoan, edizio horiek jarduera nagusiari gehituko zaizkio, betiere urte natural berean egin behar badira. Beraz, ez da beharrezkoa izango beste eskaera bat aurkeztea.

Idazkaritza Teknikoak egiaztatuko du denborari eta moduari dagokionez eskaera bat datorrela argitaratutako baldintzekin. Forma-akatsak badaude, hornitzaileari eskatuko zaio 10 egun balioduneko epean konpon ditzala akats horiek. Emandako epean konpontzen ez baditu, edo, konponketa ez bada ezarritako irizpideetara egokitzen, ulertuko da hornitzaileak atzera egin duela bere eskaeran eta espedientea artxibatu egingo da.

Eskaera eskakizunetara egokitzen bada, Idazkaritza Teknikoak ebaluatzaile independenteei bidaliko die dokumentazio osoa. Eskaerak Osasun Sistema Nazionalaren Lanbide Sanitarioen Etengabeko Prestakuntzako Batzordeak ezarritako gutxieneko irizpideak oinarritzat hartuta ebaluatuko dira.

Ebaluatzaileek eskaera modu independentean kalifikatuko dute: puntuazio bat emango dute Osasun Sistema Nazionalaren Lanbide Sanitarioen Etengabeko Prestakuntzako Batzordeak onartutako irizpide kualitatiboen arabera eta ebaluazio hori autonomia-erkidegoko Idazkaritza Teknikora edo organo egiaztatzaileari bidaliko dute. Puntuazio horiek Osagai Kualitatiboa izenekoa kalkulatzeko oinarri dira.

Osagai Kualitatiboa 1en parekoa edo 1etik gorakoa bada (0tik 2,8ra bitarteko eskala), irakaskuntza-jarduera egiaztatuko da. Ikus dokumentu honetako I. Eranskina.

Idazkaritza Teknikoak hornitzaile bakoitzari helaraziko dio hornitzaileak egindako eskaeraren emaitzaren komunikazioa eta administrazio publikoen administrazio-prozedurak arautzen dituen legean ezarritakoa beteko du.

Egiaztapena emateko, hornitzaileak indarrean dagoen legeria eta egiaztapen-sistema honek eskatzen dituen baldintza guztiak –eskuliburu honetan bilduta eta hedatuta daudenak barne– bete beharko ditu, eta, era berean, Idazkaritza Tekniko bakoitzak beharrezkotzat hartzen duen informazio guztia aurkeztu beharko du.

Hornitzaileak egiten ez den edozein jardueraren baliogabetzearen eta aurreikusitako daten aldaketaren berri eman beharko du eskaeran adierazitako hasiera-data baino lehen.

Batzordeak eskatuz gero edo Idazkaritza Teknikoaren ekimenez, egiaztatutako jarduera baten auditoria egin ahal izango da. Kasu horretan, hornitzaileari jakinaraziko zaio dagokion irakaskuntza-jarduera auditoria-prozesuaren mende dagoela; horrek esan nahi du eskatzen zaion informazio guztia aurkeztu beharko duela Idazkaritza Teknikoaren aurrean.

Euskal Autonomia Erkidegoan, jarduerak bukatu ondoren, egiaztatutako jarduera bakoitzeko dagokion dokumentazio guztia aurkeztu beharko da.

Jarduera bukatzen denetik hasita 15 eguneko epean honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

- Gauzatze-ziurtagiria
- Bertaratu direnen zerrenda, erabilitako asistentzia-kontrola erantsita (sinadura-orriak edo antzekoa)
- Egindako inkestak eta azterketen emaitza, egonez gero
- Kredituetarako eskubidea duten parte-hartzaileei emango zaien diploma- edo ziurtagiri-eredua.
- Gainera, merkataritza-babesa izanez gero, bertaratuei eman zaien materiala aurkeztu beharko da.

## 5.4. ESKAERAK BETETZEA.

Inprimakiak bete aurretik, garrantzitsua da kontuan hartzea dokumentu hauen edukia oso garrantzitsua izango dela eskaera ebaluatzeko garaian.

Inprimaki horien bitartez, ebaluatzaileak ahalik eta modurik argienean ulertu behar du jarduera egiaztatzeko proposatzen den diseinua. Informazioa urriak, anbiguoak edo nahasgarriak ideia negatibora eraman dezake eta eskaera zigortu egingo da kalifikazioan. Deskribapen argiak eta espezifikak, ordea, orokorrean adierazten du hornitzaileak hausnartu eta zaindu duela irakaskuntza-jardueraren diseinua.

Hornitzaileak eskaera betetzeari dagokionez, bi axioma eduki behar dira argi:

**IDATZITA EZ DAGOENA  
EZ DA EBALUATZEN.**

**IDATZITA DAGOEN GUZTIA  
KONPROMISO BAT DA**

Egiaztapena eskatzen duten prestakuntzako jarduera guztiek gogobetetasun-inkesta bat eduki beharko dute. Inkesta horrek ebaluazio-atalean ezarritako baldintzak bete beharko ditu.

## 5.5. JARDUERAREN ERAKUNDE HORNITZAILEAREN DATUAK

Honako hau hartzen da **ERAKUNDE HORNITZAILETZAT**: jardueraren egiaztapena eskatzen duen, prestakuntza-jarduera garatzen duen, egiaztapen-ziurtagiriak egiten dituen eta, ondorio guztietarako, jarduera horren erantzule egiten den erakundea edo pertsona fisikoa.

Erakunde publikoetan eta zuzenbide publikoko korporazioetan izan ezik, egiaztapena lehenengo aldiz eskatzen duten etengabeko prestakuntzako hornitzaileek honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dituzte eskaerarekin batera:

Erakundearen eratze-eskiritura publikoen kopia edo hornitzailearen legezkotasuna, identitatea eta haren egoitza ofizialaren kokapena egiaztatzen duten bestelako dokumentu baliokideak.

Euskal Autonomia Erkidegoan honako informazio hau aurkeztu beharko da:

- Erakundearen estatutuen kopia, zeinetan prestakuntza erakundearen helburuetako bat dela azaldu beharko den espezifikoki.
- Dena delako erakunde motari dagokion Erregistroan inskribatuta dagoela egiaztatzen duen ziurtagiriaren kopia.
- IFKren kopia
- Azken 5 urtetan egindako prestakuntza-jardueren zerrenda
- Posta-helbidea

Hornitzailea langile autonomoa bada, lanbide-jarduerak betetzeko legez eraturako dagoela egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko du.

Hornitzailearen irakaskuntza-zerbitzuak identifikatzen dituzten beste merkataritza-izen batzuk erabiltzen badira, eta egiaztatu nahi den irakaskuntza-jarduerarekin lotzen badira, zerbitzu horien jabetza eta erregistroa dokumentatu beharko dira.

Ez dira onartuko hornitzaile gisa pertsona fisikoak dituzten eskaerak, langile autonomoen kasuan izan ezik.

Osasun Sistema Nazionalaren Lanbide Sanitarioen Etengabeko Prestakuntzako Batzordearen akordioaren bidez, ez dira onartuko medikamentuak, produktu sanitarioak edo haiekin lotutakoak egiten edo banatzen dituzten erakundeek aurkeztutako eskaerak.

- ✓ **IFZ/IFK/AIZ**: Erakundearen identifikatzaile fiskala edo langile autonomoaren IFZ/AIZ erregistratu behar da.
- ✓ **ERAKUNDEAREN IZENA**: Erakundearen izen ofiziala, hau da, eratzeko notario-dokumentuetan, edo, Administrazioaren kasuan, izendapen ofizialetan azaltzen dena idatzi behar da.

- ✓ **HELBIDEA:** Adierazi helbidea ahalik eta modurik osatuenean, beharrezkoak diren aipamen guztiak eginez (bide publiko mota, eskailera, atea, bulego-zenbakia, etab.). Helbideak erakundearen egoitza sozialarekin bat etorri behar du, erakundearen estatutuetan, edo, hala badagokio, ekonomia-jardueren gaineko zergan emandako altan azaltzen den bezala. Hornitzaileak edozein helbide-aldaketaren berri eman beharko du.

Hornitzaileak honako irizpide hauetako bat bete beharko du nahitaez:

- a) Bere egoitza eskaera egiten den erkidegoan edukitzea.
  - b) Bere egoitza Europar Batasunetik kanpo edukitzea, baina bere irakaskuntza-jarduerak dagokion erkidegoan edo erkidegotik egin nahi izatea. Autonomia-erkidegoak Espainiako erakunde pribatu edo publiko baten abala, babeska edo laguntza eskatu ahal izango du. Erakunde horrek ordezkari eta bermatzaile gisa jardungo luke.
  - c) Biltzarra edo jardunaldia batzorde antolatzailearen egoitza kokatuta dagoen edo batzordea egiten den lekuan egitea.
- ✓ **UDALERRIA:** Adierazi udalerraren izen ofiziala.
  - ✓ **PROBINTZIA:** Adierazi probintziaren edo autonomia-erkidegoaren (probintzia bakarreko erkidegoa bada) izen ofiziala.
  - ✓ **POSTA-KODEA:** Helbideari ofizialki dagokiona. Espainiaren kasuan, bost digitu izan behar ditu.
  - ✓ **ERAKUNDEAREN ARDURADUNA:** Legezko arduradunaren izena

## 5.6. PRESTAKUNTZA-JARDUERAREN DATUAK

- ✓ **JARDUERAREN IZENA:** Hitzez hitz aipatu jarduera izendatzeko izenburua. Ez erabili laburdurarik edo sinplifikaziorik.
- a) Izen hori eta jardueraren publizitatean eta jarduerara bertaratuko direnei emango zaizkien egiaztatzeko ziurtagirietan edo diplometan azalduko den izena berdin-berdinak izango dira.
  - b) Ahal den neurrian, proposatu izenburu labur bat (guztira ez ditu 120 karaktere baino gehiago izango); komenigarria da jardueraren edukiarekin lotura izatea eta edukia islatzea, eta izenburuan ez sartu jardueraren modalitatea (ikastaroa, mintegia, etab.).

*Ez da jardueraren edukiak eta helburuak zein diren ondorioztatzea ahalbidetzen ez duen izenburu mugagaberik edo zehaztugaberik jarriko; esate baterako: «**Diabetesa**», «**Farmakologia**», «**Giltzadura-lesioak**».*

- c) Izenburuak bat etorri behar du jardueraren xede den kolektiboarekin, eta kolektiboaren izena sartu behar da beharrezkoa bada eta beste profesional batzuen prestakuntzarekin nahasketak sor badaitezke.
- d) Estatuko edo Unibertsitateko titulu ofizialekiko nahasketa eragin dezaketen hitzak ez dira erabiliko (espezialista, masterra, diploma, aditua, teknikaria, doktoregoa, lizentziatura, graduondoa, trebakuntza, etab.).
- e) «**Mintegia**» edo «**jardunaldia**» hitzak izenburuan azalduko dira ekitaldi mota horretan.
- f) **Urrutiko prestakuntzaren** kasu berezian, kontuz ibili beharko da izenburua zuzeneko prestakuntzaren berezko izenburuekin (zeinetan abilezia psikomotoreen ikaskuntza garrantzitsua den) ez nahasteko.

*Esate baterako, mota honetako tituluak ez dira onartuko: «Oinarrizko bizi-euskarria», «Bendaje neuromuskularra», «...(r)en manipulazio teknikoak», «Zaurien jostura», etab.*

*Adibide horietan, onartzekoak izango diren izenburuek argi utzi behar dute parte-hartzaileei ez zaiela abilezia psikomotoreen gaineko prestakuntza emango.*

- ✓ **HARREMANETARAKO PERTSONAREN DATUAK:** Egiaztapen-eskaera kudeatzeaz arduratuko den pertsonaren datuak izango dira. Nahiz eta pertsona hori, askotan, irakasleen zuzendaria, prestakuntza-arduraduna edo erakundearen edo irakaskuntza-jardueraren beste edozein arduradun izango den, ez du derrigorrez hala izan behar beti.

Idazkaritza Teknikoak egiten dituen jakinarazpenak eta informazio-eskaerak, administratiboki gutxienez, kudeatzeko ahalmena duen pertsona bat izan behar du. Espedientea kudeatzeko solaskide ofiziala izango da.

- ✓ **Kargua:** Erakundearen betetzen den erantzukizuneko postua da. Erantzukizun organikoko kargurik ez badu, besterik adierazi ezean, «egiaztapen-eskaera kudeatzeko administrazio-erantzulea» adieraziko da. Informazio hori jakinarazpena egiteko dokumentu ofizialak emateko garaian erabiliko da espedientea kudeatu eta ebatzi bitartean.
- ✓ **Helbide elektronikoa:** Egiaztapen-eskaeraren espedientea kudeatzeari buruz hornitzailearekin harremanetan jartzeko erabiliko den helbidea da. Garrantzitsua da hori kontuan hartzea; izan ere, erakundeek, askotan, zerbitzu-enpresei (bidaia-agentziei, adibidez) agintzen diete egiaztatu nahi dituzten ekitaldiak antolatzea. Kasu horietan, komenigarria da, zerbitzu-enpresa arduratzen bada egiaztapena kudeatzeaz, harremanetarako datuak prozesuaz benetan arduratzen ari den enpresako pertsonarenak izatea, sortzen diren gorabeherak konpontzeko kudeaketa egokiak egin ahal izateko eta gorabehera horiek, derrigorrez, bide telematikoa erabiliz jakinarazi beharrik ez izateko.

- ✓ **PRESTAKUNTZA-MODALITATEA**

- ✓ **PRESENTZIALA**



- ✓ **URRUTIKOA.** Urrutiko jardueren sailkapena: Urrutiko prestakuntza-jarduerak bi kategoria handitan bil ditzakegu. Kategoría horiek prestakuntza-modalitatearen bilakaera-etapekin bat etorriko dira:
  - ✓ I. mota. Edukiak emateko edo kudeatzeko. Material didaktiko digitalizatuen banaketan oinarritzen da batez ere (Liburuak, aldizkariak, CDak, DVDak, material deskargagarriak biltzen dituzten webguneak: bideoak, testuak,...) Honako hauek ere sartzen dira: Lineako Ikastaro Ireki eta Masiboak izenekoak –Massive Open Online Course (MOOC)–, zeinetan ikaskuntzak material didaktikoetan jartzen duen arreta, normalean bideoetan eta irakurketetan. Ikastaro mota horrek (autoprestakuntzakoak) ahalbidetzen du milaka ikaslek sarbidea izatea, ez dago ikasleen arteko elkarrekintzarik eta ebaluazio-berrikuspena automatikoki egiten da edo bikoteka.
  - ✓ II. mota. Komunikaziokoa. Plataforma digitalak erabiltzen dituzte. Ikaskuntzan sartutako prozesuak errepikatzen dituzte: ikasleek ebatzi behar dituzten jarduerak sartzen dituzte eta funtsezko elementu baten, hots, komunikazioaren premia aitortzen dute. Abiapuntutzat hartzen den ideia da ikaskuntzak eraginkorra izateko beharrezkoa dela elkarriketak izatea, eztabaidatzea eta gogoeta egitea, eta ekintza horiek prestakuntza-prozesuaren esperientziaren erdigune gisa ezartzen ditu, prozesu hori ez baita bakarkako prozesua, prozesu soziala baizik.
- ✓ **MISTOA:** Batzuetan zalantzak sor daitezke ikasgelatik kanpoko jarduerak aurreikusten diren presentziako prestakuntzaren eta jarduera mistoen artean. Jarduera mistotzat hartzeko, presentziako zatiak eta presentziala ez den zatiak beren izate propioa eduki behar dute, hau da, beren helburuak, jarduerak, irakasleak, eta abar. Ez da beharrezkoa presentziala ez den zatiak tutoretza edukitzea.

*Irakaskuntza-jarduera bati modalitate mistoko izaera emateko, ez da nahikoa irakaskuntza-materialak irakurtzea eta ikastea, ariketaren bat egitea edo informazioa bilatzea soilik.*

- ✓ **JARDUERAREN FORMATUA:** Orientagarri gisa, etengabeko prestakuntzako hornitzaileek gehien erabili dituzten irakaskuntza-jardueren formatu desberdinen glosario hau eskaintzen dugu.
- ✓ **BILTZARRA:** Ikasgairen batean adituak diren pertsonak elkarrekin harremanetan jartzeko eta trukeak egiteko bilera; bertan informazioa ematen da, berrikuntzen eta azken aurkikuntzen berri ematen da, konponbideak bilatzen dira eta erabakiak hartu ohi dira. Ezaugarri eta/edo baldintza nagusiak:
  - Metodologia desberdineko eta askotariko edukiko jarduerak ditu.
  - Denborari dagokionez, aldi berean eta noizean behin egiten diren eta laburrak diren jarduerak.
  - Komunikazio askeak eta posterrak eduki ditzakete
  - Lanbide bateko edo gehiagoko parte-hartzaile kopuru handia
  - Batzorde zientifiko bat eta batzorde antolatzaile bat izan behar ditu
  - Ohorezko Batzordea eduki dezakete edo ez

- ✓ **IKASTAROA:** Ikasgai espezifiko eta jakin batean ezagutzak hartzera eta konpetentzia hobetzera bideratutako prestakuntza-jarduera. Irakasle batek edo batzuek hartzen dute parte denboran egituratutako eta zehaztutako hainbat saiotan. Ezaugarri eta/edo baldintza nagusiak:
  - Ekarpen teorikoa da gehiena
  - Komenigarria da eduki praktikoak aurkeztea ezagutzak integratzeko
  - Koordinatzaile bat dago, eta horrek hainbat hizlariren arteko harremana errazten du
  - Ezagutzen abiapuntua eta ikasten ari direnen abiapuntua berdinak izango dira
  - Gomendatzen den gehieneko ikasleen kopurua: 30 inguru.
  
- ✓ **PRESENTZIAZKO** ikastaroetan, parte-hartzaileek irakaskuntzako espazio fisiko bera edo lotura sinkronikoa partekatzen dute.
- ✓ **PRESENTZIALAK EZ DIREN** ikastaroetan parte-hartzaileek ez dute espazio fisiko hori partekatzen, ordutegiari eta lekuari dagokionez malgutasuna dago, eta batez ere tutoreen eta egindako irakaskuntza-materialen laguntza dute erdietsi nahi diren helburuak lortzeko. Parte-hartzaile kopuru handia izan dezakete, baina talde txikiagotan antola daitezke (ikasgela birtualak) elkarren artean harreman indartsua eta elkarlanekoa eduki ahal izateko. Tutoretza-sistema bat eduki behar dute.
- ✓ Ikastaro **MISTOAK** zati bat presentziala eta beste bat presentziala ez dena dutenak dira. Presentziazko eta ez-presentziazko jardueretarako deskribatutako zehaztapenak bete beharko dituzte.
  
- ✓ **PRESTAKUNTZA-EGONALDIA:** Profesionalek beren ohiko lantokia ez den beste zentro batzuetan denbora osoko edo partzialeko egonaldia egitea, esperientziak ezagutzeko eta konpetentziak hartzeko oso arlo zehatz batzuetan eta zentro horiek erreferente diren teknika espezifikoetan. Ezaugarri eta/edo baldintza nagusiak:
  - Parte-hartzaileak praktika kliniko edo kudeaketa sanitario jakin bateko Zerbitzuan edo Arloan sartu behar du
  - Parte-hartzaile kopurua txikia izatea: 1 edo 2 txanda bakoitzean
  - Iraupena eduki zehatzen eta lortu behar diren helburuen arabera izatea.
  - Egun bakoitzeko 6 orduetik aurrera ikaskuntza indartetzat hartuko da.
  
- ✓ **JARDUNALDIA:** Arlo jakin bati buruzko ezagutzak eguneratzeko erabiltzen den jarduera, txosten eta eztabaida-mahaiz osatutako egitura batekin. Ezaugarri eta/edo baldintza nagusiak:
  - Gai beraren barnean metodologia eta eduki desberdinak dituzten jarduerak
  - Noizean behingoa eta laburra denboran
  - Lanbide bateko edo gehiagoko parte-hartzaile kopuru handia
  - Aldi berean ez da jarduerarik egiten.
  
- ✓ **MAHAI-INGURUA:** Gai berari buruz ikuspegi dibergenteak edo kontraesankorrak dituzten adituen talde batek bere ideiak azaltzen ditu taldearen aurrean elkarren segidan eta moderatzaile batek koordinatuta. Ezaugarri eta/edo baldintza nagusiak:
  - Parte-hartzaileek gaia ezagutu behar dute eta trebeak izan behar dute beren iritzia azaltzeko eta defendatzeko argudio sendoak erabiliz
  - Ideiak azaltzen dituen pertsona bakoitzak minutu batzuetan hitz egingo du segidan.

- Moderatzaileak elkarren segidan emango die hitza mahai-ingurua osatzen duten pertsoneri, eta bukaeran, parte-hartzaile bakoitzaren ideia nagusien laburpena egingo du eta azaldu diren desberdintasun nabarmenak aipatuko ditu.
  - Moderatzaileak entzuleei eskatuko die galderak egitea.
- ✓ **MINTEGIA:** Jarduera horretan gai jakin bat lantzen da modu monografikoan eta sakonki, une jakin batean sortutako prestakuntza-premia jakin bati erantzuteko. Ezaugarri eta/edo baldintza nagusiak:
- Esperientzia eta ezagutza desberdinen trukea parte-hartzaileek kritika eginez, elkarrizketan arituz, eztabaidatuz eta gogoeta eginez.
  - Ezagutzak hartzera eta jarrerak aldatzera bideratuta dago
  - Kideek interes erkideak dituzte gaiari dagokionez eta antzeko prestakuntza-maila
  - Mintegia antolatzeko eta diseinatzeko, ezinbestekoa da alde aurretik prestatzea eta materialak ematea bertaratuek erabiltzeko; era berean, baldintzak ezarri behar dira mintegia behar bezala garatzeko.
  - Emaitzak edo ondorioak talde osoaren erantzukizuna dira
  - Egindako lana laburtzeko eta ebaluatzeko saio batekin amaitzen da
  - Ikasle kopuru gomendagarria: 5-12. Talde handiago bati bideratuta badago, komenigarria da talde txikiagotan banatzea
  - Iraupen laburrekoa, oro har. 2 ordutik 3 ordura bitartekoa
  - Egun batzuetan luza daiteke amaitu arte.
- ✓ **SAIO KLINIKOAK:** Aldizkako jarduera programatuak, zeinetan profesional multzo batek bere eguneroko jarduneko konpetentzia erkideen arloei buruzko iritziak, esperientziak eta informazio zientifikoa trukutzen dituen. Besteak beste, honako hauek sartzen dira:
- Saio klinikoak.
  - Kasuen serieak.
  - Dagoeneko konponduta dauden kasuen azalpena.
  - Kasuak konpontzea adituekin.
  - Proba osagarriak, farmakoei, deribazioei, egoerei eta abarri buruzko saioak.
  - Saio bibliografikoak.
  - Praktika klinikoko gidaliburuei buruzko saioak.
  - Zeharkako saioak (asistentzia-kalitatea, antolaketa-kalitatea, kalitate klinikoak, eta abar)
- ✓ **SINPOSIOA:** Espezialista eta adituen bilera, gai baten alderdi ezberdinak era osoan eta xehatuan azaldu eta garatzeko. Alderdi horiei ikuspegi ezberdinetatik heltzen zaie, elkarren segidako parte-hartze labur eta sintetiko bidez. Ezaugarri eta/edo baldintza nagusiak:
- Espezialistek 15-20 minutuko azalpenak egiten dituzte.
  - Koordinatzaile batek ideia nagusiak laburbiltzen ditu.
  - Entzuleek galderak eta zalantzak planteatzen dituzte, eta adituek argitu eta erantzuten dizkiete
  - Parte-hartzaile kopurua handia da
- ✓ **LANTEGIA:** Prestakuntza-jarduera, nagusiki praktikoa, helburu nagusizat ahaliziaz garatzea duena. Ezaugarri eta/edo baldintza nagusiak:
- Ikasleen partaidetzak aktiboa izan behar du
  - Ikasleen eta irakasleen arteko eta ikasleek elkarren arteko interakzio handia
  - Gomendatutako ikasleen kopurua: 6-8 irakasle bakoitzeko

- Iraupen laburrekoa. Ordu kopurua eduki zehatzen eta lortu behar diren helburuen arabera izatea.
- ✓ **LANTALDEA:** Modalitate horretan, bertako kideek praktika sanitarioari buruzko aurretiko prestakuntza-maila handia izan behar dute eta gogoeta-maila ere bai. Etengabeko autonomia eta jarduketak-kalitatea ditu ezaugarritzat, lantalde horrek egiten dituen proiektuak eta materialak beste sanitario batzuentzat erabilgarriak izateko. Ezaugarri eta/edo baldintza nagusiak:
  - Ezinbestekoa da lantaldea osatzen duten pertsonak alde aurretik prestakuntza izatea eta lana partekatzea
  - Lantoki berekoak edo beste lantoki batekoak eta lanbide berekoak edo beste lanbide batekoak izan daitezke
  - Koordinatzaile bat izango da zereginak antolatzeke nahiz banatzeko eta alderdi burokratikoak kontrolatzeko (sinadura-orriak, saio bakoitzaren gairerrenda, ebaluazio-txostenak, eta abar). Talde osoak elkarrekin egindako memoria aurkeztuko du
  - Ikasle kopuru gomendagarria: 4-12
  - Saioak 2 ordu ingurukoak izango dira
- ✓ Lanaren gaiak honako alderdi hauek azpimarratuko ditu:
  - Prozesu sanitarioak hobetzea
  - Protokoloak, gidaliburuak eta abar egitea, aztertzea eta esperimendatzea
  - Ingurune sanitarioan izaten diren gertakarietan oinarritutako ikerkuntza/berrikuntza
- ✓ **GAI-ARLOA:** Irakaskuntza-jardueraren baten helburuekin eta edukiarekin lotzen diren ezagutza-arloak. Aukera bat soilik markatu behar da.

*«Irakaskuntza» aukera markatu behar da jardueraren edukia irakaskuntza-jardueraren metodologietan, baliabideetan, teknikan, diseinuetan edo plangintzan oinarritzen denean, profesional sanitarioak alderdi horien inguruan prestatu nahi direnean, adibidez, tutoretza-metodoak, osasun-esparruari aplikatutako didaktika, prestatzaileen prestakuntza, eta abar.*

Edozein atal markatzeko garaian, bereziki «Bestelakoak» markatzerakoan, kontuan izan behar da honako hauek ez direla **EGIAZTATZEKO IKASGAIK**:

1. Bereziki osasun-arloan erabiltzen ez diren programa informatikoak.
2. Hizkuntzak, edozein maila.
3. Oro har, Estatuko Osasun Sistemak edo komunitate zientifikoak onartzen ez dituen ikasgaiak lantzen dituzten jarduerak.
4. Publizitate komertzialeko edukiak dituzten jarduerak.
5. Titulazio profesionala lortzeko beharrezkoa den oinarritzko prestakuntza –lanbidea betetzeko derrigorrezkoa dena eta, beraz, etengabeko prestakuntzat hartu ezin dena– osatzen duten edukiak dituzten jarduerak.
6. Legez nahitaezkoa den eta lanik egin gabe aldi bat eman ondoren, lanean hasi nahi duen edozein profesionalak egin behar duen prestakuntza.

7. Osasun-arloan aplikatzekoak diren ikasgaiak, baina osasunaren zientzietan berariazkoak ez direnak. Adibidez: Arkitektura sanitarioa
  8. Langilearen autozainketara bideratutako jarduerak
  9. Jardueraren xede diren profesionalen berezko eskumenak osatzen ez dituzten ikasgaiak
- ✓ **GEHIENEO IKASLE KOPURUA:** Irakaskuntza-jardueraren edizio bakoitzerako hornitzaileak aurreikusten duen partaideen gehieneko kopurua da.

Online prestakuntzan kontuan izan beharko da kopuru horrek prestakuntzak irauten duen bitartean eskuragarri dauden tutoreen kopuruarekiko proportzionala izan behar duela. Orientagarri gisa, 30-50 partaide izango dira tutore eta edizio bakoitzeko. Proportzio hori alda daiteke erabilitako metodologiaren eta tutorearen zeregin espezifikoaren arabera. Tutore bati hainbat jarduera esleitu bazaizkio eta jarduera horiek aldi berean eman behar badira, ratioa denboraldi berean tutorizatzen dituen guztizko ikasleen arabera ezartzen da.

Presentziazko prestakuntzan kopuru orientagarririk ez badago ere, formatuen heterogeneotasuna dela medio, irakasleen eta ikasleen arteko proportzioa, gertatzen den testuinguruaren arabera, kontuan hartuko da prestakuntzaren kalitatea balioesten denean.

- ✓ **IRAKASTORDUEN GUTXIENEO ETA GEHIENEO KOPURUA:** Prestakuntza-jarduerak gutxienez ordubate iraun beharko dute egiaztapen-eskaera onartzeko.

Euskal Autonomia Erkidegoan, modu isolatuan aurkezten direnean, gutxienez 2 ordukoak izango dira. Jarduerak programa baten barrukoak badira (saio klinikoak, biltzarrak edo antzekoak), egiaztatu egin ahal izango dira, baina gutxienez bi jardueratan parte hartu duten partaideei, eta horiei bakarrik emango ahal izango zaie egiaztapen-agiria.

Horrez gain:

- a) Jardueraren **egiazko orduak** soilik adierazi beharko dira.
- b) Zenbatekoan **ez dira sartuko** irakaskuntza-jarduerarik gabekoaldiak (inaugurazioak, bazkariak, gosariak, atsedenaldiak, eta abar)
- c) Biltzarren eta jardunaldien kasuan, ez dira sartuko ekitaldi jakin batzuei dagozkien orduak. Ekitaldi horiek honako hauek izan daitezke: **komunikazio-saioak, poster-saioak eta antolatzaileek nahiz batzorde zientifikoak bere gain hartutako programa osatzen ez duen edozein jarduera.**

*Aldi bereko ekintzak dituzten ekitaldi mota hauetan, egiaztatu nahi diren ekintzen guztizko orduak eta biltzarren parte hartu duen pertsonari egiaztatu lekiokkeen gehieneko ordu kopurua deklaratu beharko dira.*

Idazkaritza Teknikoak ofizios berrikusiko du atal hau, bereziki presentziala ez den prestakuntzaren eta prestakuntza mistoaren kasuan, eta gai horri buruz ebaluatzaileek emandako oharra hartuko ditu kontuan, kredituak kalkulatzeko erabiliko diren irakastorduek ezartzeko.

Dena den, Osasun Sistema Nazionalaren Lanbide Sanitarioen Etengabeko Prestakuntzako Batzordearen akordioaren bitartez, **gehienez ere 100 irakastordu** hartuko dira kontuan egiaztapenaren osagai kuantitatiboa kalkulatzeko, hau da, kredituak kalkulatzeko.

### **JARDUERA MISTOEN ETA URRUTIKO JARDUEREN** kasuan:

- **Presentziazko ordu kopurua:**
  - a. Irakaskuntza-jarduera mistoen kasuan soilik bete behar da.
  - b. Jardueraren egiazko orduak adierazi beharko dira. Atsedendiak ez dira sartzen.
  
- **Ikasle bakoitzaren urrutiko partaidetzaren guztizko ordu kopurua gutxi gorabehera:** Sartu ikasleak jarduera guztiak egiteko erabiliko dituen orduak, edukiak irakurtzea, entzutea eta ikustea, informazioa bilatzea, foroetan eta txatetan parte hartzea, egin behar dituen lanak eta ariketak, eta abar barne.

Jarduera mistotzat hartzeko eta presentziala ez den zatia balioesteko, honako baldintza hauek bete behar ditu:

- tutoreen presentzia
- irakaskuntza-materiala, ikasteko gidalibururarekin
- ebaluazio-proba, proposatutako helburuak lortu ote diren egiaztatzea ahalbidetzen duena.

Emandako materialaren presentziazko orduak + ikasketa-orduak kontabilizatuko dira. Norberaren lanorduak kontuan hartuko dira, baldin eta egindako tutoretzen eta landutako kasuen memoria aurkezten bada, denbora hori benetan erabili dela egiaztatu ahal izateko.

- a. Kredituak kalkulatzeko, ebaluatzaileek, edo hala badagokio, Batzordeak adierazitako orduak erabiliko dira.
  - b. Kredituak kalkulatzeko, urrutiko prestakuntzan ez dira parte-hartzaileak eskaintako bost dedikazio-ordu baino gehiago (gehienez) zenbatuko asteen (Osasun Sistema Nazionalaren Lanbide Sanitarioen Etengabeko Prestakuntzako Batzordearen akordioa).
- ✓ **LANBIDEAK:** Lanbide bat edo gehiago marka daitezke. Ez da komenigarria eskaintza multiprofesionala aukeratzea irakaskuntza-jardueraren edukiek eta helburuek osagai tekniko eta zientifiko handia dutenean, jarduera hori, oro har, gaitasun profesional espezifikoeekin lotzen baita. Hori horrela denean, seguruenik gertatuko da bertaratuek egin behar duten lana urria edo funtsezkoa izatea lanbide baterako, edo gehiegizkoa eta lortezina izatea beste baterako.

Eskaera multiprofesionala onargarria izan daiteke edukiek eta helburuek zeharkako kompetentziei erreferentzia egiten badiete, esate baterako komunikazio-abileziei, jarduketa-prozedura erkideei, araudiari, kalitateari, etikari, kudeaketari, bilaketa bibliografikorako teknikei eta baliabideei eta abarri.

Gerta daiteke irakaskuntza-jardueran lanbide ez-sanitarioak onartzea, eta arrazoizkoa izatea lanbide horiek prestakuntzan egotea, bereziki arestian aipatutako **zeharkako kompetentziei** buruzko ikasgaiak badira; kasu horietan, (arazo soziosanitarioen alorreko prestakuntza eta gizarte-langileei laguntzea, adibidez) gertaera hori dagokion eranskinen

aipatu behar da, bereziki hautaketa-irizpideak azaldu behar diren ataletan eta jardueraren egokitasunean.

*Profesional ez-sanitarioek bertaratze-agiriak jaso ahal izango dituzte, baina etengabeko prestakuntzako kredituak aitortzeko ziurtagiriak ez.*

*Irizpide hori bera aplika dakieke prestakuntza egiten ari diren profesional sanitarioei, esate baterako espezialistei, hots, barne-egoiliarrei.*

- ✓ **ESKAERA-EREDUA:** Hornitzaile batek lehenengo aldiz eskatzen badu egiaztapena, erakunde eskatzailea eratzeko notario-dokumentuen kopia aurkeztu beharko du. Bereziki egoitza sozialari, erakundearen izaerari, izenari, zuzendariei eta xede sozialari eragiten dion edozein aldaketa egiten bada geroago, aldaketa horren berri eman beharko zaio lehenbailehen Idazkaritza Teknikoari.

- **JARDUERA BERRIAK:** Egiaztapena lehenengo aldiz eskatzen den jarduerak dira.
- **LEHENDIK EGIAZTATU DIREN JARDUERAK,** baina edizio berrien egiaztapena eskatu da. Lehenengo edizioaren (jatorrizko edizioa) espediente-zenbakia aurkeztu beharko da, eta horrek berriz egiaztatzeko bide emango du.
  - a. Lehendik egiaztatutako jarduera baten edizio berri orotarako, jarduera horren egiaztapena eskatu beharko da formalki, betiere lehenago lortutako kredituak erabiltzen jarraitu nahi bada. Idazkaritza Teknikoak egiaztatuko du eskaera berriaren informazioa eta aurrekoa bat datozela, eta egokia bada, berriz egiaztatzeko izapideak egiten hasiko da, hots, aurreko edizioei emandako kreditu berak esleituko zaizkio automatikoki
  - b. Prozedura horri Etengabeko Prestakuntzako Batzorde Autonomiko bakoitzak ezartzen duen aldiari eutsiko zaio. Aldi hori igaro ondoren, irakaskuntza-jarduera berriro ebaluatuko da. Aipatutako aldi hornitzaileak jatorrizko edizioaren egiaztapenaren jakinarazpen ofiziala jasotzen duenetik berriz egiaztatu nahi den edizio berria hasten den egunera arte igaro den denbora kalkulatu zenbatuko da.
  - c. Batzordeak edo hornitzaileak eskatuta, egiten diren berregiaztapenen urteetako aldien barnean, prozedura eten daiteke edozein unetan, eta berriro ebalua daiteke irakaskuntza-jarduera.
  - d. Edizio desberdinetako eskaeren dokumentazioan biltzen den informazioa aldatu ahal izango da jardueraren kalitatea gutxiagotzea ekartzen ez duten zatietan, esate baterako: hasiera- eta amaiera-datak, jarduera egingo deneko egoitza eta prestakuntza emateko ordutegiak. Era berean, Idazkaritza Teknikoak balioetsi ondoren eta Batzordeak onetsi ostean, irakasleen edo xehetasun-alderdien aldaketak onartu ahal izango dira, betiere aldaketa horiek prestakuntzaren kalitateari eragiten ez badiete gainerako ataletan.
- ✓ **JARDUERAREN IRAKASLE-ZUZENDARI ARDURADUNA(K):** Honako datu hauek adierazi beharko dira: pertsona horren izen-abizenak, lanpostua eta jarduerarekin eta irakaskuntza-esperientziarekin lotutako curriculum laburra. Ez da derrigorrezkoa, baina komeni da pertsona horiek profesional sanitarioak izatea.

- ✓ **JARDUERA EGITEKO TOKIA:** Jarduera bakar baten egoitza bat baino gehiago badira, egoitza guztiak adierazi beharko dira. Jarduera mistoen kasuan, presentziazko zatiaren egoitza aipatu behar da.
- ✓ **HASIERA-DATA:** Hasiera-dataren eta eskaeraren izapideak egiteko onartzeko sarrera-erregistroaren artean egun naturalen gutxieneko kopuru bat izan behar da, autonomia-erkidego bakoitzak xedatutakoaren arabera
- ✓ **BUKAERA-DATA:** Hasiera-datari dagokionez arrazoizko tarte bat izan behar da, jardueraren iraupenaren eta irakaskuntza-metodologiaren eta ebaluazio-metodologiaren arabera.
- ✓ **ASISTENTZIA KONTROLATZEKO ERABILITAKO METODOA:** Asistentzia-kontrola eskatuko da eskaeraren izapideak egitea onartzeko derrigorrezko baldintza formal gisa. Jarraituko den prozedura azaldu beharko da.
- ✓ **KREDITUAK AITORTZEKO ZIURTAGIRIA LORTZEKO ESKATZEN DEN GUTXIENEO IRAUPENA:** 4 orduko edo gutxiagoko iraupeneko jarduerak % 100eko bertaratzea eskatu beharko dute kredituak aitortzeko ziurtagiria emateko bertaratuei. Ordu kopuru handieneko jarduerak % 80ko bertaratzea gutxienez eskatu beharko dute.

**PRESTAKUNTZA BIRTUALAREN KASUAN**, irizpideak jarduera garatzen den ingurune espezifikora egokitu beharko dira (konexio-denbora, nabigazioa, irekitako baliabideak, egindako jarduerak, etab.)

## 5.7. JARDUERAREN EZAUGARRIAK:

Galde-sortako informazio guztia kontuan hartzen bada ere, atal honetako eduki espezifikoa (Egokitasuna, Helburuak, Metodologia, Ebaluazioa eta Antolamendua eta Logistika) da ebaluatzaileek kalifikatuko dutena bost balioko eskala bat erabiliz. Eskala horretan, 0 gutxieneko puntuazioa da eta 0,4 gehienekoa.

Dagozkion kalkuluak egin ondoren, puntuazio horien emaitzak egiaztatu nahi den jardueraren diseinuaren osagai kualitatiboaren balioa emango du. Atera daitezkeen balioak 0 puntutik 2,8ra bitarteko tartean banatzen dira. 1 izango da gutxieneko puntuazioa; balio horretatik behera ez da irakaskuntza-jardueraren egiaztapena emango.

Oso garrantzitsua da zaintzea eta berrikustea informazioaren barne-koherentziarik ote dagoen bost atalen artean.

### 5.7.1. JARDUERAREN EGOKITASUNA

Garatu nahi den prestakuntzaren egokitasunak ematen dio zentzua eta justifikatzen du prestakuntza egitea, eta beraz, biztanleriaren osasun-arazoekin eta -premiekin ez ezik, prestakuntza eskaintzen zaien profesionalen konpetentziekin ere lotuta egon behar du.



Etengabeko prestakuntzaren helburua profesional sanitarioen konpetentziak mantentzea eta hobetzea da, profesional horiek modu eraginkorragoan esku hartu ahal izateko beren lanpostua betetzen dutenean eta zerbitzua eskaintzen dioten komunitatearen osasun-arazoei eta osasun-premiei buruzko eragin positiboa lortu ahal izateko.

Beraz, helburua honako hau justifikatzea da: alde batetik, zer prestakuntza-arazori edo -premiari erantzun nahi zaion; eta, bestetik, zergatik eskaintzen zaion kolektibo profesional horri eta, azkenik, hautemandako arazoari dagokionez prestakuntzak eman ditzakeen onurak.

Hainbat motatako argudioak erabil daitezke: argudio epidemiologikoak, kostuaren eta etekinaren ingurukoak, eskaera sozialak, programa sanitarioak, egindako jardueren kopurua, araudi erregulatuzailea, argudio etikoak, berrikuntza teknologikoak, ebidentzia zientifikoak, kontsentsuak, indarreko protokoloak, prestakuntza-planak...

Ahalik eta eguneratuena den eta ahalik eta gehien kontrasta daitekeen kalitatezko informazioan oinarritutako argudioak modu positiboan balioesten dira.

Aipatu eta deskribatu prestakuntza zer iturritatik sortu den edo zer metodo erabili den egiaztatu nahi den prestakuntza antolatzeke eta eskaintzeko premia hautemateko, hala nola betetze-mailaren ebaluazioa, konpetentzien ebaluazioa, memoriak, artikulua, azterlanak, inkestak, buletinak, legeria, Erakundeen prestakuntza-plana, prestakuntza emateko erabakia hartu den bileren aktak ...

Iturrien edo erabilitako metodoen xehetasuna modu positiboan balioesten da, baldin eta aipatutako prestakuntza-premia iturri edo metodo horietatik sortzen dela berrestea ahalbidetzen badu.

Prestakuntza kolektibo desberdinei eskaintzen zaienean, garrantzitsua da argi uztea kolektibo horien prestakuntza-maila eta konpetentziak egokiak direla erdietsi nahi den ikaskuntza lortzeko eta aprobetxatzeko.

Prestakuntzarekin lortzea espero diren onuren deskribapenean, balioesten da onura osasunaren emaitzak, arretaren hobekuntza eta erantzuteko azkartasuna kontuan hartuta ebaluatzea ahalbidetzen duten adierazleak egotea.

Jardueraren egokitasunari dagokionez, ebaluatzailea honako ebaluazio-parrilla honetan oinarrituko da puntuazio desberdinak emateko:

<b>0,0</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Bete gabe (<b>HUTSIK</b>) (ez litzateke ebaluatuko).</li> <li>▪ EZ dagozkio/dagozkie jardueraren <b>HELBURU D(IR)EN LANBIDEARI/LANBIDEEI</b>.</li> <li>▪ informazioak <b>EZ DU ZERIKUSIRIK</b> balioetsi behar diren alderdiekin edo gaiarekin.</li> </ul>
<b>0,1</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Hautemandako arazoa deskribatu da, baina <b>ARGUDIOAK</b> zehaztugabeak dira (ebaki eta itsatsi), hautemateko oso zehatzak ez diren metodoak erabili dira, eta <b>EZ DIRA JUSTIFIKATU</b>.</li> </ul>
<b>0,2</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Arazoa deskribatu da eta jardueraren xede diren <b>PROFESIONALEN</b> arabera kokatu da testuinguruan.</li> <li>▪ Hautemandako premiei buruzko <b>ERREFERENTZIAK</b> egin dira eta hautemandako erabili diren metodoak zehaztu dira.</li> </ul>
<b>0,3</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Gainera, <b>HAUTEMANDAKO ARAZOA AGERIAN JARTZEN DUEN</b> informazioa eman da eta kontrasta daitezkeen argudioak edo aipamenak erabili dira.</li> </ul>
<b>0,4</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Jarduera honek <b>ARAZOA NOLA HOBETU</b> nahi duen zehaztu da eta jarduera egin ondoren lortzea espero den <b>ONURA</b> azaldu da.</li> </ul>

*Atal baliotsuena da; ebaluatzaileen kalifikazioen batez bestekoa, kasu honetan, 2 haztapen-faktorearekin biderkatzen da.*

## 5.7.2. IRAKASKUNTZA-HELBURUAK.

Prestakuntza-helburuek bertaratuen ikaskuntza-helburuak adierazi behar dituzte. Askotan, erakundearen asmoak edo erakundeak prestakuntzaren ondorioz lortu nahiko lituzkeen onurak sartzen dira, baina hori okerra da. Egokiagoa da informazio hori egokitasuna garatzen den atalean sartzea.

Interneten bilatzen bada, ikaskuntza-helburuak behar bezala idazteko informazio baliagarria aurki daiteke.

Izenburuarekin gertatzen zen bezala, **urrutiko prestakuntzaren** helburuen alderdi berezi bat da helburu horiek ezin direla osagai psikomotore garrantzitsu bat duten gaitasun profesionalei buruzkoak izan, esate baterako: zauriak jostea. Urrutiko prestakuntzan josturei buruzko ezagutzak eskuratu ahal izango dira, baina konpetentzia hori presentziako prestakuntzaren bitartez soilik hobetu edo menderatu ahal izango da irakasle, baliabide eta metodologia egokiek.

### **HELBURU OROKORRAK.**

Helburu gutxi izango dira, hoberena da irakaskuntza-jarduera bakoitzeko helburu bat edo bi izatea, eta ikaslearengandik espero den ikaskuntza globalari egiten diete erreferentzia. Prestakuntzaren xede diren ildo handiak edo kontzeptuak hartzen dituzte oinarritzat. Oro har, zuzenean ikusi ezin diren prozesu mentalak adierazten dituzten aditzak azaltzen dira helburu horietan: ikasi, jakin, eguneratu, ezagutu, eta abar.

Bat etorri behar dute eman eta egiaztatu nahi den prestakuntzaren egokitasunaren edukiarekin. Era berean, jardueraren izenburua jardueraren helburu orokorrekin lotuta egongo da.

### **HELBURU ZEHATZAK.**

Helburu orokorrak baino hitz zehatzagoak erabiliz adieraziko dira eta helburu orokor horiekin lotuta egongo dira. Ez da helburu orokorrik izango helburu espezifikorik gabe eta alderantziz.

Erabiltzen diren aditzek ikusteko moduko ekintza adieraziko dute: aipatu, zehaztu, sailkatu, identifikatu, maniobratu, sakatu, adierazi, sartu, etab.

- Ezagutzei buruzkoak: aztertu, deskribatu, zerrendatu, azaldu, gogoratu, erlazionatu, laburbildu, identifikatu.
- Abileziei buruzkoak: aplikatu, eraiki, egiaztatu, egin, espermentatu, funtzionarazi, maneiatu, baliatu, erabili, planifikatu...
- Jarrereri buruzkoak: onartu, ikusi, jokatu, lehenetsi, errespetatu, sentitu, onartu, balioetsi...

Helburua eduki bat baino zerbait gehiago da, ekintza, hots, aditza behar du. Helburu espezifikoko guztiek programaren edukian azaldu behar dute.

Helburu kopuruak proposatutako prestakuntza-denborarekin eta helburu motarekin, ezagutza motarekin, jarrera motarekin eta abilezia motarekin lortu ahal izateko modukoa izan behar du, metodologiarekiko eta parte-hartzaile kopuruarekiko egokia izan behar du.

Modu positiboan balioesten da abilezia-helburuak izatea eta ezagutzak, jarrerak eta abileziak txertatzeko helburuak izatea, hau da, lanbide-kompetentzia lortzera bideratuta dauden helburuak izatea.

Jardueraren irakaskuntza-helburuei dagokienez, ebaluatzailea honako ebaluazio-parrilla honetan oinarrituko da puntuazio desberdinak emateko

<b>0,0</b>	<p>(Ondorengo aukeren artetik edozein)</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Ez dute azaltzen zer lortu nahi den.</li> <li>▪ ez dute loturarik jardueraren edukiarekin.</li> <li>▪ ez dute loturarik helburu diren profesionalekin.</li> <li>▪ ez dute loturarik hautemandako premiarekin.</li> </ul>
<b>0,1</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Ikastaroaren <b>IZENBURUA</b> lotuta dago jardueraren helburu orokorrekin (jardueraren edukiekiko lotura).</li> <li>▪ <b>HELBURU OROKORRAK</b> ulergarriak dira eta prestakuntzaren xedea adierazten dute.</li> <li>▪ Helburu <b>ESPEZIFIKOAK</b> ez dira oso argiak edo edukien zerrendarekin nahasten dira.</li> </ul>
<b>0,2</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Helburu <b>OROKORRAK</b> esaldi gutxitan deskribatu dira, zehatzak dira, ulergarriak eta parte-hartzaileen profilariekiko egokiak.</li> <li>▪ Helburu <b>ESPEZIFIKOAK</b> eraginkor bihurtzen dituzte helburu orokorrak eta edukiekin erlazionatzen dira (ekintza eta edukia barne hartzen dituzte, nahiz eta ezagutzetara mugatzen diren).</li> <li>▪ Helburuak <b>LORGARRIAK ETA NEURGARRIAK</b> dira.</li> </ul>
<b>0,3</b>	<p>Aurreko itema betetzen da, eta gainera...</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Helburu <b>ESPEZIFIKOAK</b> eraginkor bihurtzen dituzte helburu orokorrak eta lortu behar diren <b>ABILEZIAK</b> adierazten dituzte.</li> <li>▪ Jardueraren <b>IRAUPENAREKIKO</b> eta parte-hartzaileen <b>KOPURUAREKIKO</b> egokiak dira.</li> </ul>
<b>0,4</b>	<p>Aurreko itema betetzen da, eta gainera...</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Helburuek <b>HAUTEMAN DIREN ARAZOAK KONPONTZEN</b> laguntzen dute zalantzarik gabe.</li> <li>▪ Kompetentzia lortu dela adierazten dute eta <b>EZAGUTZAK, ABILEZIAK ETA JARRERAK txertatzen dituzte.</b></li> </ul>

*Atal honetan, ebaluatzaileen kalifikazioen batez bestekoa 1 haztapen-faktorearekin biderkatzen da.*

### 5.7.3. IRAKASKUNTZA-METODOA.

Metodologia ikaskuntza-egoerak sortzeko aurreikusitako baliabide eta prozedura guztiak martxan jartzeko modua da.

Metodologia baten kalitatea lortu behar diren helburuekiko egokitzapenarekin, ikasleari ematen dion elkarreragitearekin eta atzeraelikadurarekin eta errealitateari buruz lortzen duen simulazio-mailarekin lotuta dago.

Oro har, profesionala zenbat eta aktiboagoa izan eta bere ikaskuntzaren zenbat eta protagonistagoa izan, orduan eta gehiago hartuko da aintzat metodologia.

Irakaskuntza-jarduera guztietan ikasleek parte hartzea ahalbidetuko duen dinamika motaren bat izan behar da: eztabaidak, kasuen lana, arazoak konpontzea, gogoetarako ariketak, teoria aplikatzeko ariketak, talde-lanak, dramatizazioak edo metodo baliokideak.

Prestakuntzan benetako pazienteek parte hartzen badute, edo pazienteen informazio pertsonalera sartzen badira, aitortu egin beharko da nola bermatzen diren pazienteek intimitaterako eta beren datu pertsonalen babeserako dituzten eskubideak.

Izan zaitez argia eta zehatza erabiliko den metodologia deskribatzerakoan, eta azaldu metodologia garatzeko erabiliko diren erritmoak, sekuentziak, rolak, ekintzak, baldintzak eta abar. Zaindu metodologiaren eta helburu espezifikoaren, ikasgai-zerrendaren, antolamenduaren eta ebaluazioaren arteko koherentzia. Parte hartzeko eta elkarri eragiteko erabilitako dinamikak argi eta garbi zehaztu beharko dira ikastaroaren programan.

Jardueraren irakaskuntza-metodologiari dagokionez, ebaluatzailea honako ebaluazio-parrila honetan oinarrituko da puntuazio desberdinak emateko

<b>0,0</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Ez da proposatutako helburuetara egokitzen.</li> <li>▪ Ez dago antolamenduarekiko koherentziarik.</li> <li>▪ Ez dago elkarrekintzarik.</li> </ul>
<b>0,1</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Helburuekiko harremana dauka.</li> <li>▪ Errealitatearen simulazio oso txikia (lanpostutik <b>URRUN</b>).</li> <li>▪ Irakaslearen eta ikaslearen arteko <b>OSO INTERAKZIO TXIKIA</b> dago.</li> </ul>
<b>0,2</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Ikasle/irakaslearen eta ikasle/ikaslearen arteko <b>INTERAKZIOA</b> dago, jardueraren programan nabarmentzen dena.</li> <li>▪ <b>BALIABIDEAK</b> egokiak dira proposatutako elkarrekintza-mailari dagokionez.</li> </ul>
<b>0,3</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Elkarlanean egindako lanak, <b>KASU PRAKTIKOAK, SIMULAZIOA, LANTEGIAK, ROL-JOKOA</b>.</li> </ul>
<b>0,4</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ <b>BENETAKO TESTUINGURUA EDO IA BENETAKO KASUAK</b> (praktikari buruzko gogoeta edo debriefingua gehitu behar da).</li> </ul>

*Atal honi balio handia ematen zaio, ebaluatzaileen kalifikazioen batez bestekoa, puntu honetan, **1,5 haztapen-faktorearekin** biderkatzen da.*

#### 5.7.4. EBALUAZIOA.

Ebaluazioaren bitartez, hasieran proposatutako helburuen lorpen-maila ezartzen da.

Jardueraren ebaluazioak lau maila eduki ditzake: gogobetetasunaren ebaluazioa, ikaskuntzaren ebaluazioa, ikaskuntzatik praktika profesionalera egindako transferentziaren ebaluazioa eta prestakuntzak antolamenduaren eta/edo gizartearen ingurunean duen inpaktuaren ebaluazioa.

Lau maila horiek kausa-kate baten sekuentziak edo mailak dira, hau da, antolamenduan aldatetak lortu nahi baditugu prestakuntza-ekintzen bitartez, aurretik aldatu egin beharko da ekintza horien hartzaileen jokabidea, eta hori gertatzeko, prestakuntza jasotzeko prest dauden profesional motibatuek ikasi egin beharko dute aldez aurretik.

Jardueran erabiliko diren ebaluazio-metodoak deskribatu behar ditu (parte-hartzaileei, irakasleei, jarduerari, antolamenduari, prozesuari eta abarri dagokienez), baita erabili den bitartekoa edo sistema eta kredituak lortzeko eskatzen diren eskakizunak ere. Ezinbestekoa da prestakuntza-diseinuaren gainerako elementuekiko koherentzia izatea. Ebaluazio-proposamenak, oro har, koherentea izan behar du prestakuntza-jarduerarekin, prozedurak eta tresnak/probak lortu nahi diren helburuetara, modalitatera, prestakuntza motara eta prestakuntzaren hartzaileetara egokituz.

Ebaluazio moduren bat aipatzen duzun guztietan erabili behar dituzun ereduak edo ariketak erantsi beharko dituzu.

Ezinbestekoa da bertaratuen gogobetetasunaren ebaluazioa izatea, eta ebaluazio hori jardueraren balioespenean kontuan hartzeko, antolamenduaren, metodologiaren, irakasleen ebaluazioa gehitu behar du, baita eskuratutako ezagutzak edo konpetentziak lanpostuan zenbateraino erabiltzen diren eta lanpostura zenbateraino egokitzen diren aztertzen duen ebaluazioa ere.

Irakaskuntza-ebaluazioaren bitartez (ikaskuntza-ebaluazioa), ikaskuntzako helburu espezifikokoak lortu ote diren neurtzen da.

Ezagutza-helburuak ebaluatzeko, probak mota honetakoak izan daitezke: test motako galderak, galdera laburrak eta abar. Probak kalitatearen balioespenean aintzat hartzeko, galdera kopuruak jardueraren iraupenarekiko egokia izan behar du eta gainditze-nota bat eskatu behar du.

Test motako probei dagokienez, jardueraren iraupena 2 irakastordutik 5 irakastordura bitartekoa bada, 10 galdera egin beharko dira gutxienez. Jardueraren iraupena handiagoa bada, gutxienez galdera 1 gehituko da irakastordu gehigarri bakoitzeko. Galderetan aukeratzeko gutxienez 4 erantzun egongo dira, erantzuteko gezurra/egia aukera eskaintzen duten galderak ez dira balioetsiko. Eskatzen diren asmatzeen ehunekoa % 70 edo hortik gorakoa izango da.

Abilezia-helburuak edo konpetentziak txertatzeko helburuak ebaluatzeko, hainbat proba egin daitezke, adibidez: prozedura bat, lan praktikoa bat, edo egoera simulatu batean jardun daiteke. Probak kalitatearen balioespenean kontuan hartzeko, beharrezkoa da proposatutako kasua izenpekoarekin edo ebaluazio-inprimakiarekin batera ikasle bakoitzari balioetsi behar zaizkion itemekin erantzea, eta gainditze-baldintza bat ezartzea edo bakarkako edo taldeko feedback-txosten bat bermatzea.

### **Transferentziaren eta/edo inpaktuaren ebaluazioa.**

Ikaskuntzatik lanposturako transferentzia ebaluatzea proposatzen denean, ikaskuntza nork egiten duen zehaztu behar da (ikasleak lan egiten dueneko erakundea edo prestakuntza ematen duen erakundea), zer neurtuko den (neurri-irizpidea) eta neurketa egiteko ezarritako prozedura. Ildo horretan, prozedurak ahalbidetu behar du lanpostuan aplikatzeari buruzko informazio baliagarria eta fidagarria lortzea, eta informazio horretan neurketa nola egin den eta noiz egin den adierazten duen informazioa gehitu behar da (gainerako aldagaiak, hots, neurketa nork egin duen, neurketaren maiztasuna, eta abar desiragarriak soilik izango lirateke).

Ikasleen gogobetetasunari edo pertzepzio subjektiboari buruzko inkestak ez dira kontuan hartuko. Autoebaluazioak ez dira nahikoa. Ikasleen jokabide behagarriak lanpostuan aztertzea eta erregistratzea ahalbidetzen duten metodoak behar dira. Era berean, ikerketa-

lanak egitea edo prestakuntzaren ondorioz egindako beste azken produktu batzuk transferentziaren ebaluazio gisa erabil daitezke.

Inpaktuaren ebaluazioan, hautatu diren adierazleak zehaztu beharko dira eskaeran. Adierazle horiek ahalbidetuko dute izandako aldaketa, prozedura eta jardueraren aurreko eta ondorengo estandarrak modu objektiboan egiaztatzea.

Inpaktuaren ebaluazioa egiteko prozedura zehazki deskribatu behar da (gutxienez aipatu behar da nola egiten den eta noiz egiten den), baita erabili den tresna, neurtzeko irizpideak, abiapuntuko hasierako adierazlea eta azken adierazleak ere. Horiek guztiek jardueraren garapenaren ondorioz sortutako testuinguruetan (profesionalak, asistentzialak eta/edo antolamenduzkoak) izandako aldaketei buruzko informazioa emango dute.

Jardueraren ebaluazioari dagokionez, ebaluatzailea honako ebaluazio-parrila honetan oinarrituko da puntuazio desberdinak emateko

<b>0,0</b>	▪ Ebaluazio-tresnek <b>EZ DITUZTE BETETZEN</b> baldintzak.
<b>0,1</b>	▪ <b>GOGOBETETASUNAREN</b> ebaluazioa (inkesta) antolamendua, irakasleen metodologia eta lanposturako baliagarritasuna/aplikagarritasuna ebaluatzeko behar adina galdera eginez.
<b>0,2</b>	▪ <b>IKASKUNTZAREN</b> ebaluazioa ( <u>EZAGUTZA-MAILA</u> ) azken kalifikazioa emanez (gainditze-eskakizuna). ▪ (URRUTIKO JARDUERETAN ezagutzen ebaluazioa egin beharko da nahitaez).
<b>0,3</b>	▪ <b>IKASKUNTZAREN</b> ebaluazioa ( <u>KONPETENTZIA-MAILA</u> : ezagutzak, abileziak, jarrerak eta balioak txertatzea), azken kalifikazioa emanez edo feedbacka eta irakaslearen txostena eginez.
<b>0,4</b>	▪ <b>TRANSFERENTZIAREN EDO INPAKTUAREN</b> ebaluazioa

*Horri ere balio handia ematen zaio, ebaluatzaileen kalifikazioen batez bestekoa, puntu honetan, 1,5 haztapen-faktorearekin biderkatzen da.*

### 5.7.5. ANTOLAMENDUA ETA LOGISTIKA

Antolamenduaren eta logistikaren helburu nagusia erabiliko diren metodologiak (irakasteko nahiz ebaluatzeko) garatzen laguntzea da; beraz, atal hauen artean koherentzia egokia izan behar da. Kudeaketaren martxa onari, bezeroari ematen zaion arretari eta aplikatzekoa den araudia betetzeari ere eragiten dio.

Prestakuntza-jarduera garatzeko aurreikusitako antolamendua eta baliabideak ahalik eta modurik argiengan azaldu behar dira.

a) **Jardueraren egutegia eta programa:** Atal honetan sartu jarduera egingo den egun bakoitzeko edukia eta ordena kronologikoa argi eta garbi erakusten duen eta zerrendatzen duen taula bat edo testu bat, honako datu hauek gutxienez adieraziz:

- Jarduera garatuko den eguna(k) eta hilabetea(k). Egundako bakoitzaren ordutegia eta sekuentzia. Egundako bakoitzean garatuko diren gaiak, edukia edo jarduerak. Egundako bakoitzean esku hartuko duten irakasleak eta/edo hizlariak.

- Atsedena hartzeko aldiak edo programatuta dagoen irakaskuntzaz kanpoko beste edozein jarduera adierazi behar dituzu.
  - Komenigarria da ikasgaien epigrafeak anbiguoak eta oso generikoak ez izatea. Epigrafeen idazketak ebaluatzaileei ahalbidetu behar die ikasgaiak eskaintzen zaizkien lanbideen konpetentziekin lotu ahal izatea epigrafeak.
  - Jarduera praktikorik izanez gero, zehaztu argi eta garbi programan.
  - Edukiak eguneratuak izango dira eta ordutegira egokituta egongo dira. Saiatu oinarrizko elementurik ez sartzen, profesionalak bere oinarrizko prestakuntzan ezagutu eta menderatu behar izan zituenak eta bere lanpostua betetzen duenean egunero erabiltzen dituenak.
  - Zaindu gaiak eta programa, oro har, bat datozela helburu espezifikoekin eta erabiliko diren metodologiekin.
- b) **Programaren orduen laburpena:** Adierazi irakastorduak guztira zenbat diren kategoria bakoitzean. Ez gehitu atsedenaldiak eta dokumentazioa emateko, aurkezpenak egiteko, ekintza sozialetarako, ekintza komertzialetarako edo antzeko jardueretarako erabilitako denbora.
- c) **Giza Baliabideak (Jardueraren programako irakasleak):** Dagokion taulan kokatu behar dira, esparru guztiak bete beharko dira eta irakasleen curriculum txiki bat gehitu beharko da, irakasleek lanbidearen eta irakaskuntzaren alorrean duten esperientziari buruzkoa eta esku hartzen duten ezagutza-arloari buruzkoa. Irakasleen lanbideari edo titulazioari dagokionez ez dago mugarik. Irakasleen profila esku hartuko duen testuinguruaren arabera balioetsiko da.

Biltzar bat edo jardunaldi bat bada, batzorde antolatzailea eta batzorde zientifikoa osatzen duten pertsonen buruzko datuak ere aipatu beharko dira, pertsona horien titulazioak eta lanpostua adierazita.

- d) **Irakaskuntzaz kanpoko giza baliabideak.** Adierazi jarduera garatzeko laguntzaile gisa jarduten duten laguntzeko langileak, idazkariak, teknikariak, modeloak eta aktoreak.
- e) **Baliabide materialak:** Toki honetan, jarduera garatzeko erabiliko diren baliabide material guztiak aipatu: tokiak, ikus-entzunezkoen laguntzak, baliabide informatikoak, aparatuak, tresnak, ikasgelak, simulaziorako tokiak, bideograbazioa, etab.
- f) **Ikasleak aukeratzeko eta ikasleek izena emateko metodoa:** Adierazi jarduerara bertaratzen diren pertsonen edo ikasleek zer eskakizun bete behar dituzten eta aukeratzeko zer lehentasun eta metodo ezarriko diren. Komenigarria da prestakuntza-gaiei dagokienez, konpetentziei eta lan-eremuei buruz bertaratuen taldea homogeneizatzen duten onarpen-irizpideak izatea.

Profesional sanitarioak onartuko diren kasuetan, atal honetan jakinarazi behar da profesional egoiliarrek eta ez-sanitarioek ezin dutela etengabeko prestakuntzako krediturik jaso.

Kasu horretan, halaber, adierazi beharko da profesional horiek bertaratzea onartzen bada, ez zaiela kredituak aitortzeko ziurtagiririk emango.

## **JARDUERA MISTOEN ETA URRUTIKO JARDUEREN KASUAN:**

Prestakuntza birtualean, hornitzaileak bete behar dituen gutxieneko eskakizun batzuk daude.

- a) **Deskribatu segurtasun-sistemak, ikasleek parte hartzeko sarbidea eta parte-hartze horren kontrola:** Deskribatu ahalik eta modurik argienean segurtasunarekin, datuen babesarekin, parte-hartzaileek sartzeko duten moduarekin eta parte-hartzaileen jarduera eta partaidetza gainbegiratzeko eta kontrolatzeko erabiliko den metodoarekin eta irizpidearekin lotutako alderdi guztiak.
- b) **Sarbide-gakoak.** Kanpoko gure ebaluatzaileek eta Idazkaritza Teknikoko teknikariek egiaztapena eskatzearen xede den prestakuntza-diseinua ezagutzeko eta aztertzeko aukera izan dezaten, zure plataformarako eta irakaskuntza-jardueraren edukietarako sarbide telematikoa eman beharko dute; beraz, Interneteko helbide bat, erabiltzailearen kodea eta sartzeko beharrezkoa den pasahitza eman beharko dute nahitaez. Eskaera egiten den unean sartzeko aukerarik ez dagoen kasuetan, hornitzaileak Idazkaritza Teknikoari jakinarazi beharko dio zer datatik aurrera bisitatu ahal izango diren irakaskuntza-jardueraren baliabide birtualak.
- c) **Jardueraren presentziala ez den zatiaren egutegia eta programa:** Bete eredu-taula. Komenigarria da ikasgaien epigrafeak anbiguoak eta oso generikoak ez izatea. Epigrafeen idazketak ebaluatzaileei ahalbidetu behar die ikasgaiak eskaintzen zaizkien lanbideen konpetentziekin lotu ahal izatea epigrafeak.
  - Jarduera praktikorik izanez gero, zehaztu argi eta garbi programan.
  - Edukiak eguneratuak izango dira eta ordutegi-kargara egokituta egongo dira. Saiatu oinarrizko elementurik ez sartzen, profesionalak bere oinarrizko prestakuntzan ezagutu eta menderatu behar izan zituenak eta bere lanpostua betetzen duenean egunero erabiltzen dituenak.
  - Zaindu gaiak eta programa, oro har, bat datozela helburu espezifikoekin eta erabiliko diren metodologiekin.
- d) **Parte-hartzaileak jarduera osatzeko aurreikusitako gehieneko denbora (egunak, asteak, hilabeteak):** Prestakuntzaren aprobetxamendua bermatzeko, denborari dagokionez nolabaiteko jarraitasuna eta intentsitatea izan behar da ikaslearen jardueran; hortaz, denbora mugatuko eta prestakuntzaren ordutegi-kargaren, edukien konplexutasunaren eta dentsitatearen, erabilitako metodologiaren, tutore kopuruaren eta abarren neurriko aldi bat izan behar da jarduera betetzeko.
- e) **Adierazi nola zehaztu duzun jardueraren presentziala ez den zatiari dagozkion orduen kopurua:**

Garatu ahalik eta modurik argienean ikaslearen jardueraren ordutegi-karga zehazteko modua. Estandarrak, aipamen bibliografikoak, adituen gomendioak edo esparru honetan espezializatutako erakundeak eta abar erabili badituzu, aipatu.
- f) **Presentziala ez den zatiko Giza Baliabideak:** Urrutiko prestakuntzan, irakaskuntza-jardueraren garapenean parte hartzen duten hainbat pertsona egon daitezke. Prestakuntza-azpiegiturari laguntzen dioten administrazioako langileez, kudeatzaileez, koordinatzaileez, pedagogoez eta informatikako teknikariez gain, irakasleak edo adituak,



tutoreak eta dinamizatzaileak funtsezko pertsonak dira irakaskuntza/ikaskuntza birtualeko prozesuan.

Irakasleek rol desberdinak bete ditzakete edo pertsonak berak aldi berean bete ditzake:

1. **Irakasleak edo adituak** edukiak ematen ditu, eta hainbat baliabide erabiliz egiten du lan hori; esate baterako, txataren, bideokonferentziaren, bideoa erabiliz grabatutako ikasgaien, aurkezpenen eta foroen bitartez edota edukiak landuz eta abar. Pertsona horrek ematen duen ikasgaien profesional aditua izan behar du.
  2. Edukiak emateko jardueretan, esate baterako MOOC direlakoetan (online ikastaro masiboak), ikasgaien aditua den tutore bat egongo da ikasleen zalantzak argitzeko eta ikasleek iruzkinak egiteko erreferente gisa. Gomendatzen dugu 72 ordu igaro aurretik erantzutea.
  3. Online jardueretan ezinbestekoa da irakaskuntza-jardueraren diseinuan tutoretza bat izatea.
    - a) **Tutoreak**, hots, ikasten ari diren ikasgaia ezagutzen duen pertsonak, ikasleari lagundu egiten dio eta ikaslea bideratu eta motibatu egiten du ikaskuntza-prozesu osoan, zailtasunak elkarrekin landuz eta ikaskuntza orok eskatzen duen gogoeta-prozesua erraztuz.
    - b) Tutoreak, halaber, zeregin garrantzitsua dauka ikasle taldea gizarteratzen, bereziki jarduera erkideak daudenean, taldearen moderatzaile eta motibatzaile gisa jardungo baitu, gatazkak saihestuz eta bideratuz. Beste rol garrantzitsu bat ikasleari eta haren taldeari ez ezik, hornitzaileari ere atzeraelikadura ematea da. Modu positiboan balioesten da tutoreak prestakuntza espezifikoa izatea tutore gisa. Tutoreak batez ere foroa, posta elektronikoa, txata edo telefonoa erabiltzen ditu bere ekintza gauzatzeko bitarteko gisa. Tutoreak bere eginkizuna behar bezala garatu ahal izateko, Osasun Sistema Nazionalaren Lanbide Sanitarioen Etengabeko Prestakuntzako Batzordeak gomendatzen du 30-50 ikasle izatea tutore bakoitzeko. Proporzio hori alda daiteke erabilitako metodologiaren arabera.
    - c) Proporzio hori alda daiteke zentzu batean edo bestean, edukien konplexutasunaren, ikastaroaren iraupenaren, erabilitako metodologiaren eta abarren arabera.
  4. **Dinamizatzailearen** funtsezko eginkizuna da, alde batetik, ahaleginak egitea izena eman duten profesionalen prestakuntza ez uzteko, eta, bestetik, profesional horiek jarduera-erritmo egokia izatea, aurreikusitako programa betetzeko aukera izan dezaten. Dinamizatzailearen jarduera parte-hartzaile bakoitzaren jardueraren erregistroak gainbegiratzea eta gogorarazteko mezuak, intereseko mezuak edo motibazio-mezuak bidaltzea da. Ez da beharrezkoa ematen den ikasgaien aditua den profesionala izatea.
- g) **Logistika (Idazkaritza, administrazioa, euskarri teknikoa, dinamizatzaileak...):** Deskribatu irakaskuntza-jarduera garatzeko antolamendu-euskarria ematen duten profesionalak.
- h) **Baliabide materialak eta irakaskuntza-baliabideak (Zerbitzaria, posta-kontua, plataforma (URL eta pasahitzak, bideokonferentzia):** Adierazi erabiliko diren baliabide guztiak.
- i) **Erabilitako irakaskuntza-materialaren eta baliabideen deskribapena: erlazioa eta formatuak:** Batzordeko ebaluatzaileek eta teknikariek erabiliko diren baliabide birtualak eskuratzeko aukera izan behar dutenez, informazioak arreta handiagoa jarri behar du atal

horretan edukien eta materialen deskribapenean, eduki eta material horiek sartzeko eta prestakuntza erabiltzeko jarraitu diren arrazoietan edo logikan baino.

- j) **Ikasleak aukeratzeko eta ikasleek izena emateko metodoa:** Atal horretan bertan presentziazko prestakuntzarako dagoeneko adierazi denaz gain, kasu honetan, askotan komenigarria da informazioaren eta komunikazioen teknologia berriei buruz (IKT) ikasgaiak eskaintzen zaizkien profesionalek dituzten konpetentziei buruzko irizpideak sartzea, bereziki oso ohikoa ez den edo nolabaiteko abilezia izatea eskatzen duen tresnaren bat erabili behar bada.
- k) Komenigarria da hornitzaileak gida didaktiko bat eranstea. Gida horretan, jarduera garatzeko eskatzen diren jarduera guztiak bilduko dira eta edukia ere adieraziko da (pdf dokumentu zenbakitua, bideo minutatua, diapositiben aurkezpena, etab.). Gidaliburu honek osagai kuantitatiboaren ebaluazioa egitea erraztuko luke.

Jardueraren antolamenduari eta logistikari dagokionez, ebaluatzailea honako ebaluazio-parrila honetan oinarrituko da puntuazio desberdinak emateko

<b>0,0</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Elementu hauen artetik, <b>BAKAR BATEK ERE EZ DU LORTU EDO SOILIK 1ek</b> lortu du eskatzen den maila:               <ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Jardueraren iraupena,</li> <li>✓ Edukiak,</li> <li>✓ Irakaslearen profila,</li> <li>✓ Irakasleen eta ikasleen arteko proportzioa,</li> <li>✓ Baliabideak,</li> <li>✓ Ikasleak aukeratzeko metodoa.</li> </ul> </li> </ul>
<b>0,1</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Aipatutako elementuen artetik:               <ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Jardueraren <b>IRAUPENAK</b> eta <b>EDUKIEK</b> lortu dute eskatutako maila.</li> </ul> </li> </ul>
<b>0,2</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Aurreko itemean aipatutako elementuez gain:               <ul style="list-style-type: none"> <li>✓ <b>IRAKASLEAREN PROFILAK</b> lortu du eskatutako maila.</li> </ul> </li> </ul>
<b>0,3</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Aurreko itemean aipatutako elementuez gain:               <ul style="list-style-type: none"> <li>✓ <b>BALIABIDEEK</b> eta</li> <li>✓ irakasleen eta ikasleen arteko <b>PROPORTZIOAK</b> lortu dute eskatutako maila.</li> </ul> </li> </ul>
<b>0,4</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Aurreko itemean aipatutako elementuez gain:               <ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Ikasleak <b>AUKERATZEKO METODOAK</b> lortu du eskatutako maila.</li> </ul> </li> </ul>

*Atal honetan, ebaluatzaileen kalifikazioen batez bestekoa 1 haztapen-faktorearekin biderkatzen da.*

## 5.8. FINANTZAKETA

Ezinbestekoa da jarduera finantzatzeko iturriei buruzko informazio xehatua ematea.

## 5.9. BABESLEAK

Finantzaketa eta baliabideak ematen dituen edo publizitatea egiten duen erakunde oro babesletzat hartzen da.

Hornitzailearekin horrela adosten badute, atal honetan agertzen diren hornitzaileek soilik jarri ahal izango dute beren logotipoa egiaztapen-ziurtagiria lortzeko eskakizunak betetzen dituzten bertaratuei emango zaien egiaztapen-ziurtagirian.

Ez dira babesletzat hartuko produktuen edo zerbitzuen marka komertzialak (farmakoak, aparatuak, elikagaiak, etab.); horrenbestez, ezin izango dira, inola ere, ziurtagirian azaldu eta ezin izango dira egiaztapen-logotipoarekin lotu.

## 5.10. INFORMAZIO GEHIGARRIA

Toki honetan, sartu egokitzat hartzen duzun eta aurreko ataletan adierazi ezin izan den informazioa.

## 6. BILERA ZIENTIFIKOAK, BILTZARRAK ETA JARDUNALDIAK EGIAZTATZEKO ESKAERA.

### 6.1. KONGRESU ETA JARDUNALDIAK

EGIAZTAPEN GLOBALA (programa osorako) eskatu ahal izango da aldi bereko jarduerarik ez badago eta jarduera guztietan parte hartzeko aukera badago. Aldi bereko jarduerak badaude eta jarduera batean edo bestean parte hartuko den erabaki behar bada, MODALITATEAREN ARABERAKO EGIAZTAPENA eskatu beharko da.

Honako hauek dira **BALDINTZAK**:

1. Batzorde zientifiko bat eta/edo batzorde antolatzaile bat izan behar dute.
2. Soilik eskabide-orri bat beteko da eredu normalizatuaren arabera.
3. Jardunaldiaren edo Biltzarraren barruan edo haietatik kanpo egiten diren eta matrikula espezifikoa duten lantegiak/ikastaroak jarduera independentetzat hartuko dira.
4. Ez dira egiaztagarritzat hartzen erakundeak bere gain hartzen duen programa zientifikoa osatzen ez duten aurkezpenak (POSTERRAK, AHOZKO KOMUNIKAZIO ASKEAK, INDUSTRIAK SUSTATUTAKO SINPOSIO SATELITEAK...).
5. Ordubetetik beherako iraupeneko jarduerak ez dira egiaztatuko.
6. Bertaratze-kontrola:
  - a) Egiaztapen globala eskatzen bada eta guztizko iraupena 4 orduetik beherakoa bada, % 100ean parte hartu beharko da kredituak eskuratzeko aukera eduki ahal izateko. Iraupena 4 orduetik gorakoa bada, nahikoa izango da % 80ko parte-hartzea izatea.
  - b) Modalitateen arabeko egiaztapena eskatzen bada, jardueraren % 100ean parte hartu beharko da kredituak eskuratzeko aukera eduki ahal izateko.
7. Iritziari/gogobetetzeari buruzko Inkesta bat egitea (onartzen da biltzarrari eta/edo jardunaldiari buruzko inkesta global bat egitea).
8. Independentzia komertzialari buruzko araudia betetzea, honako hauek erantsita:
  - a) Zientziako eremuen eta eremu komertzialen arteko bereizketa.
  - b) Interes-gatazkak dituzten hizlarien zerrenda.
  - c) Erakunde babesleen zerrenda.
  - d) Promoziorako eta irakaskuntzarako materialak.
9. Parte-hartzaileei ematen zaien ziurtagiria:
  - a) **Egiaztapen globalaren** kasuan, kredituak globalki azalduko dira ziurtagirian, Jardunaldian eta/edo Biltzarrean izandako partaidetzarengatik, jarduera jakin batekin lotu gabe.

- b) **Modalitateen araberako egiaztapenaren** kasuan, parte-hartzaile bakoitza Biltzarraren eta/edo Jardunaldiaren egiaztatutako ekintzetara bertaratu dela egiaztatu beharko du erakunde hornitzaileak. Horretarako, dokumentu bakar bat erabiliko du eta dokumentu horretan egin diren jarduerak eta dagozkien kredituak azalduko dira

**MODALITATEEN ARABERAKO EGIAZTAPENAREN** kasuan,

kredituak Jardunaldiaren eta/edo Biltzarraren ziurtagirian azalduko dira, jarduera bakoitzarekin lotuta, baina haiei batu gabe.

Adibidez: .....(R)I BURUZKO XX BILTZARRA

Mahai-inguruak:  
2 motako intsulinizazioa.....0,2 kreditu

Sinposioak:  
Aho bidez hartzen diren diabetesaren aurkako farmako berriak..... 0,1 kreditu

Lantegiak:

Gailuen maneia ..... 0,3 kreditu

**EGIAZTAPEN GLOBALAREN** kasuan

Kredituak Jardunaldiaren eta/edo Biltzarraren ziurtagirian azalduko dira, batuta, baina jarduera jakin bati lotu gabe.

Adibidez:

.....(R)I BURUZKO XX BILTZARRA 0,4 kreditu

(biltzarreko 2 orduko 2 mahai-inguruengatik lortutako kredituak batzearen ondorioz lortzen den emaitza izango da).

### EGIAZTAPEN-PROZEDURA, JARDUNALDIEI ETA BILTZARREI APLIKATZEKO DENA:

Kalitate estandarreko eta linealeko faktore bat aplikatzea, bai egiaztapen globala, bai modalitateen araberako egiaztapena aplikatzea eskatzen bada. Jardunaldien egiaztapenaren kasuan nahiz biltzarren egiaztapenaren kasuan, azken kredituak ezarritako faktorea aplikatzearen ondorioz lortzen direnak izango dira.

### EMANDAKO KREDITUEN KOPURUA, MODALITATEAREN ARABERA:

OSOKO BILKURAK / HITZALDIAK, MAHAI-INGURUAK, SINPOSIOAK,...	
1 orduetik < 1,5 ordura	→ 0,1 kreditu
1,5 orduetik < 2,5 ordura	→ 0,2 kreditu
2 orduetik < 3,5 ordura	→ 0,3 kreditu

LANTEGIAK ETA IKASTAROAK	
1 orduetik < 1,5 ordura	→ 0,2 kreditu
1,5 orduetik < 2,5 ordura	→ 0,3 kreditu
2,5 orduetik < 3,5 ordura	→ 0,4 kreditu

## 6.2. SAIO KLINIKOAK

Aldizkako jarduera programatuak, zeinetan profesional multzo batek bere eguneroko jarduneko konpetentzia erkideen arloei buruzko iritziak, esperientziak eta informazio zientifikoa trukutzen dituen. Bestek beste, honako hauek sartzen dira:

- Saio klinikoak.
- Kasuen serieak.

- Dagoeneko konponduta dauden kasuen azalpena.
- Kasuak konpontzea adituekin.
- Proba osagarriei, farmakoei, deribazioei, egoerei eta abarri buruzko saioak.
- Saio bibliografikoak.
- Praktika klinikoko gidaliburuei buruzko saioak.
- Zeharkako saioak (asistentzia-kalitatea, antolaketa-kalitatea, kalitate klinikoa, eta abar)

### **BALDINTZAK:**

1. Soilik eskabide-orri bat beteko da eredu normalizatuaren arabera.
2. Zehaztutako programa, kasu/saio bakoitzeko arduradun bat duena.
3. Egutegia. Hiruhilekoen/seihilekoen arabera elkartuta edo urtekoak (Salbuespen gisa, banaka egiaztatu ahal izango dira).  
Euskal Autonomia Erkidegoan ez da salbuespen hori onartzen; horrenbestez, beharrezkoa da gutxienez 2 saio egitea.
4. Izapideak egiteko onartzeko iraupena saio bakoitzeko: ordu batetik (gutxienez) bi ordura (gehienez) bitarteko iraupena
5. Bertaratze-kontrola: % 100 saio bakoitzeko eta programaren % 80. Dena den, 2 irakastordutan baino gehiagotan parte hartu duten pertsonak soilik izango dute kredituak jasotzeko eskubidea.
6. Iritziari/gogobetetzeari buruzko inkesta (saio bakoitzeko edo programa bakoitzeko, parte-hartzaile kopurua kontuan hartuta).

### **PROZEDURA:**

Kalitate estandarreko eta linealeko faktore bat aplikatzea.

Emandako kredituen kopurua: 0,2 kreditu saio bakoitzeko.

## 7. LANBIDE SANITARIOEN ETENGABEKO PRESTAKUNTZAKO BATZORDEAREN LOGOTIPOA

Lanbide Sanitarioen Etengabeko Prestakuntzako Batzordeak egiaztatutako jarduerak sustatzeko edo egiaztatzeko soilik erabili ahal izango da.

Osasun Sistema Nazionalaren Lanbide Sanitarioen Etengabeko Prestakuntzako Batzordearen logotipo bera erabiliko da autonomia-erkidego guztietan. Elkarren artean bereiziko dira logotipoaren oinean dagokion autonomia-erkidegoko Batzordearen izena jarri beharko delako.

1. Ezin izango da Etengabeko Prestakuntzako Batzordea aipatu eta ezin izango da logotipoa erabili egiaztapenaren emaitza positiboa dela jakin aurretik edo egiaztapenik ez duten prestakuntza-jardueretan eta/edo prestakuntza-programetan, eta ezin izango da lotu, halaber, babesleen eta/edo hornitzaileen irudi korporatiboarekin.
2. Egiaztatu diren jardueren diplometan, programetan eta sustapen-materialetan soilik erabili ahal izango da.
3. Aipatutako jarduera sustatzeko materialetan, honako hauek ere azaldu beharko dute: Osasun Sistema Nazionalaren Etengabeko Prestakuntzako Batzordearen logoa eta testu hau:

**«.....(e)ko Lanbide Sanitarioen Etengabeko Prestakuntzako Batzordeak egiaztatutako jarduera, etengabeko prestakuntza x krediturekin», aurreko puntua kontuan hartuta.**

4. Parte-hartzaileen bertaratze-ziurtagiriak edo aprobetxamendu-ziurtagiriak Batzordearen logotipoa eduki beharko du eta testu hau ere izan beharko du:

**«.....(e)ko Lanbide Sanitarioen Etengabeko Prestakuntzako Batzordeak egiaztatutako jarduera», espediente-zenbakiarekin eta emandako kreditu-kopuruarekin.**

5. Era berean, erakunde hornitzailearen logotipoak beste leku batean azaldu beharko du.
6. Hornitzaileak ezartzen duen gutxieneko bertaratzea frogatu ez duten eta jardueran parte hartu duten pertsonen ezin izango zaie eman Batzordearen logotipoa duen aprobetxamendu-ziurtagiririk edo aprobetxamendu-diplomarik.

## 8. BERMATUTAKO JARDUERAK EGIAZTATZEKO ARAUAK.

Berमतutako jardueran parte hartu duten pertsonen ematen zaien ziurtagiri-ereduak honako alderdi hauek gutxienez errespetatu beharko ditu:

## 8.1. ZIURTAGIRIAREN EGITURA OROKORRA.

**Logotipos del Organizador/es**  
de la Actividad de FC (que figura como Solicitante-Número y Posición libre)

**Certificado**

**Texto libre que incluya:**

1. Nombre del Alumno
2. Título de la actividad
3. Calendario: *En las actividades presenciales: **fecha de inicio y de finalización.***  
*En las actividades a distancia: **período de vigencia***  
*El Calendario debe de ser **idéntico** al que figura en el Certificado de Acreditación expedido per la CFC correspondiente.*
4. Lugar de realización (en actividades a distancia se debe explicitar)
5. Lugar y Fecha de expedición del Diploma
6. Firma: El Responsable máximo de la entidad organizadora (gerente o equivalente) o en quien delegue. De manera opcional y no substitiva del anterior puede co-firmar el director de la actividad

**Avales y colaboradores**

**Logotipo CFC**  
Más el texto íntegro: "Actividad acreditada por la Comisión de Formación Continuada del Sistema Nacional de Salud de la CCAA de XX"  
**X,X créditos**  
**Registro. 00/XXXXX-YY**

En caso de **patrocinio externo**. Sólo podrá aparecer el logotipo/s institucional/es del patrocinador/s (el tamaño siempre debe ser inferior al del logotipo del organizador)

## 8.2. EDUKIA:

### 8.2.1. GOIKO ALDEA:

a) Hornitzaile edo erakunde eskatzailearen logotipoa, eskabidean azaltzen dena. Dokumentuan inprimatuta dauden logotipo guztien artetik handiena izango da.

b) Dokumentuaren izena «Ziurtagiria/Diploma» izango da.

### 8.2.2. ERDIALDEA:

Testua askea izango da, baina honako datu hauek gutxienez azalduko dira:

a) Parte-hartzailearen/ikaslearen izen-abizenak, nortasun-agirian azaltzen diren bezala, hau da, ez da laburdurarik eta lagunarteko izenik erabiliko.

b) Jardueraren izenburua. Batzordearen Idazkaritza Teknikoak emandako egiaztapenaren jakinarazpen ofizialean azaltzen den izenburu berbera.



- c) Egiaztapenaren jakinarazpenean azaltzen diren hasiera- eta amaiera-datak. (Jarduera egiteko datak aldatu badira, Idazkaritza Teknikoak horren berri izango du prestakuntza hasi aurretik).
- d) Urrutiko jardueren kasuan, adierazi indarraldia.

### 8.2.3. BEHEKO ALDEA:

- a) Egiaztapenaren aipamena derrigorrezko eta hitzez hitzeko testu honekin, Egiaztapen Sistemaren logotipoa beheko aldearen eskuinetara jarrita, ahal bada:

**«XX(e)ko AUTONOMIA-ERKIDEGOKO Osasun Sistema  
Nazionalako Etengabeko Prestakuntzako Batzordeak  
egiaztatutako jarduera»**

**X.X kreditu**

**xxxxxxxxxxxxx erregistroa**

- b) Ziurtagiria egin den tokia eta data
- c) Erakunde hornitzailearen arduradunaren (gutxienez) sinadura. Izenpetzen du(t)en pertson(ar)en izen-abizenak eta kargua maiuskulaz jarriko dira nahitaez.
- d) Bermatutako irakaskuntza-jardueran prestatzen ari diren espezialistak sartzen badira, honako testu hau azalduko da:

**«Prestakuntza-jarduera honen kredituak ezin zaizkie aplikatu  
jarduera horretan parte hartzen duten eta Osasun Zientzietako  
espezialista izateko prestakuntza jasotzen ari diren  
profesionalei»**

### 8.3. GOMENDIOAK:

- a) Hornitzailearen web-orrien edo prestakuntza-plataformen bitartez ematen diren eta interesdunak bere ekipamendu informatikoan deskargatzen dituen ziurtagirietan/diplometan, ziurtagiriek sinadura digital bat eta egiaztapen-kode seguru bat izango dute, interesdunak edo hirugarrenek dokumentuaren egiazkotasuna egiaztatu ahal izateko. Dokumentuaren ertzetan edo hornitzaileak egokientzat hartzen duen lekuan jarri ahal izango da. Argi eta garbi irakurtzeko modukoa izango da eta testuko tipografiaren antzeko tipografia erabiliko da. Baldintza horiek ere aplikatu beharko dira sinadurak eta zigiluak modu masiboan kopiatzen direnean, jende asko bertaratzen den ekitaldietan, esate baterako biltzarretan, inprimaketa grafikoaren bitartez eta interesdunei zuzenean ematen zaizkienean edo postaren bidez bidaltzen zaizkienean.
- b) Gainerako kasuetan, sinadurak eta zigiluak jatorrizkoak izango dira.
- c) Dagokion autonomia-erkidegoko Lanbide Sanitarioen Etengabeko Prestakuntzako Batzordearen logotipoa dokumentuaren behealdeko eskuinaldean azalduko da. Babesleen logotipoa baino handiagoa eta hornitzaileena baino txikiagoa izango da; dokumentua koloretakoa bada, logotipoak kolore berdea izango du eta dokumentua zuri-beltzean inprimatuta badago, aldiz, logotipoa beltza izango da. Logotipoak berberak izango dira autonomia-erkidego guztientzat eta dokumentuaren oinean bereiziko dira. Dokumentuaren oinean autonomia-erkidego egiaztatzailearen izena azalduko da.
- d) Gure Sistema Egiaztatzailearen etengabeko prestakuntzako kredituak eta sozietate zientifikoek, lanbide-korporazioen edo nazioarteko erakundeek aintzatespenak ez dira bateraezinak.
- e) Babesleen logotipoak eta/edo izenak badaude eta haiek ziurtagiria azaltzea nahi izanez gero, txikiak izango dira eta dokumentuaren behealdean ezkerretara jarriko dira. Produktu komertzialen logotipoak edo izenak (adibidez, farmako baten izena) ezin izango dira babesle gisa azaldu; kasu horretan, farmakoa egiten duen laborategiaren izena edo logotipoa azalduko da.
- f) Erakunde publikoen kasuan, legeak agintzen duelako irudi korporatiboa errespetatu behar denean, ziurtagiria irudi horretara egokituko da dokumentuaren maketazioan eta eskatzen den edukari eutsiko zaio.
- g) Nahi izanez gero, egiaztapen-eskaeran azaltzen diren beste informazio batzuk – hornitzaileak interesgarritzat hartzen dituenak– jarri ahal izango ditu hornitzaileak dokumentuaren atzealdean; esate baterako, honako hauek: ikastaro baten programa, egindako praktikak, gainditutako ebaluazio mota, etab.
- h) Izenburuaren leerroaren ondorengo leerroan honako testu hau azal daiteke: «Modalitate honetan emandako prestakuntza»: (egiaztapenaren jakinarazpen ofizialean azaltzen den modalitatea jarriz beteko da, zehazki hitz hauetakoren batekin:
  - Presentziala.
  - Urrutikoa.
  - Mistoa (presentziala eta urrutikoa).

Oharra: egiaztatutako jarduera baten irakasleek, zuzendariak, koordinatzaileak, tutoreak, hizlariak eta abarrek etengabeko prestakuntzako krediturik lortzen ez dutenez, ezin dituzte parte-hartzaileak jasotzen dituzten ziurtagiri berak jaso.

Maketazioaren aldetik argi eta garbi bereizten diren ziurtagiriak jaso ditzakete; dena den, ziurtagiri horietan ezin izango da egiaztapen-logotipoa erabili eta ezin izango dira aipatu jarduerari emandako kredituak. Bestalde, ziurtagiri horietan, egiaztatutako irakaskuntza-jarduera batean izandako parte-hartze maila adierazi beharko da.

## 9. PUBLIZITATEA

1. Hornitzailearen, hots, jarduera egiaztatzea eskatzen duenaren eta jardueraz arduratzen denaren logotipoa egiaztatutako jardueraren dokumentu, publizitate-euskarri eta irakaskuntza-material guztietan azalduko da.
2. Babesleen, hots, egiaztatu nahi den irakaskuntza-jarduera finantzatzuz edo jarduerarako edozein motatako laguntza emanez laguntzen dutenen logotipoak jardueraren publizitate-euskarrietan eta irakaskuntzaz kanpoko materialetan azaldu ahal izango dira (karpetak, bolalumak, koadernoak, etab.); kasu horietan, babesle gisa identifikatuko dira argi eta garbi. Babeslearen izena eta/edo logotipoa ez da inoiz azalduko jardueraren irakaskuntza-edukietan, hots, irakasleak erabiltzen dituen eta/edo ikasleei ematen zaizkien testuetan, fitxetan, prestaketetan, diapositibetan, ikasgela birtualean eta antzekoetan.

Farmakoen, produktu dietetikoaren, aparatuen, produktu sanitarioen edo beste edozein motatako produktuen marka komertziala ezin izango zaio lotu egiaztapen-logotipoari, ezta egiaztatutako jarduerari ere.

Prestakuntza-jarduera egiaztatzeko eskaera bateraezina da jarduera hori baimentzeko eskaerarekin, sendagaiaren publizitatea egiteko euskarri baliagarri gisa (1416/1994 Errege Dekretua).

1. Dagokion Autonomia Erkidegoko Lanbide Sanitarioen Etengabeko Prestakuntzako Batzordearen logotipoa irakaskuntza-jarduera baten publizitatean eta ziurtagirietan soilik erabili ahal izango da, betiere jarduera horren egiaztapenaren inguruko jakinarazpen ofiziala jaso ondoren. Soilik kolore berdean edo beltzean erabiliko da eta ez du inolako orla edo apaingarri grafikorik izango; horrez gain, egiaztapena aipatzen duen testuarekin batera azalduko da: «XX(e)ko Autonomia Erkidegoko Osasun Sistema Nazionaleko Etengabeko Prestakuntzako Batzordeak egiaztatutako jarduera, XX krediturekin. XXXXXX erregistroa». Dagokion Autonomia Erkidegoa erakunde egiaztatzaile gisa identifikatu behar da.
2. Publizitatea egiaztapen-eskaeraren emaitza jakin aurretik egiten bada, honako testu hau jarri ahal izango da: «Dagokion Autonomia Erkidegoko Lanbide Sanitarioen Etengabeko Prestakuntzako Batzordeari eskatu zaio egiaztapena data honetan: ». Kasu horretan, ez da inoiz erabiliko Batzordearen logotipoa, ezta lehendik egiaztatutako jarduera baten berredizio berdinen egiaztapena eskatzen bada ere.
3. Batzordearen logotipoa ezin izango da inoiz erabili egiaztatutako jarduera jakin bati zalantzarik gabe lotuta ez badago dokumentu batean, ziurtagiri batean, publizitate-euskarri batean, web-orri batean eta abar. Era berean, ezin izango da erabili jardueren zerranda bati, etengabeko prestakuntzako hainbat jardueren programa bati edo babesleen eta hornitzaileen irudi korporatibo bati orokorrean lotuta.
4. Ezin izango dira inoiz bakoitza bere aldetik egiaztatutako jardueren kredituak batu izen desberdina izango duen eta egiaztatutako jardueren kredituak elkartuko dituen «jarduera» berri bat eratzeko.
5. Ez da lotuta egongo masterreko titulazioari, adituaren titulazioari, diplomatuaren titulazioari edota Estatuko nahiz Unibertsitateko tituluekin nahas daitekeen beste edozein titulaziori.

6. Gidaliburu honetan ezarritako arauak errespetatzen ez dituen publizitatea hedatu dela ikusten bada, publizitate hori konpontzeko eskakizun ofiziala egingo da, eta, hornitzaileak, akatsak zuzendu ondoren, derrigorrezko iragarki bat txertatu beharko du aldi berean. Iragarkiaren testua honako hau izango da:

***Txertatze-data: 201...(e)ko .....aren ....(a).***

***«201...(e)ko .....aren ....(a)z geroztik (okerreko publizitatea jarri zen datatik aurrera), dagokion Autonomia Erkidegoko Lanbide Sanitarioen Etengabeko Prestakuntzako Batzordeak zehaztutako arauekin bat ez datorren publizitatea egin da gure prestakuntza-jarduerak egiaztatzeari dagokionez,***

***Zehazki, honako arau hau(ek) ez d(ir)a bete:***

***1.-....., (konpontzeko errekerimendu ofizialean aipatzen diren arrazoiak)***

***2.-....., (behar izanez gero, gehitu lerroak)***

***Eta horren berri ematen da, dagozkion ondorioetarako, gerta litekeelako pertsonaren batek uste izatea osasun-arloko etengabeko prestakuntzako gure zerbitzuen kontsumitzaile gisa bere interesei kalte egin zaiela»***

***..... Jauna/Andrea***

***Kargua: (Erakundearen arduraduna izango da: presidentea, zuzendaria, gerentea, etab.)***

Iragarkia okerreko publizitatea zegoen leku beretan jarriko da.

## 10. AUDITORIAK.

Egiaztatutako jarduerak edozein unetan auditatu ahal izango ditu Autonomia Erkidegoko Sistema Egiaztatzaileak prozesu arautuaren bitartez.

Auditoria jardueraren garapenaren eta betetzearen inguruko egokitzapen-maila hornitzaileak formularioaren bitartez aurkeztutako proposamen formalaren arabera egiaztatzeko erabiliko da, betiere eskatzen diren kalitate-irizpideak bete ote diren egiaztatzeko.

Bi urteko denboraldi batean, (Euskal Autonomia Erkidegoan denboraldi hori 5 urtekoa da) antolatzaileak/hornitzaileak honako honi buruzko informazioa eduki behar du eskuragarri:

- Behin betiko programa (datak, jarduera egingo den lekua eta behin betiko ordutegia azalduko dira).
- Parte-hartzaileen zerrenda (izen-abizenak eta lanbidea gutxienez).
- Diploma edo ziurtagiria eman zaien parte-hartzaileen zerrenda.
- Bertaratzea/parte-hartzea kontrolatzeko sistema (parte-hartzaileek erabilitako eta betetako ereduaren kopia edo parte-hartzeari buruzko txostena sistema telematikoen kasuan).
- Irakasleen eta tutoreen zerrenda.
- Ikasleei emandako material didaktikoa, egileak identifikatuta.
- Erabilitako ebaluazio-eredua: jarduera, edukiak, tutoreak eta abar ebaluatzeko.
- Emandako diploma-eredua.
- Gogobetetasunari buruzko inkestaren emaitzak

Auditoriak bi motatakoak izan daitezke:

- Dokumentuetan oinarritutakoak: ikastaroa egin ondoren, idazkaritza teknikoak erakunde hornitzaileari edozein dokumentu eskatzen dionean, ikastaroan eskatu dena eta egin dena bat etortzen direla egiaztatzeko balio izango duen edozein dokumentu, alegia.

Euskal Autonomia Erkidegoan, ikastaroa egin ondoren, egiaztatutako jarduerari buruzko dokumentazio oro bidaliko da idazkaritza teknikora 15 eguneko epean jarduera amaitzen denetik aurrera:

- Gauzatze-ziurtagiria
  - Bertaratu direnen zerrenda, erabilitako asistentzia-kontrola erantsita (sinadura-orriak edo antzekoa)
  - Egindako inkestaren eta azterketen emaitza, egonez gero
  - Kredituetarako eskubidea duten parte-hartzaileei emango zaien diploma- edo ziurtagiri-eredua.
  - Gainera, merkataritza-babesa izanez gero, bertaratuei eman zaien materiala aurkeztu beharko da.
- In situ: idazkaritza teknikoak egiaztatzen duenean, hornitzailearen egoitzan edo jarduera egiten den lekuan, eskaeraren informazioa eta garapena bat etorriko dira.

## 11. TERMINOEN GLOSARIOA

### EGIAZTAPENA

Kanpoko erakunde batek ikastetxe edo hezkuntza-jarduera bati buruz egiten duen balioespenaren prozesua, aldez aurretik ezarritako irizpide eta estandar batzuk erabiliz. Balioespenak ezarri den gutxieneko puntuazioa gainditzeko badu, irizpideen eta estandarren aintzatespen formala bermatzen da eta jarduerak/erakundeak egiaztatzen egiten da.

### JARRERAK

Gogo-prestasuna, nolabait adierazia. Norbaitenganako edo egoera edo objektu batekiko sentimenduen prestasun iraunkor samarra da. Prestasun hori pertsonenganako, gertaerekiko, iritziekiko edo teoriekiko jokabidean adierazten da. Jarrerak eskuratzeko helburuak aipatzeko gehien erabiltzen diren aditzak: balioetsi, ikusi, onartu, ...(e)z kezkatu, ....(e)z jabetu.

### PRESTAKUNTZA-JARDUERA

Profesionalen ezagutzaren eta/edo abileziaren eta/edo jarreraren konpetentziak eguneratzera, mantentzera eta hobetzera bideratutako ekintza.

### PORTAFOLIOAK

(Portfolio-Based Learning or Portfolios)

Ikaskuntza gauzatu dela frogatzen duten ebidentzia multzo bat, adostutako helburu batzuen edo ikaskuntza-jardueren multzo negoziatu baten testuinguruan gautzen dena orokorrean. Portfolio batzuk ikaskuntzan aurreratu dela erakusteko garatzen dira; beste batzuek, aldiz, helburu espezifikoaren lorpena ebaluatzen dute. Zehazki, ikasleak denboraldi jakin batean biltzen duen materiala biltzen da portfolioetan. Ikaslearen jabetza erreala eta intelektuala dira eta ikasleak arduratu behar du portfolioak egiteaz eta mantentzeaz. Portfolioa ikaslearen benetako esperientzian oinarrituta dagoenez, teoriaren eta praktikaren arteko harremana erakusteko balio du, eta hainbat iturri erabiliz ikasi denaren frogak izateaz gain, aldez aurretik ezarritako ikaskuntza-irizpideen eta -helburuen arabera ebaluatzea ahalbidetzen du. Portfolioa erabiliz, ikaskuntza autonomia eta hausnarketan oinarritutakoa egin daiteke, eta heziketa eta garapen profesionala osatzen du. Espero da izangaiek probak ematea eta aldez aurretik ezarritako estandarrekiko harremana ezartzea. Portfolioen ikuspegiaren barnean edukien osagai bat eta gogoeta-osagai bat sartzen direnez, erabaki behar den lehenengo gauza da zer osagai mota ebaluatuko den. Portfolioak izangaiek berak edo beste pertsona batzuek ezarritako ikaskuntza-helburuetan oinarritutako prestakuntzako nahiz bildumazko ebaluazio-prozesu bat dira, baita ikasteko eta etengabeko garapen profesionalerako eredu bat ere.

### ARAZOETAN OINARRITUTAKO IKASKUNTZA

(Problem-Based Learning [PBL])

Ikaskuntzaren ikuspegi honen bitartez, ikasleak talde txikitik ikasten du tutore baten laguntzarekin. Ikasleak aldez aurretik ezarritako arazo bat aztertzen hasten dira. Arazoak lehenengo lan-saioan ikerketaren egutegia eta bakarkako edo taldeko ikaskuntza ezartzeko beharrezkoak diren helburuak eta kontzeptuak iradokitzen dituzten datuak ditu. Taldeak ondoren egingo dituen bilerekin, ikasleek beren aurrerapenak kontrola ditzakete eta ikasteko helburu berriak ezar ditzakete ikasleek dituzten premien arabera. Tutoreak lan hau betetzen du: alde batetik, ikasten laguntzen du, eta, bestetik, ezarritako helburuak lortzen laguntzen die ikasleei. Arazoetan oinarritutako ikaskuntzak ahalbidetzen du ikasleek beren ezagutzak praktikan aplikatzeko ahalmena garatzea, ikasleek ikaskuntzan parte har dezaten laguntzen du eta, era berean, ahalbidetzen du taldean lan egiteko abileziak garatzea. Arazoetan oinarritutako ikaskuntzako ikastaroak egin dituzten ikasleek

gehiago azpimarratzen dute «esanahia» (ulermena) «errepikapena» (buruz ikastea) baino. Ikasleek modu autonomoan ikasteko konpromisoa hartu behar dute; oso eskola magistral gutxi ematen dira.

### **GAITASUNA**

Pertsona baten baldintza psikologikoak, pertsona horrek ikaskuntzaren eremuan dituen ahalmenekin eta aukerekin lotzen direnak.

### **IKASTEKO IKASGELA BIRTUALA EDO INGURUNE BIRTUALA**

Ikasgela birtuala teleprestakuntzarako aukera espezifikoak dituen aplikazio informatiko bat da, ikasleak lan egiteko sortu dena. Ikasleak erabiltzaile gisa alta emanda egon beharko du aplikazio horretan sartzeko. Ikasgela birtuala web-orri gisa aurkezten da eta hainbat aukera ditu. Ikasleak aukera horietara jo dezake ikasgela birtualean barrena banatuta dauden botoi adierazle batzuk sakatuz. Honako hauek dira ahal edo aukera horietako batzuk:

- 1) Ikastaroari buruzko informazio xehatua: ikastaroaren ezaugarriak, ikastaroa osatzen duten unitate didaktikoak, bibliografia iruzkindua, termino espezifikoaren glosarioa, ebaluazio-sistema, etab.
- 2) Jarduera-agenda
- 3) Ikasturtearen material didaktikoetarako sarbidea. Dokumentazioa zabala denez, sartzeko erabili behar duzun tresna fitxategien transmisioa da
- 4) Tutoretzarekiko komunikazioa: ikaslea edozein unetan jar daiteke harremanetan bere tutorearekin edozein zalantza argitzeko posta elektronikoen bitartez.
- 5) Teledebateak eta hitzaldi telematikoak adituekin, tutorearekin eta ikastaro bereko beste ikasle batzuekin, zerbitzu telematikoak erabiliz, esate baterako, foroak, txata, eta abar erabiliz.
- 6) Online ariketak eta ikaskuntzaren autoebaluazioa egitea: unitate didaktiko bateko jarduerak bukatu ondoren, materialek ebaluazio-proba batzuk egitera bidaltzen dute ikaslea bide telematikoan erabiliz. Proba horien abantaila da emaitza proba egin bezain laster azaltzen dela eta autoebaluazio gisa erabil daitekeela.
- 7) Ikasgela birtualaren funtzionamenduari buruzko online laguntza

### **BLENDED-LEARNING**

B-Learninga (ingelesezko blended learning hitzetatik sortzen dena) irakaste-prozesu erdi-presentziala da; horrek esan nahi du formatu horretan ematen den ikastaro batek eskola presentzialak eta e-learning motako jarduerak izango dituela. Prestakuntza-eredu horrek % 100ean online den prestakuntzaren abantailak eta prestakuntza presentziala erabiltzen ditu, prestakuntza mota bakar batean elkartuz, eta horrek arindu egiten du prestatzailearen lana nahiz ikaslearena. b-Learning modalitatea hartzea erabaki den hezkuntza-programaren heziketa-diseinuaren barnean online jarduerak eta jarduera presentzialak sartuko dira, pedagogikoki egituratuta, eskuratu nahi den ikaskuntza lortzea erraztuz.

### **BRIEFING**

«Briefinga» ikasleek jarduera hasi aurretik egiten duten lan-bilera labur bat deskribatzeko erabiltzen den hitz bat da. «Briefingak» bi helburu ditu: alde batetik, jarduera seguru, eraginkor eta kalitatezko bat lortzea, eta, bestetik, ikasleen integrazioa eta kohesioa erraztea lantalde gisa. «Briefingean» egin behar den jardueraren berriazko inguruabarren berri ematen da, postuak eta zereginak banatzen dira, jarraibideak eta argibideak ematen dira eta dagokion ikasgaiari aplikatzekoak diren prozedurak eta araudia gogorarazten dira.



## LANBIDE SANITARIOEN ETENGABEKO PRESTAKUNTZAKO BATZORDEA (EPB)

Administrazio publikoen kide anitzeko organoa, Osasun Sistema Nazionaleko Giza Baliabideen Batzordeari atxikita dagoena, osasun-administrazio publikoek eta gainerako erakundeek etengabeko prestakuntzaren arloan dituzten funtzioak betetzeko lana bateratzeko ez ezik, esparru horretan garatzen diren jarduketak koordinatzeko ere sortu dena.

## GAITASUN PROFESIONALA

Horrela definitzen dugu laneko benetako hainbat egoeratan pertsonak lanbide-arlo bakoitzaren berezko lana modu egokian betetzeko estandarren arabera, egoera horietan sortzen diren arazoak konpontzeko martxan jartzen dituzten Ahalmenen, abilezien, trebetasunen eta jarrerren multzo konplexua eta integratua.

- **Gaitasunak:** Ahalmenen definizio eraginkor orokorrenak adierazten du ahalmenak dituen gizabanakoak aurretik duen esperientzian aurki ditzakeela zailtasun eta inguruabar desberdinen erronkari modu eraginkorrean erantzuteko informazioa eta teknika egokiak. Egoera berria aztertzeke eta ulertzeko ahalmena izan behar da, baita ezagutzen eta metodoen oinarri bat ere, behar den unean erabiliko dena; horrez gain, nolabaiteko erraztasuna izan behar da alde aurretik izandako esperientziaren eta oraingo arazoaren arteko harreman egokiak bereizteko.
- **Abileziak:** Abilezien garapena lan, figura profesional edo lan-arlo jakin batzuentzat espezifikoak diren metodologietan eta tekniketean hainbat praktika eskuratzea da. Abileziak prozesu intelektualak edo mentalak laburrago egiteko moduei erreferentzia egiten dieten ahalmen praktikoak dira (esate baterako, magnitude-ordena bat paper-euskarririk gabe edo kalkulagailurik gabe kalkulatzeko lehengai bat erabiltzen denean edo finantza-aplikazio jakin bat kalkulatzeko denean, input baten proportzioak, metrajeak edo kiloak zehaztea). Interesgarria da ikustea ahalmena abilezia bilakatzeko behar den denbora kompetentzia baten kalifikazio-mailaren adierazle bihurtzen dela, besteak beste.
- **Trebetasunak:** Motrizitate espezializatuaren, ikusmen-zolitasunaren, entzumen-zolitasunaren, dastamen-zolitasunaren, esfortzu fisikoaren, orekaren eta abarren modu jakin batzuen garapen zehatzarekin lotzen diren ahalmen praktikoak dira (adibidez, motrizitate xehea eskuratzea zehaztasunezko edo xehetasunezko lanetarako, zehaztasuna eskuratzea emaitza jakin batzuk lortzeko tresna jakin batzuk erabiltzeko, etab.). Abileziak ahalmen praktiko gisa aztertzeak ahalbidetzen digu prestakuntzaren ikuskera konduktista hutsetik aldentzea.
- **Jarrerak:** Subjektuen prestasuna irizpide etikoak, estetikoak eta pertsonen, instalazioen eta ekipoen segurtasun-irizpideak eta ingurumen-irizpideak lan-eremuan azaltzen diren aukera desberdinen aurrean aplikatzeko garaian erantzukizunez eta autonomiaz aplikatzeari dagokionez.

«... Langile batentzat, kompetentea izatea bere orientabidea aurkitzea, enplegua lortzea, erantzukizunak hartzea eta leku bat izatea da, hots, enpresaren premiei erantzuteko gai izatea.» (Alaluf eta Stroobants, 1994: 47).

## OSAGAI KUALITATIBOA (CCL)

Etengabeko prestakuntzako jardueren diseinuaren kalitatea ebaluatzearen ondorioz ateratzen den balioa. Balio hori 0tik 2,8ra bitartekoa da.

## OSAGAI KUANTITATIBOA (CCT)

Prestakuntzako jardueraren ordu-kopurua (iraupena) eta haztapen-faktore mailakatua biderkatzearen ondorioz ateratzen den balioa. Faktore hori honela aldatzen da jardueraren iraupenaren arabera:

- = 0 < 20 ordu x 1,1
- 21 - 40 ordu x 1,0
- 41 - 80 ordu x 0,9
- > 80 ordu x 0,7

## EZAGUTZA

Informazioa ikaskuntzaren bitartez asimilatzearen emaitza. Ezagutza lan-eremu edo ikasketa jakin batekin lotutako gertaeren, printzipioen, teoriaren eta praktiken multzoa da.

### **KREDITUA**

Etengabeko prestakuntzako jarduera bat egiaztatzearen ondoriozko balioa. Kredituaren balioa jardueraren diseinuaren (Osagai kualitatiboa) kalitatearen eta jardueraren iraupenaren (Osagai kuantitatiboa) kalitatearen balioespenaren arabera da. Honako hau da kreditua kalkulatzeko formula:  $\text{Kreditua} = (\text{Osagai Kualitatiboa}) \times (\text{Osagai Kuantitatiboa})$ .

### **DEBRIEFING**

«Briefingaren» kontrako aldean «debriefinga» dago. Jarduera egin ondoren, ikasleak bildu egiten dira egindako lana aztertzeko, bereziki erabat ondo atera ez diren alderdiak (baldin badaude) aztertzeko. Helburua da lantaldeak identifikatzea egindako akatsen kausak zein izan daitezkeen eta konponbideak proposatzea akats berak etorkizunean berriro ez egiteko. Beraz, «debriefinga» ikasteko eta etengabe hobetzeko tresna baliotsua da.

### **JARDUNA**

Profesional batek konpetentziak erakustea betetzen duen lanpostuaren eginkizunak eta erantzukizunak betetz.

### **PRESTAKUNTZAREN DISEINUA ETA PLANGINTZA**

Prestakuntza-arloko ekimenak eta programak proiektatzera eta planifikatzera bideratutako jarduera metodologiko koherenteen sorta ezarritako helburuak lortzeko. Prestakuntzaren diseinatze eta planifikatzeko, prestakuntza-eskaera eta prestakuntza-premiak aztertu behar dira, prestakuntza-proiektua sortu behar da, eta prestakuntza ematea koordinatu eta gainbegiratu behar da eta prestakuntzaren ondorioen ebaluazioa egin behar da.

### **IRAKASLEA**

Prestakuntza ematen duen erakunde batekin irakaskuntza-programa osatzen duten jarduerak diseinatze, emateko, ebaluatze eta hobetzeko zereginak betetz elkarlanean aritzen den profesionaletako bakoitza.

### **E-LEARNING**

Interneten bitartez gauzatzen diren ikaskuntzako-irakaskuntzako prozesuak, irakasleen eta ikasleen arteko bereizketa fisikoa bereizgarritzat dutenak. Prozesu horietan komunikazioa (sinkronoa nahiz asinkronoa) nagusitzen da eta komunikazio horren bitartez etengabeko interakzio didaktikoa gauzatzen da. Gainera, ikaslea prestakuntzaren erdigunea da, bere ikasketa autokudeatu behar duelako tutoreen eta ikaskideen laguntzarekin.

### **IRAKASLE-TALDEA**

Prestakuntza-ekintza bateko edo batzuetako ikaskuntza-edukiak –irakaskuntza-programazio batekoak– garatzen eta ematen dituzten irakasleen multzoa.

### **PRESTAKUNTZA-EGONALDIA**

Prestakuntza-programa bat, batez ere praktikoa, ohiko lantokitik kanpo gauzatzeko, Zentro/Unitate/Zerbitzu batean egondako denboraldia lanbidea hobeto betetzen lagunduko duten gaitasun profesionalak eskuratzeko. Prestakuntza-egonaldiak ahalbidetzen dute profesionalak ohiko lan-ingurunean eskuratu ezin dituen konpetentziak eskuratzeko.

Prestakuntza-egonaldiak ohiko lantokia ez den beste edozein Zentrotan egingo dira; dena den, zentro hori erreferentziazkoa izango da eta lortu nahi diren konpetentziak betetzeari dagokionez, maila egokia izango du. Honako ezaugarri hauek izango dituzte:

- Egun bakoitzean 6 orduetik gorakoa ez den denboran egingo dira.
- Ez dira 2 pertsona baino gehiago prestatzen arituko aldi berean.
- Batez ere eduki praktikoa izango dute.

- Check-listaren bitartez egiaztatuko da profesional kualifikatuek alde zuzenetik planifikatutako helburuak lortu direla praktikan.

### **EBALUAZIO JARRAITUA**

**Ebaluazio**-metodo horretan, noizean behin probak egiten dira irakastaldian zehar; proba horiek ikasleen ikaskuntza-prozesu osoa balioetsi ahal izateko eta ikastaroa egin bitartean hobetu ahal izateko egiten dira.

### **IKASKUNTZA-EMAITZEN EBALUAZIOA**

Pertsona baten ezagutza teorikoak eta praktikoak, abileziak eta konpetentziak alde zuzenetik zehaztutako irizpideen arabera ebaluatzeko prozesua (aurreikusitako emaitzak, lortutako emaitzak neurtzea). Oro har, ebaluazio-prozesuarekin batera ziurtagiria ematen da.

### **FEEDBACKa (BERRELKADURA)**

Komunikazio-prozesu bat da; feedbacka deitzen diogu hartzaileak mezuaren igorleari bidaltzen dion eta igorleari honako honetarako balio dion erantzun edo erreakzio garrantzitsu orori:

1. Mezuak bere komunikazio-asmoa bete duela ziurtatzea, eta
2. Igorleak mezua aldatu, berriz eratu edo hartzaileari egokitu ahal izateko, hartzailearengandik lortzen duen erantzunaren arabera.

Hezkuntza-testuinguruan, feedbacka ikasleak itxurazko egoeran edo benetako egoeran betetzen duen lanari buruz (automatikoki edo irakaslearengandik/tutorearengandik) jasotzen duen informazioari buruzkoa da eta honetarako erabiltzen da:

- Ikaskuntzarako gogoak pizteko (prestakuntza-ebaluazioa)
- Ikaskuntza-helburuak lortu direla egiaztatzeke
- Neurri zuzentzaileak sartzeko, behar izanez gero

### **ETENGABEKO PRESTAKUNTZA**

Prestakuntza ez-arautu ez-ofiziala. Profesional sanitarioek eskubidea eta betebeharra duten irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesua, graduatu aurreko edo espezializazioko ikasketak amaitzen direnean hasten dena eta profesional sanitarioek bilakaera zientifikoaren eta teknologikoaren eta gizarteak nahiz osasun-sistemak berak egindako eskaeren eta azaldutako premien aurrean ezagutzak, abileziak eta jarrerak eguneratzeko eta hobetzeko (LSAL Lanbide Sanitarioen Antolamenduari buruzko Legea).

### **PRESTAKUNTZA ERAKUNDEETAN**

Prozesu sistematikoa, erakunde batek sustatzen eta kudeatzen duena eta erakundeetako langileentzat dena, langileen konpetentziak eta ahalmenak garatu nahi dituen, erakundeak jarritako helburuak lortzeko. Honako ezaugarri hauek ditu:

- Giza Baliabideak kudeatzeko gainerako estrategietan sartuta dago.
- Zeregin estrategikoa dauka erakundearen: aldaketan bideratzailea eta eragilea.
- Inbertsio-eginkizuna dauka.
- Motibazio eta gogobetetasun pertsonalaren iturri da.

### **ONLINE PRESTAKUNTZA**

E-LEARNINGa: plataforma eta euskarri desberdinak erabiltzen ditu ikasleek ikastaro bat edozein lekutatik egiteko; behar den elementu bakarra Internetarako konexioa duen gailu bat da.

Ikasteko modua askotarikoa da; izan ere, irakasleak ikasteko metodologia desberdinak erabiltzen ditu, besteak beste:

- Bideo tutorialak
- Foroak
- Txatak
- Irakasleen eta ikasleen arteko konexio birtualak
- Gai bati buruzko aurkezpenak

- Ariketa praktikoak
- Irakurketa-dokumentuak
- Ikasteko material osagarriak

Ebaluatzeko modua ere askotarikoa da:

- Galdera-sortak
- Ariketak ematea
- Pareen arteko ebaluazioa
- Foroetan parte hartzea
- Blogak sortzea

Ikastaroak egiteko erabiltzen diren plataformek gero eta gehiago ahalbidetzen dute interakzio gehiago izatea irakasleen eta ikasleen artean, baita ikasleek elkarren artean ere, eta era horretan ahalbidetzen da dinamismo handia izatea ikasketa mota honetarako.

B-LEARNINGa EDO BLENDED-LEARNINGa: e-learning modalitatea modalitate presentzialarekin konbinatzen du.

M-LEARNINGa EDO MOBILE-LEARNINGa: telefono mugikorraren edo tabletaren bitartez egiten den ikaskuntza da. Ahalbidetzen du ikastaro bat edozein lekutatik eta edozein ordutan jarraitu ahal izatea, ikasleen premietara egokituz.

## INPAKTUA

Prestakuntzak erakundearen emaitzetan eta/edo inplikaturako profesionalen jokabidean duen oihartzuna da. Inpaktua ebaluatzeko funtsezkoa da hasierako adierazle batzuk (prestakuntzaren aurretik) eta azken adierazle batzuk (prestakuntzaren ondoren) ezartzea egon litezkeen aldaketak garatutako prestakuntza-ekintzak eragindakoak ote diren ezartzea ahalbidetzen duten azterketak eta erkaketak egin ahal izateko. Hainbat inpaktu mota egon daitezke, emaitzak espero direnak diren edo ez kontuan hartuta. Hortaz, litekeena da inpaktua positiboa (hasieran neurtutakoari dagokionez erakundearen adierazleak hobetzen badira), neutroa (adierazleetan inolako aldaketarik ez badago) edo negatiboa (hasieran ezarritako adierazleek okerrera egiten badute) izatea.

## ZER DEN

- Prestaturako pertsonen jarduteko modu berriak beren lanpostuetan praktikan jartzen ote dituzten egiaztatu ondoren (transfer), ebaluatu behar den hurrengo maila da portaera berri horiek izan duten eragina hainbat parametrotan edo adierazletan kuantifikatzea da. Horren helburua prestakuntzak emaitza ukigarrietan, zehatzetan eta ikusgarrietan zenbaterainoko eragina izan duen egiaztatzea da. Parametro horiek kantitateen, indizeen, epeen edo erabilitako giza baliabideen bitartez adierazten dira.
- Beraz, adierazle batzuen bitartez ikus dezakegu, modu kuantifikatuan, prestakuntzak alderdi horietan duen eragina, baita denboran zehar izan duten bilakaera ere. Orain, gizabanakoen ikaskuntzaz gain gizabanakoek ikaskuntzaren martxan izan dituzten ondorioak neurtzen ari gara.

## ZERTAN DATZAN

- Prestakuntza espezifiko batek zer alderdi zehatzetan (parametroak) ustez eragina izango duela zehaztean datza. Lehenengo zeregina, hortaz, jasotako prestakuntzaren eraginkortasunaren erreferente gisa erabiliko diren parametroak hautatzea eta zehaztea da. Parametroak hautatzeko, kontuan hartu behar dugu honelakoak izan behar dutela:
  - Egokiak, hau da, prestakuntza-ekintzaren helburuekin zuzenean lotuta egongo dira.
  - Neurrizko kostua izango dute, hau da, parametroak ez dira hain sofistikatuak izango ezen parametroak neurtzeko prozesua prestakuntzaren etekina baino garestiagoa izango den.
  - Fidagarriak, hau da, neurketa egiten denean seguru egon ahal izango gara lortutako datuak zuzenak direla, baita parametro horren aldakuntza prestakuntza faktoreengatik gertatu dela kanpoko faktoreengatik baino gehiago.

- Onargarriak, hau da, ebaluatuko diren pertsonak edo haien nagusiek ez dituztela baztertuko gogaikarriegiak, lortzeko zailegiak direlako edo mesfidantzak edo susmoak sorraraz ditzaketelako.
- Gutxi izatea, haien azterketa egitea zailegia ez izateko, alde batetik, eta ebaluazio-prozesua behar baino garestiagoa ez izateko.

#### NOIZ ERABILI BEHAR DEN

- Odolean kolesterol-maila murrizteko erregimen bat aplikatzen da odol-analisi batean ikusten denean kolesterolaren presentzia handiegia dela. Denboraldi batean erregimena egiten eman ondoren, berriro neurtzen da kolesterol-maila tratamendua eraginkorra izan ote den ikusteko. Hala ere, analisiak ez dira hor geratzen, baizik eta denbora-tarte bat igaro ondoren berriro egiten dira analitikak, bilakaera zein izan den ikusteko.
- Oso antzekoa da parametro fisikoen kasua. «Sintoma» batzuen bitartez egiaztatu dugunean gure enpresan arazo bat dagoela, aurretiko neurri batzuk behar ditugu (lehenengo odol-analisia) prestakuntza jakin bat (tratamendua) jaso ondoren alderdi, elementu edo parametro horiek behar bezalako bilakaera izan ote duten (bigarren analisia) eta bilakaera hori mantentzen den, igotzen edo jaisten den ikusteko (hirugarren analisia).
- Horrenbestez, parametroen neurketak DENBORA ANITZEKOIA izan behar du, sortutako ondorioak eta ondorio horiek denboran zehar jarraitzen ote duten egiaztatzeko.
- Kasu jakin bakoitzak adieraziko du noiz egin behar diren zehazki neurketak. Kasu batzuetan lehenengo neurketa prestakuntza-ekintza gauzatu eta berehala egin ahal izango da (behar den guztia ikasgelan ikasi denean eta ikasitakoa praktikan berehala jarri ahal denean), baina kasu gehienetan beharrezkoa izango da denbora igarotzea eskuratutako kompetentziak «barneratzeko» eta denbora batez praktikak egin ondoren, prestakuntza-ekintzaren etekin osoa lortu ahal izateko. Hori gertatzen da, adibidez, aplikazio informatikoen ikaskuntzaren kasuan (testuen tratamendua, datu-baseak, eta abar), nolabaiteko praktika behar baita ikasgelan ikasitakoari etekina ateratzeko.

#### PRESTAKUNTZA-IBILBIDEA

Subjektuaren ikuspegitik, bere profesionaltasunaren garapenean modu aktiboan lagundu duten prestakuntza-esperientziaren eta/edo produkzio-esperientziaren eta/edo esperientzia sozialen multzoa da. Gaitasun profesionalen garapena modu koherentean eskatu duten espazio sozialen multzoa dira.

Kompetentzia horien prestakuntzaren ikuspegitik, elkarrekin gauzatzen diren eskaintzen multzoa da, prestakuntza-kidetasunaren arabera, eta subjektuen eguneratzean, espezializazioan eta/edo birmoldaketan oinarritutako etengabe prestakuntzako prozesuen garapena ahalbidetzen dutenak. Prestakuntza-ibilbidearen ikuspegi horrek ahalbidetzen du lanerako prestakuntza gauzatzea heziketa orokorrarekin eta oinarritzko heziketarekin, hezkuntza-arloko gizarteratze-prozesuak ahalbidetuz. Kontzeptu hori lanbide-familiaren kontzeptuari eta gauzatzearen kontzeptuari lotuta dago.

#### KONPETENTZIEN MAPA

Lanpostu jakin bateko eginkizunak eta erantzukizunak behar bezala betetzeko behar diren eta garapen-gradiente baten arabera ordenatuta dauden kompetentziak gehitzea.

#### IRAKASKUNTZA-METODOAK

Irakaslearen ekintza-sekuentzia desberdinak dira, ikasleengan ekintza eta aldaketa jakin batzuk eragiteko proposatutako helburuak lortzearen arabera.

#### IKASTAROKO MATERIAL DIDAKTIKOAK (BALIABIDE-PAKETEA)

Teleprestakuntzako esperientzia bat abian jartzeko alderdi zailenetako bat material didaktikoak diseinatzea eta egitea da. Prestakuntza presentzialeko material estandarrek ez dute balio, nahiz eta material horiek hoberenak izan, material horiek urrutiko prestakuntzara egokitzeko prozesurik ez badago. Ezinbestekoa da arreta berezia jartzea edukien sekuentzian eta ikasleei lan orekatu bat ematea, eduki teorikoak eta aplikazio praktikoak konbinatuz, baita autoebaluazioko ariketak eta edukiak zabaltzeko eta ikaskuntzak indartzeko hainbat jarduera osagarri ematea ere. Ildo horretan, material didaktikoak laguntzarik behar ez dutenak izango dira, egitura modularra izango dute eta multimedia euskarrian egongo dira. Teleprestakuntzako ikastaro estandar bat honako material eta baliabide hauetan oinarritzen da:

- 1) Tutorearen gida metodologikoa: tutorearen eginkizunak eta zereginak argi eta garbi azaltzen ditu eta aztertzen ditu.
- 2) Ikaslearen gida metodologikoa eta didaktikoa: ikastaroaren deskribapena eta haren ezaugarriak, lan-metodoa (tresna telematikoak erabiltzea ere sartzen du), ebaluazio-jardueren azalpena eta ikasketarako laguntzak aurkezten ditu. Gida horren helburua ikastaroaren lehenengo urratsak bideratzea da.
- 3) Unitate Didaktikoak: autoikaskuntzarako diseinatuta daudenez, edukien mailaz mailako aurkezpena funtsezko ezaugarri bat da. Unitate didaktiko horietan ikasleak iradokizunak aurkitzen ditu, elkarrizketa-koadroetan, gogoeta egiteko jardueri buruzko proposamen ugarritan askotarikoetan, ikerketa eta talde-lana ikastaroaren edukiak barneratzen laguntzeko, aplikazio praktikoak eta autoebaluazio-ariketak (learning by doing).

Unitate bakoitzak honako material eta baliabide hauek eduki ditzake:

- § INPRIMATUTAKO MATERIALA: unitate didaktikoa gidatzen duen ardatza, ikastaroaren edukiak aurkezten ditu, konexio telematikoak eragiten duten jarduerak proposatzen ditu eta autoebaluazio-ariketak sartzen ditu unitate didaktiko bakoitzean;
- § MATERIAL AUDIOBISUALA: batzuetan, inprimatutako materiala indartzen du, eta, beste batzuetan, edukiak transmititzen ditu errealitatea ikaslearengana hurbilduz;
- § SOFTWARE HEZITZAILEA: ikasteko tresna gisa sortzen da, beste materialak osatzeko, errealitatean manipulatzeko zailak izango liratekeen prozesuak simulatzeko baliagarria.

## MENTORETZA

Eredu, orientatzaile, tutore, irakasle edo konfiantzazko pertsona gisa jardungo duen pertsona esperientziadun batek gazte bati edo esperientziarik gabeko pertsona bati (ikaskuntza-komunitate edo -erakunde batean sartu berri dena) hainbat modutara ematen dion laguntza eta orientabidea.

## AZALPENETAN OINARRITUTAKO METODOLOGIA

Irakasle batek pertsona multzo baten aurrean egiten duen ahozko aurkezpena da, talde handi eta txikiei eduki teorikoa duten gaiak edo informazio zabala emateko ASMOZ denbora laburrean. Behar bezala erabilitako azalpenezko teknika hiru fasetan garatzen da: Sarrera, Informazioa eta Laburpena.

- 1) Sarrera: Fase honetan, saioan landuko diren gaiak aipatzen dira eta parte-hartzaileen motibazioa suspertzen da. Normalean, hori lortzeko honako hau egiten du irakasleak:
  - Saioaren helburuak zeintzuk diren azaltzen ditu.
  - Helburuak parte-hartzaileen premiekin eta esperientziekin erlazionatzen ditu.
  - Aurreko unitatean edo saioan azaldutakoa gogorarazten du, eta
  - Garatuko diren puntuak edo gaiak modu eskematikoan aurkezten ditu.

Sarrera, beraz, parte-hartzaileen interesa suspertzeko, parte-hartzaileak gaien kokatzeko eta informazioa nola erabiliko duen parte-hartzaileei azaltzeko erabiliko du irakasleak.

- 2) Informazioa: Fase honetan, ikaskuntzen emaitza gisa parte-hartzaileek eduki behar duten informazio guztia ematen da. • Irakasleak bere jarduerak prestatu behar ditu eta ordenan azalduko ditu.

- 3) Laburpena: Fase honen helburua azalpenaren alderdi garrantzitsuak indartzea eta parte-hartzaileei informazioak egituratzen eta buruan gordetzen laguntzea da. Laburpen on bat egiteko jarduerak.

- Puntu garrantzitsuei buruzko ahozko laburbilketa bat egitea.
- Puntu horiek koadro sinoptiko edo eskema batean azaltzea.

- o Galderen bitartez, taldea bideratzea azaldutakoari buruzko puntu nagusiak azaltzera.

### PRESTAKUNTZA-MODALITATEA

Irakaslea eta prestakuntzaren hartzailleak elkarren artean komunikatzeko moduak eta bitartekoak mugatzen duten ezaugarria. Modalitateak erabilitako teknika didaktikoak baldintzen ditu; izan ere, teknika horiek zer eremutan garatuko diren ezartzen baitu (presentziala eta/edo birtuala). Honako modalitate hauek daude: e-learninga, blended-learninga, presentzialak, ez-presentzialak eta erdipresentzialak.

**IKASTAROA:** Ikasgai espezifiko eta jakin batean ezagutzak hartzera eta konpetentzia hobetzera bideratutako prestakuntza-jarduera. Irakasle batek edo batzuek hartzen dute parte denboran egituratutako eta zehaztutako hainbat saiotan.

Ezaugarri eta/edo baldintza nagusiak:

- Ekarpen teorikoa da gehiena
- Eduki praktikoak aurkeztu behar ditu ezagutzak integratzeko
- Koordinatzaile bat dago, eta horrek hainbat hizlariren arteko harremana errazten du
- Ezagutzen abiapuntua eta ikasten ari direnen abiapuntua berdinak izango dira
- Gomendatzen den gehieneko ikasleen kopurua: 30 inguru.

**LANTEGIA:** Prestakuntza-jarduera, nagusiki praktikoa, helburu nagusizat abileziak garatzea duena. Ezaugarri eta/edo baldintza nagusiak:

- Ikasleen partaidetzak aktiboa izan behar du
- Ikasleen eta irakasleen arteko eta ikasleek elkarren arteko interakzio handia
- Gomendatutako ikasleen kopurua: 6-8 irakasle bakoitzeko

- Iraupen laburrekoa. Ordu kopurua eduki zehatzen eta lortu behar diren helburuen arabera izatea.

**TXANDAKETA:** Profesionalek beren ohiko lantokia ez den beste zentro batzuetan denbora osoko edo partzialeko egonaldia egitea, esperientziak ezagutzeko eta konpetentziak hartzeko oso arlo zehatz batzuetan eta zentro horiek erreferente diren teknika espezifikoetan. Ezaugarri eta/edo baldintza nagusiak:

- Parte-hartzaileak praktika kliniko edo kudeaketa sanitario jakin bateko Zerbitzuan edo Arloan sartu behar du
- Parte-hartzaile kopurua txikia izatea: 1 edo 2 txanda bakoitzean
- Iraupena eduki zehatzen eta lortu behar diren helburuen arabera izatea.
- Egun bakoitzeko 6 orduetik aurrera ikaskuntza indartzetzat hartuko da.

**MINTEGIA:** Jarduera horretan gai jakin bat lantzen da modu monografikoan eta sakonki, une jakin batean sortutako prestakuntza-premia jakin bati erantzuteko. Ezaugarri eta/edo baldintza nagusiak:

- Esperientzia eta ezagutza desberdinen trukea parte-hartzaileek kritika eginez, elkarriketan arituz, eztabaidatuz eta gogoeta eginez.
- Ezagutzak hartzera eta jarrerak aldatzera bideratuta dago
- Kideek interes erkideak dituzte gaiari dagokionez eta antzeko prestakuntza-maila
- Landuko diren gaiak taldeak planifikatuko ditu lehenengo saioan.

- Mintegia antolatzeke eta diseinatzeko, ezinbestekoa da alde zuretik prestatzea eta materialak ematea bertaratuak erabiltzeko; era berean, baldintzak ezarri behar dira mintegia behar bezala garatzeko.
- Emaizak edo ondorioak talde osoaren erantzukizuna dira
- Egindako lana laburtzeko eta ebaluatzeke saio batekin amaitzen da
- Ikasle kopuru gomendagarria: 5-12. Talde handiago bati bideratuta badago, komenigarria da talde txikiagotan banatzea
- Iraupen laburrekoa, oro har. 2 orduetik 3 ordura bitartekoa
- Egun batzuetan luza daiteke amaitu arte.

**BILTZARRA:** Ikasgaireren batean adituak diren pertsonak elkarrekin harremanetan jartzeko eta trukeak egiteke bilera; bertan informazioa ematen da, berrikuntzen eta azken aurkikuntzen berri ematen da, konponbideak bilatzen dira eta erabakiak hartu ohi dira. Ezaugarri eta/edo baldintza nagusiak:

- Metodologia desberdineko eta askotariko edukiko jarduerak ditu.
- Denborari dagokionez, aldi berean eta noizean behin egiten diren eta laburrak diren jarduerak.
- Komunikazio askeak eta posterrak eduki ditzakete
- Lanbide bateko edo gehiagoko parte-hartzaile kopuru handia
- Batzorde zientifiko bat eta batzorde antolatzaile bat izan behar ditu
- Ohorezko Batzordea eduki dezakete edo ez

**SINPOSIOA:** Espezialista eta adituen bilera, gai baten alderdi ezberdinak era osoan eta xehatuan azaldu eta garatzeko. Alderdi horiei ikuspegi ezberdinetatik heltzen zaie, elkarren segidako parte-hartze labur eta sintetikoaren bidez. Ezaugarri eta/edo baldintza nagusiak:

- Espezialistek 15-20 minutuko azalpenak egiten dituzte.
- Koordinatzaile batek ideia nagusiak laburbiltzen ditu.
- Entzuleek galderak eta zalantzak planteatzen dituzte, eta adituek argitu eta erantzuten dizkiete
- Parte-hartzaile kopurua handia da

**JARDUNALDIA:** Arlo jakin bati buruzko ezagutzak eguneratzeko erabiltzen den jarduera, txosten eta eztabaida-mahaiz osatutako egitura batekin. Ezaugarri eta/edo baldintza nagusiak:

- Gai beraren barnean metodologia eta eduki desberdinak dituzten jarduerak
- Noizean behingoa eta laburra denboran
- Lanbide bateko edo gehiagoko parte-hartzaile kopuru handia
- Aldi berean ez da jarduerarik egiten.

**MAHAI-INGURUA:** Gai berari buruz ikuspegi dibergenteak edo kontraesankorrak dituzten adituen talde batek bere ideiak azaltzen ditu taldearen aurrean elkarren segidan eta moderatzaile batekin koordinatuta. Ezaugarri eta/edo baldintza nagusiak:

- Parte-hartzaileek gaia ezagutu behar dute eta trebeak izan behar dute beren iritzia azaltzeko eta defendatzeko argudio sendoak erabiliz
- Gaiaren erakusle bakoitzak hamar minutuz hitz egingo du jarraian, eta azalpenak bukatzen direnean, aukera emango da berriro hitz egiteko bi edo minutuz.
- Moderatzaileak elkarren segidan emango die hitza mahai-ingurua osatzen duten pertsonen, eta bukaeran, parte-hartzaile bakoitzaren ideia nagusien laburpena egingo du eta azaldu diren desberdintasun nabarmenak aipatuko ditu.
- Moderatzaileak entzuleei eskatuko die galderak egitea.

**LANTALDEA:** Modalitate horretan, bertako kideek praktika sanitarioari buruzko aurretiko prestakuntza-maila handia izan behar dute eta gogoeta-maila ere bai. Etengabeko autonomia eta jarduketa-kalitatea ditu ezaugarritzat, lantalde horrek egiten dituen proiektuak eta materialak beste sanitario batzuentzat erabilgarriak izateko. Ezaugarri eta/edo baldintza nagusiak:

- Ezinbestekoa da lantaldea osatzen duten pertsonen alde zuretik prestakuntza izatea eta lana partekatzea



- Lantoki berekoak edo beste lantoki batekoak eta lanbide berekoak edo beste lanbide batekoak izan daitezke
- Koordinatzaile bat izango da zereginak antolatzeke nahiz banatzeko eta alderdi burokratikoak kontrolatzeko (sinadura-orriak, saio bakoitzaren gai-zerrenda, ebaluazio-txostenak, eta abar). Talde osoak elkarrekin egindako memoria aurkeztuko du
- Ikasle kopuru gomendagarria: 4-12
- Saioak 2 ordu ingurukoak izango dira

Lanaren gaiak honako alderdi hauek azpimarratuko ditu:

- Prozesu sanitarioak hobetzea
- Protokoloak, gidaliburuak eta abar egitea, aztertzea eta esperimentatzea
- Ingurune sanitarioan izaten diren gertakarietan oinarritutako ikerkuntza/berrikuntza

**ESKOLA MAGISTRALA (LECTURE):** Irakasle batek ikasle askoz osatutako talde baten aurrean egindako ahozko azalpena. Irakaskuntza-metodo hori historikoki oso garrantzitsua izan da hezkuntzan, pertsona talde handiei informazioa emateko modu ekonomiko bat delako. Baina kontzentrazioari eusteko eta informazio garrantzitsu asko bereganatzeko pertsonen taldeetan zailtasunak izaten direla eta jarrera pasiboa hartzen dela badakigunez, zalantzan jarri da eskola magistralen balioa. Entzuleen motibazioa ikus-entzunezko aurkezpenak eginez, pazienteak aurkeztuz eta aldizkako eztabaidak proposatuz areagotu daiteke.

## KONPETENTZIEN LORPEN-MAILAK

Konpetentzien eskuratze-mailak dira, proposatutako helburuaren eta prestakuntzaren ondoren profesional bakoitzak lortu duen mailaren artean dagoen tarte edo gorabehera ezartzen dutenak, eta horrekin prestakuntza-jardueran parte hartu duten profesionalen garapen indibidualaren planen ebaluazioa eta jarraipena egitea ahalbidetzen da.

## HELBURUAK

Irakaskuntza-jarduera baten helburuak jarduera horren kalitatea balioesteko elementu definitzaileenetako eta garrantzitsuenetako bat dira. Jardueraren hornitzaileak helburuetan adierazten ditu bere hezkuntza-asmoak eta profesionalak uler dezake zer onura lortuko duen jarduera horretan parte hartzen badu.

Helburuak irakaslearen eta ikaslearen arteko, hots, hornitzailearen eta bezeroaren arteko ikaskuntza-kontratua edo ituna dira, eta horri jarraikiz, ikaskuntzaren ondorengo ebaluazioaren oinarria. Helburuak, beraz, zehaztasunez eta argi idatzi behar dira irakaskuntza-jardueran parte-hartzaileen aldetik lortu nahi diren konpetentzien, ezagutzen, abilezien eta jarreraren aldaketari dagokionez.

Helburuak behar bezala adieraztea ez da lan zaila, baina helburuak hobeto ulertzen eta ebaluatzen laguntzen duten irizpide batzuk kontuan hartu behar dira. Horrek errazten du irakasleen, hornitzaileen, ebaluatzaileen eta oro har bezeroen artean adostasuna egotea helburuen erabilerari eta adierazpena dagokionez.

- **HELBURU OROKORRAK:** Ikaskuntzatik espero den emaitza deskribatzen dute. Ikaslearengandik espero den ikaskuntza garrantzitsuenari, globalenari eta konplexuenari egiten dio erreferentzia. Ikaskuntza hori irakaskuntza-jarduera orokorraren xede da. Espero den ikaskuntza ezin da zuzenean ikusi, baizik eta ikaskuntzarekin lotuta dauden jokabide garrantzitsuen multzotik ondorioztatzen dira. Helburu orokorren kopuruak mugatua izan behar du. Egokiena izango litzateke irakaskuntza-jarduera bakoitzeko helburu orokor bat edo bi izatea.
- **HELBURU ESPEZIFIKOAK:** Ikus daitekeen kanpoko jokabide bat adierazten dute, eta jokabide horrek erakusten digu ikasle batek konpetentzia, ezagutza edo abilezia bat eskuratu duela. Helburu orokorrekin lotuta egon behar du nahitaez.

## ANTOLAMENDUA ETA LOGISTIKA

Antolamenduak eta logistikak proposatutako programa betetzeko beharrezkoak diren giza baliabideen eta baliabide materialen multzoari egiten diote erreferentzia.

### PROFIL PEDAGOGIKOA

Prestakuntza-jarduera emango duten irakasle guzti-guztien ezaugarri pedagogikoen multzoa da: gaiarekin lotutako irakaskuntza-esperientzia, gaia emateko beharrezkoa den prestakuntza espezifikoak (Oinarritzko Bizi Euskarriaren monitorea, Bizi Euskarri Aurreratuko irakasleak,...), esperientzia eta/edo prestakuntza metodologiaren eta teknika didaktikoen alorretan (Lehen Mailako Arreta Zentroa, hezitzaileen hezitzailea, egoiliarren tutorea, unibertsitate-irakaskuntza, eta abar).

### LANBIDE-PROFILA

Lanbide-arlo espezifiko batean jarduteko eskatzen diren gaitasun profesional espezifikoaren deskribapena da. Profil horretan produkzio-logika adierazten da, eta haren helburua prestakuntza-eskaintza antolatzeko input egokiak ematea da. Curriculum-diseinuaren funtsezko erreferentzia bat da; izan ere, prestakuntza-prozesua bideratzen du eta subjektuek garatuko dituzten lanak zehazten du, baita lan horiek produktiboki nola ebaluatzen diren eta lanbidea betetzearen irismenaren eta baldintzak zeintzuk diren ere.

### PROFIL TEKNIKOA

Prestakuntzako jarduera batean lan-kategoriari, lantokiari, ematen duten gaian duten lanbide-esperientziari, lantaldeetan elkarlanean aritzeari edo emandako edukiei buruzko ikerketari dagokionez eta abar esku hartzen duten irakasle guzti-guztien ezaugarri teknikoaren multzoa da.

### PERTINENTZIA

Honako hau hartzen da prestakuntza-jarduera baten pertinentziatzat: xede-biztanleriari emateko hornitzaileak zehaztutako edukien egokitzapena, egokitasuna eta komenigarritasuna. Era horretan, jardueraren edukia premietara eta ezagutzak benetan eskualdatzeko gomendatzen diren teknika eta estrategia metodologikoetara egokitzeko eta egituratzeko erabiltzen den irizpidea da. Pertinentziak ezartzen du proiektua garatzen den esparruan edo diziplinan zenbaterainoko nabarmentasuna, premia eta garrantzia duen, baita proiektua aplikatuko den errealitatera zenbateraino egokitzen den eta zer egokitasun-maila duen ere.

### PROZEDURA

Helburu jakin batzuk lortzeko jardueren sekuentzia zehaztua. Inguruabar berberetan beti emaitza bera lortzeko, modu berean egin behar diren ekintzen edo eragiketen multzoa.

### ONLINE BALIABIDEAK

- ✓ ikasgela birtuala
- ✓ INTERNETeko tresnak

Online baliabide horien bitartez, mota honetako jarduera telematikoak egin daitezke:

1. Posta-zerrenda. Posta-zerrenda bat egitea parte-hartzaileekin eta tutorearekin, ikastarorako informazio garrantzitsua helarazi ahal izateko guztiei.
2. Nabigazioa. Ikastaroarekin lotutako gaiari buruzko informazioa bilatzea sarean. Posta-zerrenda interesgarriak izan daitezkeen INTERNETeko helbideak trukatzeko erabil daitezke.
3. Eztabaida-foroak, sinkronoak (txata) eta asinkronoak (newak). Baliagarriak dira artikulua bidaltzeko, hezkuntza-esperientziei buruz eztabaidatzeko, iruzkinak egiteko, informazioa trukatzeko eta abar. Posta-zerrenda baten bitartez jasotako informazioa balioesteko edo INTERNETeko helbideak trukatzeko ere erabil daitezke

4. Helbide elektronikoa. Norberaren informazioa trukatzeko, tutorearekin harremanetan jartzeko; ikasleen jarduerak kontrolatzeko,...

### ROLE-PLAYING

Role-playinga edo rol-jokoa egiteko, hasieran arazo bat azaltzen da, antzeztuko duten pertsonak hautatzen dira, eszena prestatzen da, eta, azkenik, dramatizatu egiten da. Antzezpena bukatzen denean, rol-jokoa parte hartu duten pertsona guztiak gogoeta egiten eta elkarren artean eztabaidatzen hasten dira, landu den gaia edo arazoa sakonago ulertzen saiatzeko, arazo edo gai horri aurre egiteko eta gainditzeko estrategia egokienak diseinatzeke asmoz.

### SIMULAZIOA

Simulazioa honetan datza: ikaslea errealitatearen alderdiren bat imitatzen duen testuinguru batean kokatzen da eta giro horretan, ikasleak gizabanako osasuntsuekin edo gaixoeekin aurre egin beharko dien antzeko egoerak (problematikoak edo erreproduzitu direnak) ezarriko dira, modu independentean, egonaldi kliniko-epidemiologiko desberdinetan edo lanbide aurreko jardunaren txandaketetan (barnetegia).

Simulazioak 2 erabilera handi ditu hezkuntza-prozesuan:

- Ikaskuntzak/irakaskuntzak irauten duen bitartean: Simulazioak ahalbidetzen du ikasleak irakaskuntza-helburu jakin batean kontzentratzea; ahalbidetzen du prozedura edo teknika jakin bat erreproduzitzea eta ahalbidetzen du guztiak irizpide normalizatu bat aplikatzea. Ikaskuntzak/irakaskuntzak irauten duen bitartean, eskuragarri dauden simulazio mota desberdinak arazoak diagnostikatzeko, tratatzeko eta konpontzeko teknikak hobetzeko erabil daitezke, baita ahalmen psikomotoreak eta giza harremanen ahalmenak hobetzeko ere, kasu batzuetan ohiko metodo asko baino askoz ere eraginkorragoak izan baitaitezke; dena den, guztia simulazioaren leialtasunaren mende dago batez ere.
- Ebaluazioan: Ebaluazioari dagokionez, lortutako emaitzek adierazten dute simulazioa bereziki baliagarria dela honako alderdi hauek ebaluatzeke: datu klinikoak eta klinikoetarako azterketak bilatzeko eta interpretatzeko ahalmena, osasun-arazoak identifikatzea, gaixo batekin jarraitu behar den jokabide terapeutikoari buruzko iritzia, eta ezagutza praktikoak eta lanbide-ahileziak. Horrek ahalbidetzen du, beraz, ikasleak eskuratutako konpetentzia klinikoaren maila ezartzea, baita ikasketa-plan baten eraginkortasuna lortu nahi dugun helburuaren arabera, besteak beste, ebaluatzea ere.

### TIPOLOGIA

Prestakuntza-jarduerak definitzen dituzten ezaugarrien arabera sailkatzea. Eskuliburu honetan kontuan hartu diren tipologia honako hauek dira: ikastaroa, lantegia, mintegia eta txandaketa.

### TRANSFERENTZIA PRESTAKUNTZAN

Prestakuntzarekin eskuratutako konpetentziak lanpostuan aplikatzea eta denboran mantentzea. Transferitzeko estrategiak:

#### PRESTAKUNTZAREN AURRETIK (DISEINUA):

- Benetako prestakuntza-premiak identifikatzea
- Ikaskuntza-helburu operatiboak ezartzea
- Taldeak hasieran duen maila zehaztea
- Metodologia aktibo bat diseinatzea
- Funtsezko agenteak inplikatzeko diseinuan

#### PRESTAKUNTZAK IRAUTEN DUEN BITARTEAN (ERAGINKOR BIHURTZEA)

- Lan-ingurunera hurbiltzea edo lan-ingurunea eszenifikatzea
- Prestakuntza benetako arazoekin lotzea
- Transferitu daitezkeen jarduerak eta ariketak
- Transferentzia sustatzen duten orientabideak
- Ekintza-plan bat edo transferitzeko plan bat egitea

**PRESTAKUNTZAREN ONDOREN (APLIKAZIOA):**

- Helburuen lorpen-maila ebaluatzea
- Jarraipen-sistemak sortzea: txostenak, elkarrizketak...
- Funtsezko agenteak aktiboki inplikatzeko
- Eragozpenak hautematea eta gainditzea
- Lanpostuan errendimendua hobetzen prestakuntzak zenbateraino lagundu duen erakustea

**NOIZ EBALUATU BEHAR DA?:**

Prestakuntza bukatu eta geroago (1-6 hilabeteren buruan)

**AGENTEAK:**

- Parte-hartzaileak
- Prestakuntza-saila
- Lineako nagusia edo zuzendaria
- Lankideak
- Bezeroak

**TUTORETZA**

Eskarmentua duen eta aditua den profesional batek orientatu, aholkatu edo gainbegiratzeko egindako jarduerak. Tutoreak ikaskuntza-prozesu osoan laguntzen dio ikasleari (eskolan, prestakuntza-zentroan edo lantokian).

Tutoretzak hainbat jarduerak biltzen ditu:

- irakaskuntza teorikoa (hezkuntza-maila hobetzeko);
- lanbide-orientazioa (bizitza aktibora igarotzea errazteko);
- norberaren garapena (ikaslea bultzatuz erabaki egokiak hartzea).

**TUTORETZA TELEMATIKOA**

Tutoretza-laguntza urrutiko autoikaskuntza-prozesuaren individualizazio- eta pertsonalizazio-agente nagusietako bat da, ikasleen interesen eta premien desberdintasun pertsonalei erantzuten dielako.

Prestakuntza-sistema batean, atzeraelikadura autoikaskuntzari laguntzeko oinarritzeko printzipioa denez, tutorea urrutiko metodologiaren oinarritzeko egitura-elementu bihurtzen da. Beraz, tutoretza honela ulertzen da: alde batetik, arazoak konpontzera eta prestakuntza-edukiekin lotutako kontsultei erantzutera bideratutako esku-hartze didaktiko gisa; eta, bestetik, orientazio-dimentsio bat ere badu, ikasleak material didaktikoekin edo teleprestakuntza-ikasgelako beste baliabide batzuekin egiten duen lanean aholku ematearekin, lan-metodologia premia indibidualetara egokitzearekin edo ikasteko teknikak eta ohiturak eskuratzearekin lotuta dagoena, besteak beste. Teleprestakuntzako, didaktikako eta orientazioko proiektuaren tutoretzaren ezaugarri nagusia erabiltzen den komunikabidea da: telematika. Tutoretza telematiko hori funtsezko ekintza da eta, batzuetan, urrutiko ikasleei laguntzeko, eta haiek orientatzeko, motibatuzeko eta ebaluatzeko erabiltzen den ekintza bakarra da. Horregatik da oso garrantzitsua hezkuntzan.

Ikasleei ematen zaien material didaktikoak, bere egiturarengatik, autoikaskuntza lortzeko balio beharko du. Dena den, material hori egon litezkeen hartzaileen interesetara eta lan egiteko moduetara egokitzeko diseinatu bada ere, hartzaile horien profilak desberdinak dira; horregatik, gerta daiteke materialak ez asebetetzea hartzaile guztien interesak, eta, prestakuntza-prozesuaren une batzuetan, hartzaileek ikaskuntzan blokeatuta sentitzea. Arrazoi horregatik izaten dira eskola-uzteak; horregatik, ezinbestekoa da tutoreak esku hartzea ikaslea berriz bideratzeko eta orientatzeko beharrezkoa denean, eta, aldi berean, material didaktikoaren mugak ordeztzeko.

Tutoretzaren helburuak honako hauek dira nagusiki: ikaslearen ikaskuntza-prozesua laguntzea, orientatzea eta ebaluatzea, zalantzak argituz, zabaltzeko edo berrindartzeko jarduerak proposatuz, eta, azken batean, prozesu hori berriz elikatuz ezagutzen hasierako mailaren, ebaluazioen emaitzen, eta tutoretza-ekintzatik lortutako datuen arabera.

Arestian esan dugunez, tutoretzaren euskarria komunikazio telematikoaren sarea da. Sistema horrek telefono-zerbitzua gaintzen du (urrutiko irakaskuntza tradizionalen tutoretza-komunikaziorako ohiko baliabidea). Zerbitzu horrek bi solaskideek aldi berean esku hartzea eskatzen du. Bestalde, zalantza edo galdera tutoretzaren postontzira bidaltzen denetik hirurogeita hamabi ordu igaro aurretik ikasleak tutorearengandik jasotzen duen erantzunak atzeraelikadura bermatzen du.

Teleprestakuntza-ikastaroen tutorearen profilak honako ezaugarri hauek izan behar ditu:

- Prestakuntza-ikastaroko ikasgaiari espezializatuta egongo da.
- Ikaslearen material didaktikoa sakontasunez ezagutuko du.
- Ikastaroko aplikazio teknologikoak menderatuko ditu.
- Komunikazio telematikoaren sistemari buruzko prestakuntza izango du erabiltzaile gisa.
- Esperientzia irakaskuntzan.

Tutorearen funtzioak eta zereginak honako hauek dira:

- Ikasle bakoitzak egiten duen lanaren jarraipen individualizatua, berrindartzeko jarduerak proposatuz eta ikasi behar dena zabalduz, ebaluazioen emaitza kontrolatuz eta egindako konexio telematikoak egiaztatuz.
- Ikastaroko edukien zalantzei buruzko zalantzak argitzea.
- Telekonferentziak, teledebateak eta lantaldeak antolatuzko gai baliagarriak proposatzea eta haiek moderatzea.
- Ikasleek garatutako jarduerak ebaluatzeko eta haien jarraipena egiteko jarduerak berritzea aldizka.
- Ikaskuntzak ebaluatzea.



## 12. ERANSKINAK

## 12.1. I. ERANSKINA: KREDITU KOPURUA KALKULATZEA.

### 1. urratsa. Osagai Kualitatiboaren Kalkulua (CCL) \*

Osagai horrek erabakitzen du irakaskuntza-jarduera egiaztatuko den ala ez.

	Ebal. 1	Ebal. 2	Ebal. 3	Ebal. 4**	Ebal. 5**	Batez bestekoa		Batez besteko zuzendua		Partzial a, guztira	
<b>Jardueraren egokitasuna</b>						0,00	X	2,00	=	0,00	
<b>Helburuak</b>						0,00	X	1,00	=	0,00	
<b>Irakaskuntza-metodologia</b>						0,00	X	1,50	=	0,00	
<b>Ebaluazioa</b>						0,00	X	1,50	=	0,00	
<b>Antolakuntza/Logistika</b>						0,00	X	1,00	=	0,00	
				<b>OSAGAI KUALITATIBOA</b>							<b>0.00*</b>

\*CCLren balioa 0 puntutik 2,8 puntura bitartekoa da. Egiaztapena lortzeko, «GUZTIZKOA» laukiaren balioa 1 edo 1etik gorakoa izango da.

\*\*Eskaerak hiru ebaluatzaile independentek kalifikatzen dituzte, eta puntuazioetan adostasunik ez badago, ebaluazio osagarriak egin ahal izango dira.

Osasun Sistema Nazionalaren Lanbide Sanitarioen Etengabeko Prestakuntzako Batzordearen arabera, hiru ebaluatzailek zero bat jartzen badiote irizpide berari, gainerako kalifikazioak edozein izanda ere, egiaztapena ukatu egingo du.

### 2. urratsa. Osagai Kuantitatiboaren Kalkulua (CCT).

Irakaskuntza-jarduera balioetsi ondoren, kredituak kalkulatzen dira.

A) Zuzenketa-faktorea zehaztea irakaskuntza-jarduerak dituen orduen kopuruaren arabera.

#### HAZTAPEN-FAKTOREAK

Irakaskuntza-ordu kopurua	Honekin biderkatzen da:
≥ 20 ordu	1,1
> 20 ≥ 40 ordu	1,0
> 40 ≥ 80 ordu	0,9
> 80 - 100 ordu	0,7

### Osagai Kuantitatiboa (CCT)

Ordu-kopurua		Zuzentasuna				
	X		/ 10	=	0,00	<b>OSAGAI KUALITATIBOA</b>

#### CCTa KALKULATZEA

Kredituak kalkulatzeko, ez dira zenbatuko edozein prestakuntza-jardueratan 100 orduetik gorako ordu guztiak.

Iraupen laburreko irakaskuntza-jarduerak saritzen dira eta luzeenak zigortu egiten dira. Ahal bada, Etengabeko Prestakuntzak oso premia zehatzei erantzun behar die eta lanpostuan aplikatzekoak diren konponbideak eskaini behar ditu arintasunez.

#### B) Osagai kuantitatiboaren balioa kalkulatzea (CCT)

$(\text{Ordu kopurua} \times \text{Zuzentasun-faktorea}) / 10 = \text{CCT}$

#### 3. urratsa. Lortutako kredituak kalkulatzea:

$$\text{CCT} \times \text{CCL} = \text{Irakaskuntza-jarduerarengatik lortutako kredituak}$$

Oharra: kalkulatzeko konplexua denez, etengabeko prestakuntzako kredituak ezin dira zuzenean ordu bilakatu eta alderantziz; era berean, ezin da baliokidetasun automatikorik egin beste kreditu-sistema batzuekin (unibertsitatekoak izan edo etengabeko prestakuntza egiaztatzen duten beste sistema batzuetakoak izan).



# LANBIDE SANITARIOEN ETENGABEKO PRESTAKUNTZAKO BATZORDE NAZIONALA

**ETENGABEKO PRESTAKUNTZAKO  
HORNITZAILEARENTZAKO GIDALIBURUA**